

Norendako izango dira Disko Gorriak?

Aiert, Arragoa eta The Clayton,
Danbakako Sari Nagusiaren bila
gaur, Seminarixoa; beste sari bi
ere banatuko dituzte / 34

+



Itsasotik
Debagoieneko
arrandegietara

Ibon Martin
idazleari
elkarriketa

SINADURAK

	MIREN JOSU ARRAZOLA / 6		OIANA SANCHEZ / 10
	OIER ZUMARRAGA / 16		ANDER ETXEBERRIA / 40

MERKEALDIA

2MÓ 79€
LEHEN 99€-

ERREFLEXUEN
AURKAKO
BETAURREKO
GRADUATUAK



Kontsultatu optikan konpainiaren ezaugarriak.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua



Hilaren 16rako mobilizazioetarako deialdia egin zuten joan den astean Bergarako pentsiodunek, San Martin plazan. BERGARAKO PENTSIODUNAK

Mobilizazioak herririk herri

Debagoieneko bost herritan egingo dira.

Antzuola

- 12:00 Herriko plazan.

Aretxabaleta

- 12:00 Durana kalean.

Arrasate

- 12:00 Herriko plazan.

Bergara

- 12:00 San Martin plazan.
- 13:30 bazkaria, San Joxepen.

Oñati

- 12:00 Herriko plazan.

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

2018ko urtarrilaren 15ean ekin zieten Hego Euskal Herriko pentsiodunek bizi hobeago baten aldeko mobilizazioei, eta bost urte igaro dira ordu geroztik. Ia hutsik egin gabe, astelehenero egin dituzte protestak dozenaka herritan, borrokak kale-ratu dituzte eta lorpenak ere izan dituzte. Orain, urteurrena ospatzeko unea dela uste dute.

Borrokak merezi du, lorpenak lekuko lelopean mobilizazioak egingo dituzte astelehenean, hilaren 16an; eta tartean, baita Debagoieneko herri batzuetan ere. Parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak, gaurko garaipenak biharko belaunaldientzako bide ere izan daitezkeela nabarmenduta.

Bergarako Pentsiodunen Mugimenduko kide da Itziar Usandizaga, eta orain arte eginda-koaren berri eman du. Haren arabera, mugimendua "sasoitsu" dago eta eginiko lorpenak "handiak" izan dira. "Lortzeko ere asko dauzkagun arren, handiak dira eginikoak, eta merezi du borrokan jarraitzea".

%8,5eko igoera

Bost urteotan eskuratutako lorpenak izan ditu gogoan Usandizagak: batetik, alarguntza pentsioetako ehunekoaren hobetzea izan du gogoan; eta, bestetik, Iraunkortasun Faktorea aplikatzea eragozteko. Hain justu, bizi-itxaropenari lotuta zegoen

Bizitza duina lortzeko borrokan jarraituko dute bailarako pentsiodunek

Bost urte egin dituzte pentsiodunek protestan eta tarte horretan hainbat lorpen izan dituztela azaldu dute; haien iritziz, "negoizazioei eta presioari esker" pentsioak %8,5 igotzea lortu dute. Dena den, nabarmendu dute oraindik ere badutela zer aldarrikatu

azken hori, eta aurreikusten zuena zen bizi-itxaropena handitu ahala pentsioak murriztea.

Dena den, pentsiodunak uste du jada "ahaztutako" lorpenak direla horiek, baina bada gaurkotuagoa denik ere, urtarriletik aurrera pentsioak %8,5 handituko baitira Hego Euskal Herrian, hori baita azken hamabi hilabeteetako batez besteko inflazioa, 2021eko abendutik 2022ko azarora bitartekoa; KPIari dagokiona, alegia. "Negoziazio batzuk egin dira, kalean ere presioa ez da falta izan eta joan zen urtean

negoziatu zen jada aurten igoko zela", esan du Usandizagak.

Espainiako Gobernuak eginitako hautu bat izan da, eta, horrez gain, erabaki du kotizazio gabekoen pentsioak %15 eguneratzea. Hala, Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidenteak emandako datuen arabera, pentsio hori jasotzen dutenek batez beste 60 euroko igoera izango dute hilean. Hego Euskal Herrian 16.000 pentsio inguru daude egoera horretan; batez beste, 420 eurokoak.

Dirulaguntzatik kanpo

Usandizagak, ordea, salatu du ez dela onargarria "hainbeste pentsio egotea pobrezia-aren atarian". "Ia erdia dago mila eurotik behera [Espainian], beste pila bat 800etik... Eta badaude 400 eta 500 euroko pentsioak ere". Gainera, erantsi du Espai-

niako Gobernuak 200 euroko txekkeen dirulaguntza bat onartu duela egoera ekonomiko eta sozialei aurre egiteko onartutako neurritzat, baina pentsiodunak kanpo gelditu direla.

Horren berri eman du Juanito Saizar Arrasateko Pentsiodunen Mugimenduko kideak: "Urtean 27.000 euro kobratzen ez dituzten langileentzako sortua da, baina pentsiodunak kanpoan utzi gaituzte; baldintza horiek bete arren, ezin dute eskatu. Aldarria hor dugu: har daitezela kontuan". Gainera, gogoan izan du hainbat emakumeren

MUGIMENDUA "SASOITSU" DAGOELA USTE DUTE, BAINA GIZARTERATU BEHARRA DAGOELA

kasua ere, andre pentsiodunek pentsio txikienak jasotzen jarraitzen dutela gaineratuta.

Aldarri gehiago

Pentsiodunek eskatu dute neurri horretan eskatzen diren errenta-mailako baldintzak betetzen dituzten pentsiodunak gogoan har daitezela, eta, bestetik, erreformetan jarri dute arreta. "Gure pentsioak jaitsi diren hiru erreforma izan dira, 2011koa, 2013koa eta 2021ekoa; galtzen atera gara. Badira bi urte-edo kopuruaren zati bat berreskuratu genuela, baina orain ez dute horrelakorik egin", azaldu du Saizarrek, galdutakoa eskuratzeko eskaria eginda.

Horrez gain, bada beste eskaera bat ere: "Gutxieneko pentsioak 1.080 eurokoak izatea. Politika-riek eskatu nahi diegu sentibiltzatzeko, eta gobernatu dezate la horretara iristeko". Are gehiago, Usandizagak ere uste du Eusko Legebiltzarrak baduela horretarako ahalmena. "Ez da ezin duela; ez du nahi. Non dago behar dugun duintasuna?".

Duintasunaren aldarrian baitute jarria arreta, Saizarren esanetan: "Berdintasuna, aberastasunaren banaketa, osasungintza... Borrokan gabiltza, sistema publiko sendo baten alde, bizitza duina lortzeko". Alabaina, uste du gizarteratu beharra dagoela: "Guztiori iritsiko zaigulako erretiro garaia; aukerak behar ditugu, eta horiek sortu egin behar dira".

EGUNGO EGOERARI AURRE EGITEKO, ESPAINIAK 200 EURO EMANGO DITU, "BAINA EZ PENTSIODUNEI"

Harrera-familien premia dago

Gipuzkoako Foru Aldundiaren harrera-familien programak zazpi haurrentzako familiak behar dituela jakinarazi du; egun, 400 haur baino gehiago daude 350 familietan banatuta, eta eskertuta dago Aldundia, baina, era berean, familiak falta direla dio



Lorea Kortabarria harrera-ama eta Jose Mari Lezana Foru Aldundiko Familia Harrera eta Adopzioko atalburua. IÑIGO BARRENA

Iñigo Barrena Kortabarria ARRASATE Gipuzkoako Foru Aldundiaren harrera-familien programak 33 urte bete ditu aurten; dagoeneko Gipuzkoan finkatuta dagoen babes-figura bilakatu da urte hauetan guztietan. Lurraldean babesgabetasun egoeran dauden haurrei laguntza emateko sortutako programa da harrera-familiena, eta, nahiz eta erantzun ona izan, azkenaldian familien beharrean dira.

Egun, lurraldean 403 haur eta gazte daude 350 harrera-familietan banatuta eta haiei Ukrainatik etorritako 58 haur gehitu behar zaizkie, Gipuzkoako harrera-familietan banatuta; horietatik 26 daude Debagoienean. Hain zuzen, Foru Aldundiak jakinarazi du Gipuzkoan 73 haur daudela harrera-familia baten zain, eta horietako zazpi premiaz

behar dutela familia bat. Hori dela eta, adierazi dute zazpi haur horientzat familiak behar dituztela.

Astean, Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan izan dira Lorea Kortabarria –harrera-ama– eta Jose Mari Lezana –Foru Aldundiko Familia Harrera eta Adopzioko atalburua– gai horri buruz hitz egiten. Hain zuzen, Lezama azpimarratu zuen aipaturiko zazpi haur horiek "aspalditik" daudela familia batera joateko beharrean, eta, nahiz eta gaur egun jende asko

izan horretarako, "familia gehiagoren" beharra dutela gaineratu zuen. Momentuz, 22 familia batu dira zerrendara, baina prest daudenentzat harremanetan jartzeko bi modu izango dituzte: alde batetik, familiaharrera@gipuzkoa.eus helbidera idatzita; edo, bestetik, 943-11 25 22 telefono zenbakira deituta.

Lezanak azaldu zuen iristen zaizkien haurrak "babesgabetasun" egoeratik iristen direla eta lehenengo aukera beti familia bat aurkitzea dela, baina, ezin denerako, egoitza harrerataro bideratzen dituztela. Era berean, aitortu zuen kasu bakoitza ezberdina dela: "Haur bakoitza kasu ezberdin bat da eta bakoitzarentzat familia bat aurkitu beharra dugu". Egoera zaila den arren, etorkizunerako helburua ere jarrita dauka: "Beti daude

umeak familia baten zain eta guk honi buelta ematea nahi diogu: familiak haurren zain egotea, alegia".

Formakuntza saioa

Lorea Kortabarria harrera-ama da eta prozesua nolakoa izan zen azaldu zuen: "Lehenik eta behin, deitu egin behar duzu interesa duzula azaltzeko. Ondoren, formakuntza bat jasotzera joan beharra dago, eta, horren ostean interesatua egoten jarraituz gero, inprimakiak betetzen hasi beharra dago. Azkenik, elkarriketa egiten dizute, eta, horrekin batera, azterketa psikotekniko bat. Gero, berriz, itxaronaldi bat dago".

Uste okerrak

Harrera-familia izateko beste zalantzetako bat gerta daitezkeen arazoak edo aurretik izan daitezkeen uste okerrak direla esan zuten Lorea Kortabarria eta Jose Mari Lezanak. Kortabarriari galdetuta, hauek aipatu zituen uste oker ohikoenen artean: "Haur hori gero kendu egingo dizutela; haur horiek arazo asko ematen dituztela; edo jatorrizko familiak arazoak

emango dizkizula". Esperientzia pertsonala, aldiz, erabat ezberdina dela esan zuen: "Hasieran, Naroaren amak ez ninduen oso gogoko, baina logikoa da hori. Orain, berriz, gauzak aldatu dira eta dago arazorik; esaterako, abenduaren 25ean Naroaren ama etxean izan genuen bazkal-tzen".

'Familia espezializatuak'

Gipuzkoako Foru Aldundiak harrera-familien programaren barruan, 2008a ezkerro, *Familia espezializatuak* izeneko beste programa bat du. Hain zuzen, behar bereziak dituzten haurrei zuzendutakoa da. Kasu horretan, harrera egiten dutenak profesionalak dira eta soldata bat ematen die Aldundiak.

Harrera-familien topaketa

Programaren barruan, harrera-familien topaketa egin zuten abenduan, eta bai Lezanak eta bai Kortabarria garrantzitsutzat jotzen dute horrelakoak egitea, bertan elkar ezagutzen dutelako eta aukera ematen duelako familien artean "sareak" osatzeko eta aurrean aurkitu ditzaketen zalantzak argitzeko.

Lorea Kortabarria harrera-ama

Lorea Kortabarria arrasatearrak lau urte daramatza harrera-ama izaten; aspalditik buruan zeukan ideia zen eta ez zuen inolako zalantzarik izan: "20 urte nituenetik nahi nuen norbait harreran hartu". Nahi hori lortzeko aukera izan zuen, 8 urteko haur bat, Naroa, hartu zuen-eta harreran.

Arrasatearrarentzat bada ezinbestean beharrezkoa den zerbait mundu honetan murgiltzeko: "Motibazioa da oinarrizko aldagaia".

Lau urte dira Naroa Lorea Kortabarriaren etxera iritsi zela eta hasieratik argi izan zuen harrera-ama izateko helburua: "Nire helburu nagusia haur bati laguntzea zen; bide batez, aukera ematea familiei errekupeartzeko eta haurrarekin kontaktua ez galtzeko".

Foru Aldunditik edozeini zabalduetako aukera da harrera-familia izatearena, eta, zein ezaugarri behar diren galdetuta, argi utzi du Kortabarria: "Haur bat izatea erabakitzen duzunean, izan biologikoa, izan harrerako, behar diren baldintzak izan behar dira, eta psikologikoki egoera egokia egotea".

Foru Aldundiak eskaintzen dituen laguntzak ere "oso onak" direla esaten du Kortabarria, baina ekonomikoaz gain badagoela beste bat garrantzitsuagoa. "Laguntza ekonomikoa ondo dago bai, baina niretzat garrantzitsuagoa da eskaintzen dizuten laguntza psikologikoa".



Lorea Kortabarria. IÑIGO BARRENA

**GAUR EGUN,
DEBAGOIENEAN 26
HAUR DAUDE
HARRERA-FAMILIETAN
BANATUTA**



Debagoieneko alkateak, 2019ko maiatzean. GOIENA

Bederatzitik hiru alkate, udal hauteskundeetara

Badabiltza, poliki-poliki, maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskundeetarako hautagaiak jakinarazten: Gorka Artola, Izaro Elorza eta Maria Ubarretxena alkategai izango dira berri; ez, ordea, orain arteko gainontzeko herrietako alkateak

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE
Hauteskunde urtea izango da oraingoa. Maiatzaren 28an egingo dira udal eta foru hauteskundeak EAEn eta Nafarroan eta urtea bukatu arretik egingo dira Espainiako hauteskunde orokorrak ere. Maiatzaren 28an, gainera, udal eta foru hauteskundeekin batera, Espainian udaletako eta erkidegoetako hauteskundeak egingo dituzte. Egun horretara begirako hauteskunde kanpaina maiatzaren 12an hasiko da, 00:00etan, eta hil horretako 27an bukatuko da, ordu berean. Maiatzaren 27a gogoeta eguna izango da eta hurrengo egunean zabalduko dituzte hauteskontziak, goizeko bederatzietan.

Debagoienean, poliki-poliki, ari dira alderdi politikoak egun horretara begirako euren asmoak jakinarazten. Dagoeneko jakina da Debagoieneko bederatzitik hiruk aurkeztuko dutela euren burua maiatzeko hauteskundeetara begira alka-

tegai izateko. Arrasateko Maria Ubarretxena (EAJ-PNV), Bergarako Gorka Artola (EH Bildu) eta Oñatiko Izaro Elorza (EH Bildu) dira horiek. Gainontzekoak, Antzuolako Beñardo Kortabarria (EH Bildu), Aretxabaletako Unai Elkorro (EAJ-PNV), Eskoriatzako Joserra Zubizarreta (EAJ-PNV), Elgetako Iraitz Lazkano (EH Bildu) eta Aramaio-ko Lierni Altuna (EH Bildu), ez dira zerrendaburu izango. Leintz Gatzagan ere ez du jarraituko Eugenio Otsoak. Aurreko agintaldian hautesle elkarteak osatzeko arazoak izan zituzten herrian eta hauteskundeak sei hilabetera egin behar izan zituzten.

Lanketen una alderdietan

Gainerakoan, hitzordurako bost hilabeteren faltan, alderdi politikoak zerrendak osatzeko lanean ari dira buru-belarri. Hori da, esaterako, EH Bilduren kasua. Bergaran Gorka Artolaz eta Oñatin Izaro Elorzaz gain, ez dute beste herrietako alkategaien

berririk eman oraindik. Gehienek zehaztu barik baitituzte. Herrietan zerrendak osatzeko lanketak egiten ari dira une honetan.

Ez dute egoera desberdina EAJ-PNVn. Azaldu dutenaren arabera, herri guztietan taldea osatzeko prozesuan dabilta buru-belarri. Aurreratu moduan, Maria Ubarretxena da EAJtik hautagaitza aurkeztuko duen Debagoieneko alkate bakarra eta, gaur-gaurkoz, EAJko alkategaien inguruan dagoen informazio bakarra.

PSE-EEren kasuan, Arrasaten Aritz Muriaren hautagaitzaren berri eman dute. Gainerakoan, lanean ari direla eta asmoa dutela hautagai-zerrendak herri

HITZORDURAKO BOST HILABETEREN FALTAN, TALDEAK OSATZEKO PROZESUAN ARI DIRA ALDERDI POLITIKOAK

gehienetan aurkeztekoa. 2019ko hauteskundeetan, Leintz Gatzagan izan ezik, beste herri guztietan aurkeztu zuten sozialistek taldea.

Ezker Anitza, Podemos eta Equo, koalizio gisa aurkeztuko dira Gipuzkoan. Eta modu horretan egin nahi dute Eskoriatzan, Bergaran eta Aretxabaletan ere, Ezker Anitzako Juan Luis Merinok aurreratu duenez. Nabarmendu du, baina, Arrasaten ez direla elkarrekin aurkeztuko. Podemosek, gainera, gaur egungo zinegotzi Eva Abuin aurkeztu du Arrasaten alkategai.

Alderdi Popularrak aurreratu du Oñatin zerrenda aurkeztuko duela. Gehitu du, oraindik hautagaiaren izenik zehaztu ez bade ere "lehenengo postuak Oñatirekin modu batera edo bestera lotura duten pertsonak beteko dituztela". 2019an, Aramaion eta Aretxabaletan osatu zuten zerrenda popularrek.

Alderdi politikoez haragoko taldeei dagokienez, Eskoriatzako Elizateen Elkartek zerrenda aurkezteko asmoa du herrian. Orain arteko bozeramaile Leire San Vicentek ez du jarraituko. Leintz Gatzagan, aldiz, "beltz" ikusten du kontua zinegotzi Juanito Bengoak. Aurrekariak ere ez dira pozteko modukoak; izan ere, udal hauteskundeak egin eta sei hilabetera egin behar izan zituzten hauteskundeak herrian, hautesle talderik osatu ez zelako. Aurtengo hitzordurako ere zailtasun handiak izango dituztela onartu du Bengoak.

Foru administrazioetakoak

Udal ordezkariak aukeratzearekin batera, foru administrazioetako ordezkariak ere aukeratu dira maiatzaren 28an EAEn eta Nafarroan. Hala, Eider Mendoza izango da EAJtik Gipuzkoako diputatu nagusi izateko hautagaia eta Deba-Urola hautesbarrutirako proposatutako hautagaien artean hiru debagoiendar daude: Marijo Etxegoien oñatiarra, Ander Garay arrasatearra eta Aintzane Oiarbide bergararra. EH Bildutik Maialen Iriarte izango da Gipuzkoako ahaldungai nagusia eta gaur egun hautesbarrutietako hautagaiak proposatzeko prozesuan dabilta buru-belarri. Era berean, Ezker Anitza-Podemos-Equo koalizioan, Juan Luis Merino izango da Deba-Urola hautesbarrutiko zerrendaburua.

Ekonomiaren moteltze nabarmena espero dute

Ziurgabetasuna eta ekonomiaren moteltzea, Laboral Kutxaren 2023ko aurreikuspena

M.A.A. ARRASATE

2023ko aurreikuspen ekonomikoan aurkezpene egin zuen atzo Laboral Kutxak eta berriz ere ziurgabetasuna eta ekonomiaren moteltzea ekarri ditu tituluetara. Aurrekariak ere ez dira nolanahikoak, pandemia baten ondorioetatik baiktatoz. 2021ean BPGa erabat baldintzatu zuten pandemiaren testuinguruan hartu behar izan ziren neurriek. Egia da 2022ko lehen erdian hazkunde tasa handia izan zela, baina bigarren seihilekoan, energiaren eta lehengaien krisiak eraginda, nabarmen moteldu zen hori. EAERI dagokionez ere hazkundea moteldu egin da 2022ko hirugarren hiruhilekoan: %0,1ekoa izan da epealdian eta %3,8koa urte osoan. Ondorioz, pandemiaren aurrean baino %0,7 txikiagoa da euskal ekonomiaren errenta.

2023ko datuen moteltzea

Oraingo urtera begira BPGaren moteltze nabarmena espero da European, AEBetan eta Erresuma Batuan. Euroguneko batez bestekoa %0,1ekoa da eta oso aurreikuspen txarrak dituzte Alemaniak (-%0,7) eta Frantziak (%0,1), hemengo ekonomiaren bazkide komertzial nagusiek.

KPIaren hazkunde tasa ere handia da; %6,1ekoa Eurogunean. Horren haritik, zalantza da zenbat igoko dituzten bankuek interes-tasak. Espainiari dagokionez, 2023rako esperotako KPIaren hazkunde-tasa %4,4ra jaisten da. Barne Produktu Gordinaren hazkunde tasa, berriz, %0,8ra.

Oraingo urterako Laboral Kutxaren datuek, zalantza barik, hazkunde erritmoen geldialdia edo, are gehiago, moteltze nabarmena ageri dute. Horren arrazoietakoa bat familia eskariaren beherakada da. Esaterako, kontsumoak %0,7 egin du atzera 2022ko hirugarren hiruhilekoan.

Mar Romeraren hitzaldia, Goieskolak antolatuta

Pandemiak jardura eten bazuen ere, urtero antolatu izan ditu herrira begirako Jardunaldi Pedagogikoak Debagoieneko eskola publikoen sareak. Oraingoan, Mar Romera "irakasleen irakaslea" gonbidatu dute hilaren 26rako Amaia antzokira

Uxue Igarza Loiola ARRASATE

Goieskola Debagoieneko Euskal Eskola Publikoen Elkartek jardunaldi pedagogikoa egingo du hilaren 26an. Mar Romera aditua izango da jardunaldiko gonbidatua; irakasleei, gurasoei eta hezkuntzaren gainean interesa duten guztiei zuzendutako hitzaldia egingo du Amaia antzokian, 17:30ean.

Pandemia iritsi arte, eskolen sareak urtero egin ditu herrira begirako jardunaldiak. Azkena 2019an izan zen, eta, orduan, Cesar Bona egon zen Arrasaten –munduko irakasle onenaren aintzatespena jasotakoa–.



Mar Romera, hezkuntzan aditua. MT CONSULTING

Irakasleek ere ikasteko

Barrura begirako formakuntzak ere antolatzen ditu Goieskolak, Debagoieneko irakasleak beren beregi formatzeko. Hala ere, Ainhoa Belategi koordinatzaileak azaldu du jardunaldi pedagogikoek ere betetzen dutela helburu hori: "Irakasleen begirada aldatzeko balioko du Mar Romeraren hitzaldiak. Ikasleak nola motibatu, ikasgelako giroa nola hobetu eta ikasleekin modu eraginkorragoan eta maitekorragoan konektatzeko gakoak emango ditu".

Bestalde, jardunaldia gurasoentzat ere "oso baliagarria" izan daitekeela azpimarratu du Belategik: "Alde batetik, interesgarria da gurasoek irakasle bide-orria zein den ikustea; nondik nora goazen, alegia. Eta bestetik, hizlariak defendatzen du hainbat konpetentzia eta gaitasun ikasgelan ez ezik etxean ere landu behar direla. Hortaz, familiek ere jasoko dute informazio baliagarria".

Hain zuzen ere, adituak bere *Educator con tres Cs: capacidades, competencias y corazón* liburuan azaltzen du hezkuntza "ikaste-txeetan, etxean eta gizarteetan" landu behar dela eta hezkuntza komunitatea osatzen duten kide

INTERESA DUEN ORO GONBIDATU DU GOIESKOLAK HILAREN 26KO JARDUNALDI PEDAGOGIKORA

guztiekin dutela "beren pisua" egiteko horretan.

Emozioen lanketan aditua

Mar Romera "irakasleen irakasle" gisa da ezaguna hezkuntzaren munduan. "Erreferentzia da emozioen lanketan eta inteligentzia emozionalean. Asko dakien emakumea da, dinamikoa, eta umore puntu batekin komunikatzen ditu edukiak", azaldu du Ainhoa Belategik.

Ikasketaz irakaslea eta psikopedagogo da Romera, eta, alor horietan 30 urteko esperientzia duen arren, gaur egun, irakasleak trebatzen jarduten du: autonomia-erkidegoetako irakasleen "etengabeko prestakuntza" kolaboratzen du, Hezkuntza sailekin lankidetzan.

Bestalde, hiru master zuzentzen ditu Florida Unibertsitaria taldean –*Berrikuntzarako adimen anitzak*

eta didaktikoak, Neurozientzia hezkuntzan eta ikasgelan eta Hezkuntza Berrikuntza. Hezkuntza eredu pedagogikoa– eta bost lan argitaratu ditu –proiektu metodologikoak tarteko; adibidez, *El universo de las palabras*–. Haren hitzetan, "hezkuntzaren hacker-a" izan nahi du.

Francesco Tonucci elkarte pedagogikoko lehendakaria ere bada aditua, eta hitzaldiak, jardunaldiak eta formakuntzak zuzentzen ari da azken urteetan.

Sarea indartzeko helburua

Romerarengandik ikasteaz gain, jardunaldi pedagogikoen beste helburu bat eskualdeko eskola publikoen sarea "indartzea" eta sare hori osatzen duten ikastetxeek hezkuntzarekin duten "konpromisoa islatzea" dela nabarmendu du Goieskolako koordinatzaileak. "Hamabost eskola batera ari dira lanean jardunaldia egiteko. Koordinazio eta ahalegin handia eskatzen digu, baina uste dugu esfortzuak emango dituela fruituak, orain arte bezala", dio Belategik.

Arrasateko Amaia antzokian dauden 697 eserlekuak betetzea espero dute antolatzaileek.



Ordezkariek, euskal industria adimendunaren topaketan. BRTA

Iraunkortasuna dute helmuga industria adimendunean ere

Euskal industria adimendunaren gaineko topaketa egin zuten asteazkenean Garaia Parke Teknologikoan

U.I.L. ARRASATE

BRTA (Basque Research & Technology Alliance) aliantzak antolatuta, euskal industria adimendunaren topaketa egin zuten asteazkenean Garaian. 75 adituk hartu zuten parte bertan eta Euskal Herriko egoeraz eta erronkez jardun zuten.

Iraunkortasunerako bidean

Iraunkortasunaren eta ekonomia zirkularraren aldeko apustua egitea "ezinbestekoa" dela on-dorioztatu zuten adituek eta alor

horietan garatzen ari diren jardueren berri eman zuten enpre-setako ordezkariak. Zero aztar-nako material aurreratuak erabiltzea, makina adimendunak sortzea, ekoizpen-prozesu jasangarriak bermatzea, produktu adimendunak ekoiztea eta datuan oinarritutako negozio-eredu berriak lehenestea izan ziren aipatutako prozesu eta ekimenetako batzuk. Bestetik, enpresen arteko aliantzak estutzea ere funtsezkotzat jo zuten BRTA sareko ordezkariak.



Olioaren edukiontzia. GOIENA

Partida bideratu dute Europako funtsetatik Mankomunitatearentzat

2021eko irailean, olio erabilia jasotzeko sistema hobetzeko asmoz, edukiontzia jarri ziren eskualdeko herrietan. Orain, ekimen hori finantzatzeko 35.424 euro jasoko ditu Mankomunitateak. Europako Next Generation funtsetatik jasotako ekarpena da; 18 milioi euro jaso ditu Jaurilaritzak ekonomia zirkularra sustatzeko proiektuak laguntzeko.

Egutegi berria baserrietako plastikoa batzeko

Hileko laugarren asteartean jasoko du Deba Garaia Landa Garapen agentziak baserri inguruetan sortzen den plastikoa: urtarrilaren 24an, otsailaren 28an, martxoaren 28an, maiatzaren 23an, uztailaren 18an, irailaren 26an, urriaren 24an –salbuespena da–, azaroaren 28an eta abenduaren 26an, hain zuzen ere.

Arratsaldean utzi beharko dira hondakin horiek orain arte finkatutako lekuetan, eta, beste nonbait laga nahi izanez gero, interesdunek 943 76 25 47 telefonora deitu beharko dute.

Silao estaltzeko erabiltzen den plastikoa, belar boletan erabiltzen dena, berotegiak estaltzeko erabiltzen dena eta ortuko eta berotegiko lurra estaltzeko dira jasoko diren plastikotako motak. Landa Garapen agentziak ohartarazi du "txukun batuta ez dagoen plastikoa" ez dela jasoko.

Bestetik, adierazi du aldaketak egon daitezkeela egutegian, urteak aurrera egin ahala.



ZABALIK

MIREN JOSU ARRAZOLA

Zergatik ez dira langile publikoak?

Barakaldoko Udalak kultura zerbitzuak kudeatzeko kontratatatu duen enpresako langileek ez dute euskara eskakizuna bete beharrik. Hala ebatzi berri du Euskadiko Auzitegi Nagusiak, CCOO sindikatuak helegitea aurkeztu ondoren. "Enpresa pribatua izanik langileei ezin zaizkie ezarri langile publikoen betebeharrak", esan du.

Ondorioz, Barakaldoko herritarrek kultura alorreko zerbitzu publikoetara jotzen dutenean ez dute izango bermatuta administrazioarekin harremanak euskaraz izatea. Ondorio larria eta oso kaltegarria euskararen erabilera hedatzeko bidean; are gehiago, kulturgintzaz ari garenean.

Baina badago logika bat hor atzean. Langile publikoen baldintza berberak eskatuko badizkiegu enpresa pribatu baten langileei, zerbitzu publiko bat eman behar dutelako, zergatik ez dira langile publikoak?

ADINEKOEN ERRESIDENTZIAK LANGILEEN LAN BALDINTZAK ONARTEZINAK DIRA

Zergatik ez ditu kontratatzen zuzenean udalak?

Horrelako azpikontraten atzean prekarizazioa eta lan baldintza okerragoak egoten

dira beti. Herritarren zergekin ordaindutako zerbitzu bat langileen baldintza txarretan oinarrituta. Bi aukera daude: administrazioak zerbitzu egokia emateko behar den baino diru gutxiago jartzen du edo tartean negozioa egiten ari da norbait.

Gizarte zerbitzuetan daukagu adibide argia. Adinekoen erresidentzia gehienak enpresa pribatuen esku daude. Zerbitzu publikoa eta diru publikoa, baina negozio pribatua. Langileen lan baldintzak onartezinak izaten dira. Lanaldi partzialak, ordutegien malgutasun neurrigabea eta lan karga handiak. Lan gogorra eta soldata eskasa, guztiz feminizatuta dagoen sektore batean. Langileek eta egoiliarrek ere jasaten dituzte egoera horren ondorioak, arreta nahikorik eta zaintza egokirik ezin baitiete eman.

Langile publikoen baldintzak ez badituzte, zilegi al da haien betebeharrak eskatzea? Zergatik ez dira langile publikoak?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Sorta

ANDONI EGAÑA
'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/ORAAI](https://LABUR.EUS/ORAAI)

Metro eta erdi inguruko zumar edo urki makilak. Soka gorri batez sortan batu, eta sortaburuan aizkora bat lotu. Hori zen Benito Mussolinik erromatarren inperio garaitik erreskatatu nahi izan zuen ikurra. 1919a zen, boltxebikeen iraultza ezin eramanda zebilen, eta autoritatearen aldeko apustua egin beharra zegoela erabaki zuen. *Fasci italiani di combattimento* deitu zien bere borroka taldeei.

Fasci, horixe zen: makila sorta bat, aizkoraz burutua. Ikurrak ezin hobeto islatzen zuen Mussolinik zuen mundu-ikuskerak. Agintariaren atzetik bizkartzainak joaten ziren kalean, bizkarrean zurezko makil-azaoa eta aizkora hartuta. Helburua zuen herritarrek konturatzea agintariek esana egin ezean zer gertatuko zitzaien. Bizkarra berotuko zieten makilakadaz onenera; txarrenera, aizkoraz lepoa moztuko. *Fatxa* esaten gerora ikasi genuen.

Fascista lehentxeago. Nondik zetorren bila hasita jabetu naiz hitz bakoitzak bere huraxe esan nahi duela. Frankista, faxista, fatxa, nazi... sinonimotzat dauzkagu. Umetan, -edo hala zen behintzat nire irudipena- *karlista* maizago entzuten genuen arestian aipaturikoak baino. Montejurrakoa iritsi zen arte. Orduan ikasi genuen karlistak eta karlistak zeudela. Orain, estatuak izan zuela zerikusirik hango hilketetan.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.

Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitate
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Ikuskizunak jarrai dezala!

MARIJE UGALDE

BERGARAKO MUSIKA ESKOLAKO
ZUZENDARIA
BERGARA

30 urte pasa dira ausardiaz egin genuenetik euskarazko lehen musikala. Ez edozein musikalki; historian arrakasta handien izan duena: *Les misérables*.

Londresko bertsioa Madrilen ikusi ostean, Musika Eskolan bueltan, Alfredo Gonzalez – eskolako orkestra zuzendaria– eta Valen Moñux –eskolak egiten zituen kontzertu eta espektakuluetan zuzendari eszeniko lanetan ibiltzen zena– horrelako musikala egiteko kapazak zirela konbentzitu zuen. Eskolan bageneukan orkestra, abeslariak... eta garrantzitsuenak: ausardia.

Urtebete geroago, 1994ko urtarrilaren 6an, Bergarako udal pilotalekua beteta zegoela, euskarazko lehen musikala estreinatu genuen. Harro eraman genuen *Miserableak* Donostiako Victoria Eugeniara, Iruñeko Gayarrera, Gasteizko Printzipalera, Eibarrera, Legazpira...

Urtarrilaren 13an, gure azken musikala estreinatuko dugu. Toti Martinez de Lezearen eleberrian oinarritutakoa: *Bretxa 1813, Donostiako sutea*. Oraingoa, ibilbide luze honetan behar berriei erantzuteko sortutako

Bergarako Antzerki Musikala (BAM) elkartearen eskutik.

Polita eta harro sentiarazten gaituena da ikustea lehen musikalki hartan ume edo gazte zirenek *Bretxa* musikalean jarraitzen dutela hainbat eginkizunetan, baita haien familiakoek ere: Txemi Etxebarria eta bere aita Andoni; Oihan Vega eta bere guraso Mito eta Marian; Gorka Unamuno eta bere alaba Izar eta aita Julio; Aitzol Mujika eta bere alaba Itzal eta Enara; Karlos Etxaniz eta Mikel semea; Argiñe Agirrezabal; Julen Alberdi; Rafa Moñux eta Nere Ibarra; Fran Martinez; Martin Larrañaga eta Unai Barrutiabengoa; Iñigo eta Mikel Ibarzabal anaiak eta haien alaba Nora eta Nahia; Sara Manzano; Andoni Moñux...

Orkestran ere gauza bera gertatzen da: Josune Ena eta bere alaba Maitane eta Alazne; Yoana Gallastegi eta bere alaba June; Aitor Aranburu eta bere seme Jon eta bere ikasle Peio Arana; Mikel Markiegi; Txus Arriaran; Jabi Arrondo; Igor Larrañaga; Anaitz Loyola; Domentx Ucin; Eduardo eta Ana Txurruka anai-arrebak; Alberto Laskurain; John Prieto; Leire Ugarte...

Atrezzo, dekoratu eta detaile guztien ardura daukan talde teknikoa ere handitzen joan da eta gaur egun, Amaiak, Liernik, Arantzak, Mitok, Marianek eta Anderrek osatzen dute.

Lana, ilusioa eta gogoia dira nagusi momentu honetan. Gozatzeko eta gozarazteko prest gaude.

EHPMren bosgarren urtemuga

AMAIA ZUBIRIA
DEBAGOIENA

Urte berrian sartu gara eta hemen jarraitzen dugu, gure herriko plazetan gure aldarriak adierazten, tinko eta ozen.

Urtarrilaren 15ean, bost urte beteko dira Euskal Herri osoan astelehenero elkarretaratzeak egiten hasi ginela. Hori dela eta, hilaren 16an, jai giroan ospatuko dugu: borroka eginez, duintasunez eta harrotasunez.

Hilaren 12an, osteguna, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM) publiko egin zuen, Bilboko Kafe Antzokian, 2018ko urtarrilaren 15ean pentsiodunen mobilizazioaren hasieraren bosgarren urtemuga ospatzeko jardueraren aurkezpena.

Besteak beste, Iñaki Ortiz de Vilalbaren, Amaiaren, Ines Osinagaren eta Xabier Amurizaren letraren laguntzarekin, espresuki ekitaldi honetarako abestia plazaratu zen.

Era berean, aurkeztu ziren iazko udan Euskal Herrian zehar ibili zen Pentsiodunen Bizikleta Martxari buruzko liburua, duela bost urte martxan jarri zenetik euskal pentsiodunen mugimenduak izan duen ibilbideari buruzko

aldizkari erakargarria, bosgarren urtemuga ospatzeko kartela eta egindako borroka, lortutako lorpenak, lortzeko dauden aldarrikapenak eta horiek lortu arte borrokan jarraitzeko prestasuna azpimarratuz kaleetan eta herrietan banatuko den dokumentu xume bat.

Bosgarren urtemuga ospatzeko Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta 75 herritan egingo diren ekitaldien data urtarrilaren 16a izango da, astelehen.

Eskerrik asko!

ARRASATEKO ERREGE KABALGATAKO
BATZORDEAREN IZENEAN
ARRASATE

Arrasateko Errege Kabalgatako Batzordeak eskerrak eman gura dizkie hauei guztiei: Udalari, Udaltzaingoari, Obretako Brigadari, Gurutze Gorriari, Eroskiri, Laboral Kutxari, Caixari eta kabalgatan parte hartu duten herritar guztiei.

Haien ekarpenak beste urtebetez haur eta adineko guztien ilusioa mantentzen lagundu du. Horrenbestez, eskerrik asko denoi.

Osakidetza osasun-langileei

IÑAKI OLALDE
OLALDE ALTZELAI FAMILIAREN IZENEAN
OÑATI

Osasunari dagokionez 2022a ez da urte oparoa izan gure

etxean. Bi senide minbiziaz diagnostikatu zituzten, eta ez dira urtea amaitzera iritsi.

Askotan esaten zigun amak: "Idatziko nieke, idatziz ondo adierazten jakingo banu, horrenbeste babes behar duten une hauetan!".

Ba, egin dezagun, ama.

Eskerrik asko zuei, Onkologikoko mediku, espezialista, langile eta harreragileei. Eskerrik asko Oñatiko anbulatorioko langileei eta Santiago Ospitaleko, Arrasate Ospitaleko nahiz Txagorritxuko erizain, garbitzaile eta sukaldariei. Eskerrik asko etxera etortzen zineten medikuei eta Arrasate Ospitaleko zaintza paliatibokoei. Denei, bihotz-bihotzez, mila esker.

Pandemia gogor honen pean lan egin arren, gertutasuna, goxotasuna eta profesionaltasuna besterik ez dugu jaso guk.

Gure miresmen eta eskerrik beroenak, une oro ondoan sentitu zaituztegu. Zuen profesionaltasuna azpimarratzekoa izan da. Badakigu une zail hauetan zuetako bakoitza ahalegin berezi bat egiten ari zaretela hori horrela izan dadin.

Familian oso eskertua gaude Osakidetza profesional-talde osoak emandako arretagatik. Horregatik, gizarte honetan horren beharrezko zaretan langile guztioi gure babes osoa eskaini nahi dizuegu. 2023 urte osasuntsu oparoa guztioi!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritziz-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Oñatiara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Santa Teresan egingo du inbertsiorik potoloena aurten Udal Gobernuak

2023ko udal aurrekontua, agintaldiko azkena, ia 40 milioi eurokoa izango da eta Santa Teresako igogailu sistema bukatzeko lanetarako izango da diru partida handiena



Etxe Txikietako urbanizazioa eta bidegorria egingo dituzte 2023an. E.A.B.

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 2019-2023ko agintaldiko azken aurrekontua onartu zuen udalbatzak joan den abenduan, eta azken urteetako aurrekonturik handiena da. 2021ekoa, esaterako, 36.202.466 eurokoa izan zen eta 2022koa, berriz, 37.099.591 eurokoa. Horrek esan nahi du iaz baino 2.557.153 euro gehiago izango dituela Arrasateko Udalak aurten: %6,89 gehiago.

Maiatzeko hauteskundeen ostean Udal Gobernuak berriro beharko dela eta "zuhurtziaz eta erantzukizunez" landutako aurrekontua dela azaldu du Maria Ubarretxena alkateak, baina baita anbizioarekin ere. Izan ere, Udalak *zero zor* egoeran jarraitzen duela azpimarratu du eta egoera finantzario horrek ahalbidetzen diela 2023ko udal aurrekontuan partida esanguratsuak txertatzea.

Inbertsiorik nabarmenena Santa Teresa auzogunean egingo du aurten Udal Gobernuak, 1.210.000 euroko partida ezarri baitu dagoeneko exekuzio fasean dagoen igogailu sistema bukatzeko. Era berean, auzo horretako enplegu plan espezifikorako 304.000 euro erabiliko ditu eta Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleen birgaitze proiekturako, milioi bat euro. Gogoratu behar da eraikinetan, hiri-ingurunean eta gizarte eremuan esku hartuko duen plan bat jarriko dutela martxan laster auzo horretan, irisgarritasuna eta etxebizitzak hobetzeko asmoarekin, eta Udalak 7,4 milioi euroko dirulaguntza jasoko duela Eusko Jaurlaritzaren eskutik.

Horrez gain, Etxe Txikiak kalearen urbanizazio proiektua ere aurrera eramango dute aurten, horretarako 750.000 euroko diru partida ezarrita. Urbaniza-

zio planaren baitan, gainera, bidegorri zati bat ere egingo dute, Nafarroa etorbidea eta Gipuzkoa etorbidea lotuko dituen. Haren trazadura galtzadaren eta espaloiairean artean joango da, zubiko eremuan izan ezik, aparkalekuen eta espaloiairean artean joango baita, aparkalekuen ondoan espaloizati bat utziz. Ondorioz, hainbat aparkaleku kenduko dituzte.

Bidegorriekin jarraituz, bate-tik, San Frantziskotik Musakolarainoko zatia garatzeko 20.000 euro bideratu ditu Gobernuak eta, bestetik, San Andrestik Aretxabaletaranzko zatia proiektatuko dute: 25.000 euro.

Mugikortasun arloan, beste bi partida garrantzitsu ere jasotzen ditu aurrekontuak: TAO sistemarekin jarraitzeko 500.000 euro –zerbitzuaren berrikuspene barne– eta garraio publikoa sustatzen jarraitzeko 490.000 euro.

Kirol azpiegituretako lanak

Iturripe kiroldegi berriaren behin betiko instalazioaren proiektua 2023an idazteko eta exekuzioa hasteko, 200.000 euroko diru partida bat txertatu du aurrekontuan Gobernuak. Era berean, 520.000 euro bideratuko ditu Musakolako atletismo pista berritzerari. Udan egingo dituzte lan horiek, eta, pistarekin batera, errugbi zelaia ere aldatuko dute –futbol zelaia duela lau urte aldatu zuten–. Era berean, Uarkape pilotalekuko teilatuan plaka fotovoltaiakoak jartzeko 40.000 euro erabiliko ditu eta

UDAL GOBERNUAK EZ DU AURREIKUSTEN MAILEGURIK ESKATZEA, 'ZERO ZOR' EGOERAN BAITAGO

eraikin horretan LED argiak aldatzeko, 50.000 euro.

Garapen Komunitarioan igoera

Agintaldi honetan, Gizarte Zerbitzuak eta Gazteria Saila uztartu egin ditu Gobernuak, Garapen Komunitarioa sortzeko, "bi sailen arteko harremana eta elkarlana fintzeko eta hainbat zerbitzutan eta arlotan sinergiak sortzeko". Sail horrek 4.156.000 euroko aurrekontua izango du aurten, eta, iaz moduan, partidarik handiena etxeko laguntza zerbitzura eta pobreziaren kontrako larrialdi planetara bideratu du Gobernuak: 1.200.000 euro. Halaber, babesgabeko egoerei aurre egiteko zerbitzuaren aurrekontua 360.000 eurokoa izango da eta tutoretzapeko etxebizitzaren laguntza zerbitzurako partida, berriz, 60.000 eurokoa. Horrez gain, Lan Ere Bai proiektuarekin aurrera jarraitzeko 67.507,47 euro erabiliko ditu Gobernuak eta EKKO proiektuarekin jarraitzeko, 85.000 euro.

Ludoteka eta gaztetxokoetarako 440.230 euroko partida jasotzen du aurrekontuak: 386.230 euro zerbitzurako eta gainontzekoa, funtzionamendu zein garbiketa gastuak ordaintzeko. Txikitxoko zerbitzurako, berriz, 44.575,56 euro bideratuko ditu Udal Gobernuak.

Obra eta zerbitzuetara gehien

Aurrekonturik handiena Obra eta Zerbitzuen Sailak izango du: 13.979.000 euro; iaz baino %12,62 gehiago. Parke eta lorategien mantentzerako, esaterako, 1.037.500 euro jasotzen ditu aurrekontuak; iaz baino 300.000 euro gehiago. Halaber, jolas-parkeak berritzeko 250.000 euro daude aurreikusita; horietatik 100.000 euro Santa Barbaran elementu naturalez osatutako parke

2023ko udal aurrekontua

39.656.745 euroko aurrekontua izango du Arrasateko Udalak 2023rako. Garapen komunitarioa iaz baino %6,6 gehiago bideratuko du Gobernuak eta Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Sailera, berriz, iaz baino %26 gutxiago.

Diru partida garrantzitsuenak

- **1.210.000 euro** Santa Teresako igogailuak bukatzeko.
- **1.200.000 euro** Etxeko laguntza zerbitzua eta pobreziaren kontrako larrialdi plana.
- **1.037.000 euro** Parke eta lorategien mantentzerako.
- **1.000.000 euro** Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleen birgaitze proiektua.
- **750.000 euro** Etxe Txikietako urbanizazioa eta bidegorria.
- **738.150 euro** Jaiak eta kultur ekintzak.
- **520.000 euro** Musakolako atletismoko pista berritzeko.
- **500.000 euro** TAO sistemarekin jarraitzeko.
- **490.000 euro** Garraio publikoa sustatzen jarraitzeko.
- **440.230 euro** Ludotekak eta gaztetxokoak.
- **360.000 euro** Babesgabeko egoerei aurre egiteko zerbitzua.
- **304.000 euro** Santa Teresako enplegu plan espezifikoak.
- **250.000 euro** Aurrekontu parte-hartzaileak.
- **250.000 euro** Jolas-parkeak berritzeko.
- **203.531,12 euro** Goiena Komunikazio Taldeari laguntza.
- **200.000 euro** Iturripe berriaren exekuzioarekin hasteko.
- **170.000 euro** Argiteria publikoan inbertsioak egiteko.
- **131.028 euro** Basolan proiektua, lan merkaturatzea zail dutenei laguntzeko sortutakoa.
- **120.000 euro** Berdintasun saileko ekintza plana.
- **102.500 euro** Debagoieneko Mankomunitateko enplegu sailera.
- **100.000 euro** Ikastetxeetan inbertsioak egiteko.
- **88.374 euro** Euskara arloko dirulaguntza.
- **87.500 euro** Langabeak kontratatuzko laguntza.
- **85.000 euro** EKKO proiektuarekin jarraitzeko.
- **70.000 euro** Indarkeria matxistaren kontrako bigarren planari jarraipena emateko.
- **67.507,47 euro** Lan R Bai programarekin jarraitzeko.
- **50.000 euro** Zigarrolan estalpea jartzeko.
- **50.000 euro** Uarkapen LED argiteria ezartzeko.
- **50.000 euro** Digitalizaziorako.
- **44.575,56 euro** Txikitxokoak.
- **44.345 euro** Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak.
- **42.000 euro** Mondragon City Challenge.
- **40.000 euro** Gorostizako igogailu sistemaren proiektua egiteko.
- **40.000 euro** Uarkapen plaka fotovoltaiakoak jartzeko.
- **35.000 euro** Ekiola proiektuarekin jarraitzeko.
- **34.000 euro** Udal Euskaltegia.
- **34.000 euro** Juan Arzamendi Musika Etxeko funtzionamendua eta hornitzea. Azken ukituak.



Dagoeneko martxan daude Musakola eta Santa Teresa lotuko dituen igogailu sistema egiteko lanak. E.A.B.

bat egiteko izango dira. Horrez gain, Obenerrekako parkea ere berrituko dute, eta Aprendices kalekoa estali. Musakolan estalpe bat egiteko 50.000 euro daude.

Berdintasun Saileko partidak

Berdintasun Sailari dagokionez, indarkeria matxistaren kontrako bigarren planari jarraipena emateko 70.000 euro egongo dira aurrekontuan eta ekintzetarako partida 120.000 eurotan mantentzen da, orain bi urte 20.000 euroko igoera izan ostean. Emakume Txokoa lekuz aldatzeko

azterketa egiteko, bestalde, 20.000 euro jasotzen ditu aurrekontuak.

Goienari, 203.531 euro

Euskal hedabideei emandako dirulaguntzei erreparatuta, Goienari 173.531,12 euroko partida bat bideratu dio Gobernuak –prentsa eta telebistarako–, eta Arrasate Irratiari, aldiz, 30.000 euro: 203.531,12 euro, guztira. *Mondraberri* agerkari digitalari 30.000 euroko laguntza bideratuko dio eta Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearentzat 44.345 euroko partida bat gorde du.

Euskara arloko dirulaguntzen partida 88.374 eurokoa izango da.

Jaiak eta kultur ekintzak

Gobernuak 738.150 euro jarriko ditu jaiak eta kultur ekintzak egiteko. Horietatik 250.000 euro izango dira herriko jaietarako eta 100.000, auzoko jaietarako. Bestalde, 350.000 euro erabiliko dituzte askotariko kultur ekintzak egiteko. Azkenik, *Mondra & Roll* eta Arrasate Blues jaialdiek partida propioak izango dituzte: 18.150 eta 20.000 euro, hurrenez hurren.

EH Bilduk, 39 emendakin

EH Bilduk 39 emendakin aurkeztu zizkion Gobernuaren aurrekontu proposamenari, bost ataletan banatuta: trantsizio energetikoa, justizia soziala eta berdintasuna, ekonomia, herri zaintza-herri hobea, eta kultura eta euskara. "EH Bildurentzat estrategikoak diren bi zutabeetan, hau da, trantsizio energetikoan eta justizia soziala, eta berdintasunean kokatzen dira gehienak". Hala ere, udalbatzak ez zituen onartu.

Ekonomian arloan, tokiko merkataritzari zein turismo jasangarriari lotutakoak izan ziren, baita ekimen ekonomiko, sozial eta kulturalentzako beste hainbat ere. Herriaren zaintzari dagokionez, ondare historikoa

babestu eta indartzeaz gain, herria ikuspegi hezitzaile eta integraletik lantzeko Arrasatek Hezi proiektua berreskuratzeko eskatu zuen, baita hileta zibilentzat espazio estalia aldarrikatu ere.

Trantsizio energetikoaren arloan, bulego informatibo bat jartzea proposatu zuen, baita Mojategin LED argiteria jartzea ere, Next Generation dirulaguntzak baliatuz.

Euskarari erreparatuz, besteak beste, helduentzako euskara ikasketak doakoak izateko eskatu zuten. Era berean, euskararen ezagutza eta erabileran urratsak aurrera eramateko ekimenak sustatzea eta horretarako baliabideak

gehitu eta erraztasunak eskaintzea.

Kulturolarako dinamizazio zerbitzua eta Juan Arzamendi Musika Etxerako sormen beka bat ere eskatu zuen EH Bilduk.

Ongizatea, justizia soziala eta berdintasuna funtsezkotzat jotzen du EH Bilduk. Hala, hainbat proposamen egin zituen: etxe hutsen azterketa egitea, Arrasateko egoera ezagutzeko, "azken azterketa 2012koa baita"; Emakume Txokoaren lekualdatzea; *Andredetan* programa berraktibatzea, aurrekontuetan genero azterketa txertatzea; gazteendako aterpe bat; lanketa hezitzaileak indartzeko partidak eta diru-sarrerara baxuak dituztenek psikologia zerbitzuak ordaintzeko dirulaguntza partida.

Nola baloratzen duzu Arrasateko 2023ko udal aurrekontua?



MARIA UBARETXENA
ALKATEA (EAJ-PNV)

"Agintaldia osatzen duten proiektuak amaitu eta borobiltzeaz gain, datorren agintaldian presentzia izango duten proiektu estrategiko berriek ere presentzia dute aurrekontuan. Era berean, pertsonak kokatzen dira herria eraldatzeko dinamikak sustatuko dituzten politika publikoen diseinuaren erdigunean, non komunitatearen, bizikidetzaren eta garapen iraunkorraren kontzeptuak eraldaketa horren bultzatzaile diren. Aurrekontu honekin Arrasate aurreratua egiten jarraitu nahi du".



MAIDER MORRAS
EH BILDUREN BOZERAMAILEA

"Gure proposamen guztiak baztertu dituzte. Pena izan da ez onartzea nerabeentzako psikologia zerbitzuentzako diru partida, ezta norbanakoari elektrizitate eta gas fakturretan gutxiago ordaintzeko laguntza emango dion bulego bat eta Iturbide egoitzaren parean lorategi duin bat egitea ere. Halaber, pena da Emakume Txokoaren lekualdaketa oposizioaren erruz egin ez dela entzutea, Gobernuak zortzi urte daramatza-eta hau kudeatu ezinik, edota zuntza prest dagoela entzutea, Erdiko kalea oraindik obretan dagoela".



ARITZ MURUA
PSE-EE-REN BOZERAMAILEA

"Aurrekontu hedakorra da, krisiaren aurkakoa, eta konpentsatzen saiatzen dena pandemiaren edota inflazioaren ondorioz herritarrek pairatzen ari diren egoera zaila. Horregatik, herritar zaugarriekiko dirulaguntzak hobetu ditugu eta herritarrekiko zerbitzu zuzenak indartu; zebra-bide inteligenteen bidez oinezkoen segurtasuna bermatuz, adibidez. Gainera, herriguneko higigarrien eta lorategien garbitasuna areagotzeko ere balioko du, baita argiteria jasangarriagoa egiteko ere".



EVA ABUIN PODEMOS
ARRASATEREN BOZERAMAILEA

"EAJren PSE-EEren Gobernuaren aurrekontua eta gure proiektu politikoa ez dira bateragarriak. Batetik, aurrekontu honek ez duelako balio gure herriak etorkizunean izango dituen erronkei aurre egiteko. Bestetik, ez dituelako herritarrek dauzkaten beharrak asetzen. Gainera, ikusten da Gobernuak ez duela hauteskundeetan emandako hitza bete agintaldi honetan, ez dutelako garatu aurkeztu zuten proiektu izarra: kiroldegi berria. Beraz, gure ustez, EAJk eta PSE-EEK ez daukate sinesgarritasunik".

Ezkutuko hainbat bizipen bistaratzen dituen idatzia

'Ikusezinak. Erbesteratuen haurrak' liburua aurkeztuko du datorren martitzenean, urtarrilak 17, Miren Azkarate kazetariak Kultureteko areto nagusian, 19:30ean; erbesteratu edo iheslarien zazpi seme-alabaren testigantzak jaso ditu, harena barne

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko Sarek antolatuta, *Ikusezinak. Erbesteratuen haurrak* liburua aurkeztuko du Miren Azkaratek (Donostia, 1984). Erbesteratu edo iheslarien zazpi seme-alabaren testigantzak jaso ditu liburuan, baita harena ere, 33 urtez Kuban erbesteratuta egon den Agustin Azkarateren alaba baita. "Jaio nintzen egun beretik naiz iheslari politiko baten alaba eta nire bizitza osoan zehar halaxe izan naiz, 2021ean aita itzuli zen arte. Honek bizipen batzuk izatera eraman nau eta bizipen horiek arantza bat sortzera eraman naute. Azkenean, arrazoi pertsonal batetik abiatu nintzen, baina arrazoi politikoa ere gurutzatu zen; hau da, euskal gatazka deitzen dugun honetan guri buruz ez da inoiz hitz egin izan eta hutsune bat betetzera datorrela iruditzen zait", azaldu du liburua idazleak.

Gatazka guztietan lehen lerroan gizonetakoak egon ohi direla dio eta atzeguardian, berriz, emakumeak eta haurrak. "Lehen lerro horretaz asko hitz egiten da, baina atzeguardiaz ezer ez. Gure kasua ere halaxe izan da, eta, nire kasuan, aita bost aldiz ikusi dut nire bizitza osoan. Harekin gehienez hilabetez egon naizen pertsona bat da. Amak, berriz, guztia egin du. Ni hezi, maitatu eta ekonomikoki aurrera atera, aitarekiko eta herriarekiko maitasuna erakutsi...".

"Guk badugu gure egia"

Dio euskal gatazkan biktimak eta mina soilik alde bakarrean dagoela dirudiela, eta ez dela haien aldean. "Guk badugu gure egia, eta, gure txikitasunean bada ere, kontaktu egin behar dugu, idatzita utzi behar dugu. Guk ez badugu kontatzen, ez du inork egingo edo gezurra esango du. Guk bizi izandakoa gertatu da, eta orain idatzita gertatu da".



Miren Azkarate, idatzi berri duen liburua eskuan duela. 'OARSOALDEKO HITZA'

"GATAZKETAKO LEHEN LERROAZ ASKO HITZ EGITEN DA. EZ, ORDEA, ATZEGUARDIAZ; HORI DA GURE KASUA"

Tabua, gezurrak, abandonua...

Esan moduan, zazpi testigantza batu ditu Azkaratek liburuan, eta badituzte gauzak amankomunean. "Lehenengoa, nire nebak dioen bezala, zera da: hitz egiten ikasi genuenerako, bage-nekien isilik egoten. Izan ere, txikitatik entzun izan ditugu esaldi hauek: 'Orain isildu, muga pasa behar dugu eta ezin dute entzun euskaldunak garelako eta zuek ez dakizue beste hizkuntzarik'; 'gaur ez gara hemen egon'; 'zuen aurrean dagoen hori gaur ez dago hemen'".

Halaber, azpimarratu du etxean gauza bat bizitzen zutela eta kanpoan beste bat. "Etxean gertatzen edo hitz egiten ziren gauzak etxean gertatzen ziren eta kalean gezurra esan behar genuen". Horrekin batera, gaiak hitz egiteko zailtasuna ere aipatu du: "Anai-arrebon edo ahiz-

pen artean gaiak ez dugu orain arte hitz egin. Tabua izan den gai bat da, orokorrean, guretzat eta gizartearen, eta hitz egiteko ezintasun hori gure artean ere gertatu da", gaineratu du.

Elkarriketatu guztien artean oso hedatuta dagoen sentimendua barne mina dela aitortu du, eta zera gaineratu: "Liburuko izenburuak dioen bezala, ikusezinak gara. Ez dugu izan ez erakundeen laguntzarik, ez herri mugimenduenik, ezta ekonomikorik edota bestelako laguntzarik ere. Abandonu sentimendua ere badugu".

"Nire zatia izan da zailena"

Hasieran bestelako asmoak bazituen ere, azkenean, haren testigantza ere jaso du: "Zatirik zailena izan da. Ohituta nago kazetari bezala galderak egin eta horrekin idaztera, baina neure buruari ariketa hori egitera ez. Bestetik, idazterakoan ez naiz ohartu hainbeste biluzten ginenik; agian, damutu egingo gara noizbait. Baina erabaki kontzientea izan da. Hutsune bat bete dut liburuarekin. Jada ez gara hain ikusezin eta horrekin ase sentitzen naiz".



NIRE USTEZ

OIANA SANCHEZ

2023ari osasuna, baina publikoa

Nafarroa etorbidean kokatuta dagoen Debagoieneko *bainuetxetik* irten berri naiz. Infekzio batek gaixotu eta ospitalean ingresatzera behartu nau. Horrela, lehen lerrotik ikusi ahal izan dut oraindik osasun publikoaz gozatu ahal izatea zer-nolako zortea den.

Askotan esan didate seguru pribatua izatea ezinbestekoa dudala. Egia esan, ez dut pribaturik nahi. Pribatua publikotik hornitzeari uztea baizik. Geroz eta inbertsio publiko gutxiago eta baliabide eskasagoak pairatzen ditu osasun sistemak. Interesak medio, interesa galtzen ari da, alegia.

Hala ere, Maitenak, Julenek, Anek edo Deianek, batzuk soilik aipatzearren, euren lanetan bizitza eta maitasuna jartzen dute. Langile sutsu eta anonimo horiek dira sistemaren kalitatea mantentzen ari direnak. Baina ez da nahikoa, hornitu ere egin behar da.

Beraz, 2023ari osasun publikoa eskatzen diot. Baita dirua ere. Dirua beharrezkoa da, amodioarekin zerbitzua mantendu ahal izatea erromantikoezia litzatekeelako.



E.A.B.

Batzordeko kideak, eskertuta

Arrasateko Errege Kabilgatako Batzordea oso pozik azaldu da desfileak izandako arrakastagatik, eta eskerrak eman dizkie hainbat eragilerik. "Arrasateko Udalarik, Udaltzaingoari, Obretako Brigadari, Gurutze Gorriari, Eroskiri, Laboral Kutxari, La Caixari eta desfilean parte hartu duten herritar guztiei", azaldu dute.

OHARRAK

'Euskara batuaren bizibidea' hitzaldia

ISEAk antolatuta, *Euskara batuaren bizibidea* izeneko hitzaldia egingo du Pello Salaburuk eguaztenean, urtarrilak 18, Kultureteko areto nagusian, 18:00etan hasita.

Ipuin kontaketa Vanessa Gonzalezen eskutik

Urtarrilaren 19an izango da, Kultureteko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan, 4 urtetik gorakoentzako. Aurrez izena eman beharko da, Udal Bibliotekan bertan.

Gabonetako saria, Maitane Torrealdairentzat

Harreman Dendaren Gabonetako saria Maitane Torrealdairentzat arrasatearrak jaso du (Ikus *Goiena.eus*).

Hamar urte zuhaitz azoka eta landaketa sustatzen

Urtarrilaren 21ean egingo dute aurtengo Zuhaitz Eguna; orain arteko hamargarrena. Seber Altube plazan, besteak beste, Ekoudalatx mintegikoek jarriko dute haztegien postua. Ohiturari eutsiz, landaketa herrikoia egingo dute; Etexzarretan oraingoan ere

Hasier Larrea ARRASATE

Zuhaitz Egunaren bueltakoek harrera ona izan dute hamar urteotan, mantendu egiten baitira bai azoka eta baita landaketa ere. Arrasateko Udalarantzat izaera sinbolikoa baino gehiago dauka egitasmo horrek. "Halako egunak antolatuta, ingurumenaren alde egin eta etorkizuna erabaki dezakeen konzientziazioa sustatzen da. Familia-jarduera ezin hobea baita txikienei gure ingurune naturalaren eta tokiko espezieen garrantzia irakasteko. Zuhaitz azalerak handitzea eta natura babestea eta kontserbatzea da orain gure eginbeharra, baina etorkizunean haien esku egongo da", azpimarratu du Pello Garai Udaleko ingurumen-teknikariak.

Baserritar azokarekin batera

Ohi bezala, mintegiekin Seber Altube plazan jarriko dituzte postuak, 08:00etatik 14:00etara. Aurten, bost haztegi parte hartuko dute: Zaldibarko Areitio eta Belarrek, Gatikako Etxeberrriak, Zarauzko Lurberriak eta Arrasateko Ekoudalatxek. Bertaratzen direnek fruta-arbolak, koniferoak, basoko landare

autoktonoak eta lorategikoak, basoko fruitu txikiak eta fruitu ekologikoak erosi ahal izango dituzte; gainera, bi zuhaitz-sorta zozketatuko dituzte eroslearen artean. Bestalde, hileko hirugarren zapatua denez gero, baserriko produktuen azoka ere egongo da Seber Altuben.

Landaketa, klasiko bihurtuta

Zuhaitz landaketa izan ohi da Zuhaitz Egunekeo ekitaldi nagusia. Hirugarren aldiz jarraian, Etexzarreta parkera joango dira 400 haritz inguru landatzera, harizti kantaurreak hartzen duen azalera handitzeko. Partaideak Musakolako San Isidro elizatik abiatuko dira, 10:00etan. Aurrez 943 25 20 05 telefono zenbakira deitzea komeni da izena emateko.

Lehenengo zazpi aldietan ehunka lizar, gaztainondo, haritz eta intxaurrondo landatu zituzten Garagartza, Kurtzetxiki, San Balerio, Hidalgobaso eta Antoniñako udal lurretan. Etexzarretako 83 hektareako lursaila 2019an erosi zuen Udalak; horietatik 63 hektareatan pinudiak zeuden, eta gainerakoetan zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak. Par-

kea Izarraitz, Aizkorri-Aratz eta Urkiolako korridore ekologikoan dago, eta garrantzi handikoa da biodibertsitatearen ikuspegitik. Horren jakitun, Udalak parkeko ingurune naturala eta biodibertsitatea berreskuratzeko azterlan bat enkargatu du.

Lorezainek, beste 707 zuhaitz

Herrigunea berdetzeko asmoa ere badu Udalak, urtarril bukaera eta otsail hasiera artean ehunka zuhaitz landatuko baitituzte udal lorezainek. Haltzak, lizarrak, sahatsak, haritzak, arteak eta astigarrek jarriko dituzte; gehienak Markulete ibai-eremuan.

'Familian jolasean' ekimena, neguko domekak goxatzeko

Hilaren 15etik martxoaren 26ra, domeka arratsaldeetan izango dira saioak; gehienak, Okendoko ludotekan

H.L. ARRASATE

Familian jolasean ekimenaren beste edizio bat jarriko du martxan etzi, hilak 15, Udaleko Gazteria Sailak, Txatxilipurdirekin, Arrasateko udal ludotekekin eta Gipuzkoako Haur Txokoekin elkarlanean. 0-8 urte arteko haurrak dituzten familiek elkar ezagutzeko eta elkarrekin jolasteko aukera ematen du egitasmoak, aniztasuna kontuan hartuta eta euskararen transmisioaren garrantzia azpimarratuta. "Asmoa da neguko domeketan espazioa, denbora eta hitzordua eskaintzea familiei, elkarrekin parteka dezaten jolasa eta kalitatezko aisialdi hezitzailea", azaldu dute Udaletik.

Domekero, eten barik

Bi hezitzailek dinamizatuta, hamaika saio egingo dituzte, guztira; horietako bederatzia,



Aurreko aldi batean. E. AZURMENDI

Okendoko ludotekan. Beste biak Santa Marinakoan eta Usaetxe-koan izango dira: bata otsailaren 26an eta bestea martxoaren 26an. Informazio gehiago jasotzeko edo ekimenean izena emateko, ludoteketara bertaratu daitezke gurasoak.



Iazko Zuhaitz Egunean, Seber Altuben egindako azoka. GOIENA



DEBAGOIENEO

PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLOKULARITZA
ARETXABALETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA
AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

ARKITEKTOAK

URIBESALGO
ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Irargarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Igor Altuna, erretratua egin zuen Canon kamerarekin. Objektiboa: Canon 600 milimetro (F/4) IS III USM. x.u.

"Momentuaren zain egoten gara argazkilariok; hor dago gakoa"

IGOR ALTUNA ARGAZKILARIA

2021ean Zambian egindako erretratu bat Londresko Historia Museoak antolatzen duen lehiaketan onenen artean dago; otsailaren 2ra arte eman daiteke botoa

Zabier Urzelai Atxa ARRASATE

Azken besarkada ez da Igor Altuna (Arrasate, 1966) estetiko-ki atera duen argazkirik onena. Baina 2021eko udazkenean Zambian South Luangwa parke naturalean "momentua" harraipatu zuen. Eta momentu horren atzetik zebiltzan hainbat egunez *Olinba* lehoinabarra goiz eta arrats jarraitzen zebiltzan National Geographiceko eta BBCko kameralari bana. Baina egon behar zuten momentuan ez zeuden. Eta Altuna bai. Arrasate-

koari egokitu zitzaion naturaren krudeltasunaren testigu izatea. Bada, argazki hori 40.000 erretraturen artean aukeratu dute, beste 24rekin batera, *Wildlife Photographer of the Year* lehiaketako finalista.

Zer du zure argazkiak mundu mailako lehiaketa horretan 25 onenen artean egoteko?

Momentua harraipatu nuela. Zenbat argazki izango ditudan lehoienak, lehoinabarrenak, normalean paisaiei eta animaliei ateratzen dizkiet argazkiak...

Hala, *Olinba* aspaldiko ezaguna da, argazki asko atera dizkiot, baina egun hartan nire gidaria ohartu zen ahoan zerbait zera-mala, ehizatu egin zuela. Eta ehizatu zuen beduinoaren tripari helduta zerbait zegoela. Zer eta umea zegoen amari besarkatuta, erabat beldurtuta. Haren aurpegia oso esanguratsua da; badaki zerbait gertatu dela, baina ez daki zer. Halako lekuetan naturaren edertasunaren testigu izaten gara, baina baita krudeltasunarena ere.

Argazkiak ez du inor epel uzten.

Eta hori ere polita da. Denetarik entzun dut, baita bihozgabe hutsa naizela ere. Ea zergatik ez genion beduino txikiari lagundu. Gu ez gaude horretarako; naturaren eta animalien argazkiak egitera joaten gara, eta naturak bere legeak ditu.

Argazkiaren planoak zabalduko bagenu, argazkilari kuadrilla ikusiko genuke inguruan? Izan ere, asko zabaldu dira safari bateko irudi batzuk, non ibilgailu mordoa ikusten diren animalien atzetik.

Nik ere ikusi ditut irudiok, eta bai, leku batzuk oso masifikatuta daude. Halako lekuak saihesten saiatzen naiz; kasu hartan, nire gidaria eta biok bakarrik geunden. Ondoren etorri ziren BBCko eta National Geographiceko argazkilari bana. Haiek egunero jarraitzen dute *Olinba*, hamar orduz egoten dira haren atzetik, eta sekulako irudiak dituzte, baina ez zuten momentu hura harraipatu.

Zein da argazkiaren atzean dagoen istorioa?

Ikusi genuen *Olinba*-k ehizatu egin zuela, eta momentu hartan argazki mordoa atera nizkion. Baina bagenekien *Olinba*-ren kumea non egoten den, eta jarraitu egin genion, imajinatzen genuelako ehizatutako pieza harendako izango zela. Bada, *Olinba*-k kumeari utzi zion beduino txikia, ehizatzen ikas-

zezan. Bi orduz ibili zen harekin jolastean, eta gero, imajina deza-kezue zer gertatu zen...

Zelakoak izaten dira argazkiak ateratzeko egiten dituzun bidaia?

Jende askorendako, seguruenik, aspergarriak; kar, kar, kar. Zambian, esaterako, hilabetez egoten naiz akanpaleku berean, eta goizeko lehen orduan eta iluntzeetan joaten gara argazkiak ateratzera; beste ordu guztietan animaliak etzanda egoten dira, bero egiten du eta ez dago askorik egiterik. Hori izaten da gure errutina. Argazkiak ateratzen hasi aurretik animaliak eurak ezagutu, euren ohituren berri izan, non egoten diren... Bestelako lan batzuk egin behar izaten ditugu. Mundu guztiarendako ez da plan erakargarriena.


Hurrengo bidaia gertu?

Bai; Yellostonera (AEB) noa segituan, argazkilari lagun batekin. Negu gogorrera goaz, bufaloei erretratuak egitera.

Egunero zenbat argazki egiten dituzu?

Egun on batean, 12.000 inguru. Baina jarraian ateratzen ditugu asko.

"ERREAKZIOA SORTZEN DU IRUDIAK, BIHOTZGABEA NAIZELA ERE ESAN DIDATE, PENTSA..."



Azken besarkada izeneko argazkia. IGOR ALTUNA

Botoa, otsailaren 2ra bitartean

Wildlife Photographer of the Year argazki lehiaketako irabazlea herritarrek aukeratu dute. 25 onenak www.nhm.ac.uk/wpy/peoples-choice helbidean ikus daitezke, baita botoa eman ere, otsailaren 2ra bitartean. Otsailaren 9an emango dute emaitza. Bada, arrasatearrarendako saio horretako beste argazki goiko irudia bezin ona da hobe da. Gaurko *Puntua*-n duzue ikusgai.

Udazkeneko argazkiak, asmo solidarioz jantziak

Arrasateko Artgazki elkarteak hirugarren aldiz abiatu du hezurretako arazoak dituzten haurrei laguntzen dien AERYOH taldearekin elkarlana, Kulturaten joan den udazkeneko argazki lehiaketako 29 irudiren koadroak ikusgai eta salgai jarrita

Hasier Larrea ARRASATE

Atzo, eguna, ireki zuten aurtengo lehen erakusketa Kulturaten. Arrasateko argazkilariz osatutako Artgazki elkartearen iniziatibaz, hilaren 21era arte egongo da ikusgai, astelehenetik zapatuta bitartean arratsaldero, eta helburu artistikoak baino gehiago dituen ekimena da. Izan ere, AERYOH (Herentzian jasotako Errakitisismoen eta Osteomalaziaren Espainiako Elkarte) elkartearen eskutik antolatuta dute argazki galeria.

Hirugarren aldiz

Bi taldeetako kide da Alberto Caballero. Lankide baten bitartez izan zuen ezohiko gaixotasun horien ikerketa bultzatzen duen elkarte horren berri, eta bertako kide egiteko pausoa ematea erabaki zuen. "Behin AERYOHn izena emanda, bazkideek proposatu zidaten ea Artgaskiren bitartez kolaboratu nahi nuen eurekin", aipatu du. Beraz, hura

arduratu da, besteak beste, proiektuaren zubi-lanak egiteaz: "Hirugarren aldiz burutu dugu elkarlana, eta oso eskertzekoa da Artgaskiren laguntza. Erakusketa bitartez, hezurretako arazoak dituzten haurrei laguntzea da helburua, bi elkar-teei ikusgarritasuna ematearekin batera".

AERYOH elkarteak errakitis-moa eta osteomalazia pairatzen duten haurren eskubideak defendatzen ditu, eta 2016an jarri zen martxan. Herritarrek Kulturateko klaustroko erakusketan ikusten duten koadroren bat gustuko badute, etxera eraman dezakete, koadroa erosita eta, bide batez, elkarte horri dirulaguntza emanda.

Naturako argazkiak

Artgaskik urtean zehar lehiaketa bat baino gehiago jartzen ditu martxan; tartean, udazkenarekin lotutako gaien ingurukoa. Zortzi aldi bete ditu jada

sariketa horrek, eta iazkoak izan zuen berrikuntzaren bat edo beste. "Lehen aldiz ireki genuen Euskal Herriatik kanpora, eta oso harrera ona jaso du; guztira, 211 argazki jaso ditugu, eta horietatik 194 izan dira onartuak", azpimarratu du Iñaki Rubio argazkilaria. AERYOH elkartearen aldeko erakusketan



Rubio eta Caballero, paneletako koadroei begira. X. URZELAI

jartzeko 29 argazki aukeratu dituzte, tamaina handiagoko koadroetan kokatuta.

Rubioren esanetan, paisaiak eta errekek dira, gehienbat, iru-

dietan errepikatzen diren motiboak: "Jendea saiatzen da argazki originalak ateratzen, baina nahiko zaila izaten da hori lortzea".

Txorien hezegune bihurtuko da Amaia antzokiko oholtza bihar

'Batetik bestera' izeneko haur antzerkia dakar Benetan Be konpainiak, migrazioaren gaia lantzeko asmoarekin

H.L. ARRASATE

Kontu serioak modu umoretsuan jorratzen espezializatu da Benetan Be antzerki taldea. Arrasaten 2021ean utzi zuten arrastoa, *Porno vs Afrodita* obrarekin. Helduentzako zen hura eta 3 urtetik gorako haurrentzako da zapatukoa. Eta familiako kide guztientzako, noski. 17:00etatik aurrera, giza migrazioaren fenomenoari helduko diete Patricia Urrutia, Juanjo Otero eta Jon Zumelaga aktoreek, hegazi-espezie ugari interpretatuta. "Txorien bidez pertsona migra-

tzaileak ordezkatzeko ditugu. Afrikatik Europa iparralderako bidean Euskal Herrian hartzen dute askok ostatu, eta, txorien kasuan, hezegunea izango litza-teke hori; atsedenelekuak dira, espezieen artean harremanetan jartzeko babeslekuak", azaldu du Urrutia.

Ingurune hori grabatutako irudiekin, benetako soinuekin eta kantu originalekin eraman-gu dute taula gainera: "Ikuskizun arina da, haurrak dibertitzeko eta helduak hausnarketara bideratzeko aproposa".


Rayma Sanchez

Kubakoa taberna-kafetegiko ugazaba

"Jatorri kubatarreko ogitarteko eta koktelak dastatuko ditu bisitariak ireki berri dugun Kubakoa tabernan"

Abendutik dago irekita Uribe auzoan, Uriburu kaleko 14.ean, Kubakoa establezimendua. Aurretik Goiene kafetegia zena Kubako zaporez betetako txoko bihurtu du Sanchezek.

Kubako Santiago hirian jaioa, Katalunian lan egin ostean Oñatiko Lapikogorri jatetxean aritu zen ostalari Rayma Sanchez. Orain, Arrasateko lokal hori jarri du martxan, haren estiloa moldatuta. Ze eskaintza berezi duzue jantziari dagokionez? Ogitartekoen artean, badugu *Cubanito* izeneko bat; 26 zentimetroko luzerakoa da, tenperatura baxuan erretako txerri, Kuban tipikoa den *majo* saltsaz.



Rayma Sanchez, Kubakoan.

"Kubakoa izena jarri diot, nire jatorria azaltzeaz gain, beso zabalik hartu nautelako hemen"

urdalazpiko gozoz, cheddar gaz-taz, pepino txikiz, ziapaz eta ez-tiz osatua. Plantxatik pasa eta bero jaten da. *Kubakoa* patata-errazioak ere merezi du: cheddar gazta eta txerri errea dauka horrek ere, baina papurtuta. **Edari berezirik bai?** Koktel goxoak zerbitzatzen ditugu: mojitoak, margaritak, daikiriak, caipirinha... **Hemengo platerak ere badituzue, ezta?** Noski! Txorizo egosia, txipiroiak, patata minak, urdai frijitua, kroketa... Denetik daukagu. **Ze ordutegitan dago zabalik?** Goizetan 10:30etik 15:00etara eta arratsaldeetan 17:30etik 22:00etara. Bazkariak ematen ditugu bertan jateko, eta norbere etxera eramateko afariak ere egin ditzakegu.



Pintxoak, bokatak, errazioak eta koktelak

Sukaldea zabalik, egunero, 19:00etatik 21:00etara
Zapatuetan eta domeketan, 13:00etatik 16:00etara ere bai.

Uriburu kalea 14, Arrasate

943533244



@kubakoa_kafetegia



Kaltetutako zelaia ipizte inguruan eta ehiztari talde bat basurde bat eramaten. A.E.G. ETA OILOGOR EHIZA TALDEA

Animaliek sortutako kalteak aztertuko dituzte

Astelehenean, urtarrilaren 16an, batzar irekia egingo dute kultura etxeko aretoan, 18:00etan. Iñaki Etxebeste biologoa, Aran ingurumen zerbitzu enpresako teknikari Floren Markina, Oilogor ehiza elkarteak eta udal ordezkariak izango dira bileran

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Animalia basatiek lursailetan sortutako kalteak aztertu eta horien inguruan hausnartzeko bilera irekia egingo dute astelehenean kultura etxean. 18:00etan izango da eta parte hartuko dute: biologo eta baso kudeaketan aditu Iñaki Etxebeste; biologo eta Aran ingurumen zerbitzu enpresako teknikari Floren Markinak; Oilogor ehiza elkarteak kideak; eta udal ordezkariak.

Ingurumen zinegotzi Santi Balantzategik dio ehiztarien eta lur-jabeen artean sortu den tentsioa baretzeko asmoekin antolatutako batzarra dela: "Kexa gehienak basurdeen kalteen ondorioz dira. Orkatza ere izaten da, baina gutxiago". Azken urteetan basurdeen populazioak gora egin duen galdetuta: "Orain dela urte batzuk, Aldundian izan ginen eta eman ziguten datua da urtean %5 gehitzen dela populazioa". Basurdeek zelaietan eragiten dituzte kalte handienak.

Tentsioaren muinean kalte-ordainak daude: legearen arabera, ehiza-barrutiaren esleipena duenak ordaindu behar ditu kalteak; hau da, Aldundiak, Udalak edo ehiza elkarteak.

Kalteak zelaietan

Unai Uribarren lur-jabea da eta dio ez diola helbururik ikusten batzarrari: "Zertarako da bilera? Ez du helbururik". Zelai guztiak "jota txikituta" daudela dio eta lehen sektoreak, baserritarrek, ez dutela laguntzarik jasotzen. Aramaioko lur-jabeek hainbat batzar egin dituzte: "Azkenekoan hamazazpi lagun elkartu ginen". Basurdeek eragindako kalteez zera dio: "Kalte handiagoak daude eta, gainera, denbora luzeagoan.

LEGEAREN ARABERA, EHIZA-BARRUTIAREN ESLEIPENA DUENAK ORDAINDU BEHAR DITU KALTEAK

Orain, edozein egunetan etortzen dira". Gaineratu du nahi dutena dela ehiztariekin akordioa lortzea kalteak gutxitzeko.

Basurdeek, dena alde

Juan Luis Nafarrate Oilogor ehiza elkarteak zuzendaritzan dago: "Uxaldiak egiten ditugu eguenetan, zapatuetan, domeketan... Saiatzen gara basurde kopurua jaisten, baina...". Dio eskatzen zaizkien kalte-ordainak ezin dituztela euren gain hartu: "Horrela jarraituz gero, ehiza-barrutia utzi egin beharko genuke". Gaineratu du egun 160 ehiztari dituela elkarteak eta basurdetan 40 bat ibiltzen direla, bi kuadrillatan banatuta. Irailaz geroztik 61 basurde harrapatu dituztela dio.

Basurdeen populazioak gora egin du, nagusiki, ingurumen egokiagoa dutelako. "Basoetan gordeleku gehiago dituzte, ehiztarien beherakada, landagunearikiko deskonexioa... Hainbat faktore daude", dio Etxebestek.

Lehen txotxa eginga, zabalik dago aurtengo sagardo garaia

Atzo, eguna, Paul Urkijo zinema zuzendariak izan zuen sagardo garaia hasteko ardura, Trebiñun

A.E.G. ARAMAIO

Arabako txotx garaia martxan da. Atzo eguerdian abiatu zuten, ofizialki, Askartzako Trebiñu Sagardotegian –Iturrietan ere egin zuten ekitalditzoa, lagun artean–. Eta, hain zuzen ere, Paul Urkijo zinema zuzendariak izan zuen lehenengo txotxa egingeko ardura Trebiñun.

Sagardo garaia nolakoa izango den ikusteko gogoz daude; izan ere, azkeneko hiru berezien ostean, murrizketarik gabekoa izango da aurtengoa. 2022ko sagar-biltzea zerbait aurreratu

behar izan zuten, lehortegatik. Aurtengo sasoiaren berriz, Arabako hiru sagardogile nagusiek –Aramaioko Iturrieta Sagardotegia, Askartzako Trebiñu Sagardotegia eta Kuartango Sagardotegia– 60.000 litro sagardo edo sagar-zuku ekoiztu dituzte, iaz baino gutxiago –95.000 izan ziren–. Edozelan ere, nabarmendu dute Arabako sagardotegietako mahaietan 100.000 litro sagardo eskaini ahal izango dituztela, Bizkaiko eta Gipuzkoako sagardogileei esker.



A.E.G.

Aramaiorrek azken agurrean

Azkena gure alde kontzertuarekin esan zien agur Hertzainak taldeak jarraitzaileei. Bada, ekitaldi berezian, Aramaioko bertsolariek ere parte hartu zuten. Paula Amilburu, Peru Abarrategi, Manex Agirre eta Xabi Igoa igo ziren taula gainera. Umoretik jo zuten eta behin baino gehiagotan izan zuten Aramaio euren ahotan bertsolari aramaiorrek.

'Norte salvaje' filma emango dute domekan, 19:00etan

Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatuta, *Norte salvaje* dokumentala emango dute domekan kultura etxean. 19:00etan hasiko da emanaldia eta 90 minutu iraungo du. Mexiko eta AEBak, eta Espainia eta Europa banatzen dituzten mugez dihardu filmak. Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian eman zuten. Ondoren, solasaldia izango da.



Filmeko irudia.

"Lehen gola sartu ostean etorriko dira besteak"

ANDER FERNANDEZ PACHECO BERGANTIÑOS FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

Aurrelari aramaioarrak Bigarren RFEF mailan dihardu iraila ezker, Coruñako taldean; hiru denboraldi jokatu zituen Gernikarekin, kategoria berean

Mireia Bikuña Madrid ARAMAIO

Iazko ekainean heldu zen Bergantiños futbol taldera. Gernika utzi, eta maila berean jokatzen dihardu, baina Galiziako multzoan. 2021-2022ko denboraldian hamabost gol sartu zituen. Aurrelari, oraindik, ez du ate aurrean asmatu.

Aurrelariendako golak sartzea ezin bestekoa da. Denboraldi honetan bakar bat ere lortu ez izanak egozina sortzen dizu?

Kezka apur bat bai. Pertsona oso positiboa naiz, eta ez dut motibazioa erraz galtzen. Bada, kit lehenengo gola sartu ostean gehiago etorriko direla. Baina aurrelari lan golak sartzea da eta ez dugunean egiten urduri jartzen gara.

Are gehiago, iaz hamabost sartu zenituela kontuan hartuta.

Hori da. Iazko denboraldia oso ona izan zen, pertsonalki eta taldeari begiratuta. Baina urte guztiak ez dira berdinak izaten, eta alferrik da atzera begira ibiltzea.

Gernikan egindako azken urtea ona izan bazen, zergatik erabaki zenuen taldez aldatzea?

Iaz egindako denboraldi onari esker, Gernikarenaz gain, beste hainbat talderen eskaintzak jaso nituen. Hirugarren denboraldia zen Gernikan. Gainera, Gasteluzen egiten ari nintzen Irakasle ikasketak amaitu nituen. Gradu-amaierako lana besterik ez zitzaidan geratzen, eta horrek askatasun handiagoa ematen zidan taldea eta hiria aldatzeko.

Zergatik aukeratu zenuen Galizia?

Formenterako, Talaverako eta Malagako eskaintzak izan nituen, besteak beste. Guztiak Bigarren RFEF mailakoak. Baina Galizia ezagutzeko gogoia nuen. Euskal Herriaren antz handia dauka. Bestetik, Bergantiños taldearen kirol proiektua asko gustatu zitzaidan. Hortaz, neskalagunarekin berba egin, eta biok joan ginen Galiziara. Carballon bizi



Ander Fernandez Pacheco, baloiarekin. A.F.P.

"JAITSIERA POSTUETAN GAUDE, BAINA BADAUKAGU HOBETZEKO MARJINA ORAINDIK"

gara, Coruñatik 25 bat kilometrorra.

Eta zein da Bergantiñosek eskaini zizun kirol proiektua?

Bigarren RFEF mailako lehenengo multzoan jokatzen dugu. Igoera lortzeko postuengatik lehiatzea zen denboraldi hasierako helburua. Alegia, sailkapenaren goiko lekuetan egotea, talde indartsuenekin. Eta erronka polita iruditu zitzaidan. Lehenengo RFEF mailara igotzeko aukera hori edukitzea izugarria litzateke.

Baina sailkapenak ez du hori erakusten.

Ez. Hamabosgarren gaude sailkapenean eta hemezortzi talde gara. Alegia, jaitsiera postuetan gaude, oraingoz. Kategoria hau oso gogorra da. Izan ere, multzo bakoitzeko lau talde jaisten dira eta azken bosgarrenak ez jaisteko promozioa jokatuko

du. Horrenbestez, gauzak ondo egiten ez direnean halakoak pasatzen dira.

Dena den, igoerako postuak bederatziz puntura dituzue eta hemezortzi jardunaldi geratzen dira; egoera aldatzeko astirik baduzue?

Bai. Hobetzeko marjina handia daukagu eta bolada ona harapatuko dugu, ez daukat zalan-tzarik. Egia da, era berean, taldea asko aldatu dela aurreko denboralditik hona. Hiru jokalaririk bakarrik geratu ziren eta bide berria egiten gabiltza.

Gernikak eta Bergantiñosek maila berean jokatzen dute, galiziarrek lehen multzoan eta bizkaitarrek bigarrenean; nabaritu duzu alderik bi multzoen artean?

Esango nuke Galiziako multzoa askoz indartsuagoa dela. Hemen edozein taldek gal dezake edonoren aurka. Liderrak azkenaren kontra ere bai. Multzo parekatuagoa dela uste dut.

Urtebeterako sinatu zenuen.

Etxetik kanpo egoteara, ez bakarrik futboleko jokatzen, erronka berria da niretzat. Bikotekidearekin bizi izaten, beste herri batean... Oso gustura gaude. Erabaki zuzena hartu genuela uste dut.



Nahia Garcia, besoak jasota, helmugan. ANGEL ELORZA

Espainiako Txapelketara "disfrutatzer" doa Garcia

Vic-en (Bartzelona) jokatuko da ziklo-kros txapelketa, bihar, zapatua, 15:00etan, 3.000 metroko ibilbidean

M.B.M. ARAMAIO

Euskadiko kadete mailako ziklo-kros txapeldunaren maillota jantzi zuen 2022ko azken egunean Nahia Garcia Bidaburuk, eta Arabako txapeldunarena urtarrik hasieran. Euskadiko maillotarekin lehiatuko da asteburuko Espainiako txapelketan, Vic-en (Bartzelona). Kadete mailako proba bihar, zapatua, jokatuko da, 15:00etan, emakumezkoen master mailakoekin batera. "Ez daukat helburu zehatzik. Garbi daukat oso gogorra izango dela. Espainiako Txapelketarako txirrindulari onenak sailkatzen dira eta lehia handia egoten da. Baina ahalik eta gehien disfrutatuko dut", esan dio GOIENARI, Katalunia aldera abiatu aurretik.

Espainiakoan parte hartzen duten maila guztietako ziklistek ibilbide berbera dute proba egiteko: 3.000 metrokoa, hain zuzen.

Denboraldi ederra

Espainiako Txapelketan egiten duena egiten duela, ziklo-kros denboraldiari ginga ipiniko dio aramaioarrak. Abadiñoko, Ametzagako eta Elorrioko probak irabazi ditu 15 urteko aramaioarrak. "Banekien denboraldi ona egiteko aukera handiak nituela. Indartsu ikusten nuen neure burua eta horrek aukera ematen zizkidan aurreko postuetan ibiltzeko; egia esan, pozik nago".

Euskadikoan nagusi

Denboraldian zehar indartsu egon den adibide da Tolosan

jokatuko Euskadiko Txapelketan egindako erakustaldia. Ez zuen aurkaririk izan. Lehenengo itzulietan, Irati Aranguren Carbaie-da eta Maier Olano Arozena aramaioarraren erritmoari eusteko gai izan ziren, baina Garciak erritmoa igotzea erabaki zuenean aurkariak atzean utzi zituen eta bakarrik heldu zen helmugara. "Ibilbide nahiko gogorra zen, aldapa batzuk zituela. Baina nire erritmoa mantentzeko gai izan nintzen, hasieratik bukarara".

Gero, errepidea

Ziklo-kros denboraldia bukatzen denean, errepidekoarekin hasiko da Garcia. Baditu erronka batzuk buruan, baina aitortu du "erosoago" sentitzen dela ziklo-krosean: "Askoz gogorragoa da errepideko txirrindularitza. Bizikletarekin egiten dira biak, baina oso ezberdinak dira. Nik nahiago dut ziklo-krosa". Espainiakoarekin bukatuko du ziklo-kros denboraldia eta orduan hasiko da errepidekora begira Urretxuko Zatikakib taldeko txirrindularia. "Egia esan, oraindik ez daukat helbururik finkatuta. Errepideak ekarriko ditu beste erronka batzuk", dio aramaioarrak.

ARAMAIOKO TXIRRINDULARIA KADETE MAILAKO EUSKADIKO ZIKLO-KROS TXAPELDUNA DA



Kiroldegiko berdeguneako proiektua, eskatuta

Lur Paisajistik enpresak diseinatu du parte-hartze prozesuan herritarren boto gehien jaso zituen proposamena eta ekainerako prest izango dute lana; parkearen eremua, ur-txorrotak eta kalisteniako aparatuak jarriko dituzte lehen fasean

Mirari Altube ARETXABALETA

Ibarra kiroldegiaurrealdean dagoen berdegunearen diseinua egiteko ardura Lur Paisajistik enpresari eman dio Udalak. Joan den ekainean egindako parte-hartze prozesuan herritarren boto gehien jaso zituen aukeran oinarritu beharko du horrek. 14.800 eurotan –gehi BEZa– esleitu da lana eta ekainaren hasierarako gertu izatea aurreikusita dute.

Zelaia eta ingurua

Berdegune horretan zer egin erabakitzeko hiru aukeraren artean hautatu zuten herritarrek eta proposamen bozkatuenean honako hau zehazten zen –emandako 1.397 botoen %50,5 jasota–: zuhaitz eta mahaiekin osatutako lasai egoteko gunea, ur-jolasendako eremua eta kirol ekipamendu txikiak: kalistenia, ping-pong mahaia eta mahai-jokoak.

Aukera horretan, Markole auzoaren ingurua oinezkoendako egokitzea da asmoa, eta, horretarako, Aretz tabernaren eta

zazpiko futbol zelaiaren arteko aparkalekuak kendu egingo dituzte. Gainera, kalea berrantolatzea dago aurreikusita; hala, Araba ibilbidetik Markole auzora doan bidea itxi egingo litzateke ibilgailuentzat. Oinezkoek lasai ibiltzeko espazioa irabaziko lukete horrela eta padelerako edo beste kirol modalitate batzuetarako ekipamendu estaliak jartzeko aukera izango litzateke Ibarra futbol zelaiaren alboan.

Bi fasetan banatuta

Herritarren gustukoena izan zen proposamen hori bi fasetan garatuko dute: lehenengoa zelaiaren bertan kokatuko da eta enpresaren lana izango da zuhaitzez eta mahaiz hornitutako parkea,

JARRIKO DITUZTE MAHAIK, UR-JOLASAK ETA KIROL EKIPAMENDU TXIKIAK

ur-txorrotak eta kalistenia praktikatzeko aparatuak nola jarri diseinatzea; hain zuzen ere, urbanizazio-proiektuak zehaztuko du espazioen banaketa baita obrak egiteko aurreikusitako epeak ere. Iñigo Segurola Arregi du buru Lur Paisajistik enpresak eta ia 30 urteko eskarmentua dauka halako lanetan.

Bigarren fasea, oster, epe luzerako asmoa da eta hor sartuko dira ingurua oinezkoentzat egokitzea eta estalitako kantxak eraikitzea.

Prozesua "herritarrekin batera"

Unai Elkoro alkateak nabarmendu du "herritarrei ahotza emanda" egin dela prozesua: "Helburua izan zen aretxabaletarrekin batera diseinatzea berdegune hau; beraz, bozketan hartutako erabakia errespetatu egin behar da". Hala, agintaldia amaitzerako proiektuaren lehen fasea idatzita utzi gura izan du: "Gero, hurrengo udalbatzari dagokio obra gauzatzeara".



NIRE USTEZ

OIER ZUMARRAGA ARANBURU

Autobuseko hausnarketak

Gabonetako tripa-festa eta ospakizunen ondoren, urtero lez, bueltan dira unibertsitateko azterketa egunak. Hain modan dagoen Hertzainak-en kantuak dioten bezala: *Barearen ostean dator ekaitza...*

Arrazoirik ez zaie falta. Larritasun, estutasun eta estres garaia izan ohi da ikasleentzat. Kaos egoera honetan, egunero autobusean unibertsitatetara noanean desmotibazio nabarmena sumatzen dut ikasleen artean. Paper zuri bat betetzeak aseko ez balitu bezala.

Egungo hezkuntza horrexetan oinarritzen da: aurreko egunean ahalik eta informazio gehien irensten, azterketa egunean hau dena botatzeko. Ikasleek, lan-merkatuko eskaeretara prestatzeko urrun, erabat frustratuta amaitzen dute. Hausnarketa sakon eta zehatza egin beharko genuke denok hezkuntza modeloaren inguruan.

Etorkizuneko erronkei aurre egiteko gazteria kritiko eta motibatua behar dugu. Izan ere, ez ahaztu: gazteok gara etorkizuna!

Aratusteak gertatzeko lehen pausoa: kartel lehiaketa, abian

Lanak aurkezteko epea zabalik izango da hilaren 29a bitartean eta irabazleak 300 euro jasoko ditu

M.A. ARETXABALETA

Aratusteen berri ematen duen pertsonaiak, Txapel Txinek, ekin dio atzerako kontaketari, eta Jai batzordea ere dagoeneko hasi da prestaketa lanetan. 2023ko Aratuste-domeka otsailaren 19an ospatuko da eta Udaleko Kultura Sailak kartel lehiaketa deitu du jaiaren berri emango duen irudia hautatzeko.

Beste urte batzuetan legez, edozeinek parte hartu ahal izango du eta lanen teknika libre izango da. Hori bai, derrigorrean, honako testu hau izan beharko

dute: *Aratusteak Aretxabaleta 2023*. Eta DIN-A3 formatu digitalizatuan aurkeztu beharko dira. Horretarako azken eguna urtarrilaren 29a da eta posta elektronikoz bidali ahal izango dira kultura@aretxabaleta.eus helbidera edo posta arruntez udaletxera.

Kultura batzordeko kideek eta herriko hainbat pertsonak osatuko dute epaimahaia eta erabakiaren berri otsailaren 3an emango dute. Lan irabazlearen egileak 300 euro jasoko ditu.

Bat-bateko dantza ikastaroari ekin dio Jaikik, apirilera arte

Urte berriarekin, bat-bateko konposizioa dantza ikastaroan murgildu dira Jaiki elkarteko kideak, Zuriñe Benavente gidari hartuta. Martitzenetan elkartzen dira, kuarteleko aretoan (18:30-20:30). Interesa dutenak elkarteko kideekin jar daitezela harremanetan: Instagram bidez [@jaikielkartea](https://www.instagram.com/jaikielkartea) edo telefonoz deituta: 688 81 96 65.

Mobiliario ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Kirolari euskaraz haizea emateko lanetan

Kazetari ikasketak egiten diharduten lau gaztek —horien artean, Oier Zumarraga aretxabaletarra— 'Izerdi patsetan' proiektua jarri zuten abian orain dela ia urtebete; ordutik, hainbat kirolari elkarrizketatu dituzte eta sare sozialen bidez zabaldu

Mirari Altube ARETXABALETAK

Kirola, euskara, ikus-entzunezko edukiak eta sare sozialak uztartzen dituen *Izerdi patsetan* proiektua iazko martxo inguruan sortu zuten Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza graduako lau ikaslek; hiru bizkaitarrak dira: Beñat Igarza eta Jon Rodriguez durangarrak eta Gontzal Mendibe gernikarra; eta laugarrena, aretxabaletarra: Oier Zumarraga.

Elite mailako kirolariak

"Gure leloa da *euskal kirola bertatik eta bertarako*, eta, noski, euskara hutsean. Hori ardatz hartuta hasi ginen lanean eta hala jarraitzen dugu", azaldu du Zumarragak. Kirolariak hautatzen hasita, ez dira edozeinekin konformatu: David Zurutuza futbol jokalaria ohia, Xabier Euzkitze kazetaria, Iñaki Osa puntista, Andoni Iruretagoiena herri kirolaria eta, azkena, Jokin Altuna pilotaria elkarrizketatu dituzte. "Elitera begira jarri ginen; zergatik ez saiatu? Altunarekin egotea, esaterako, izugarritzko esperientzia izan da; jasotako edukiarekin gustura geratu izanak eta elkarrizketa horrek sare sozialetan izan duen oihartzuna ikustek poztasun handia eman digu".



Oier Zumarraga, Jokin Altuna, Jon Rodriguez eta Beñat Igarza. 'IZERDI PATSETAN'

Proiektuak, aurrera egin ahal, moldaketak izan ditu: "Elkarrizketek gain, beste mota batzuetako edukiak ere egin ditugu: Twitch-en zuzenekoak eta gaurkotasanaren gaineko albistegiak, esaterako. Eta elkarrizketak erronkekin osatu ditugu, audientziak eskatzen duelako eduki entretenigarria eta samur kontsumitzeko". Ikus-entzunezkoak Youtuben zintzilikatzeaz gain, Twitterren, Instagramen eta Tiktoken ere badabilta: "Egindako lana zabaltzeko sekulako garrantzia dute sare sozialek eta jende

gehiagorengana ailegatzeko zozketak egiten ditugu. Hori guztia lagun, sekulako erantzuna jaso dugu eta horrek indarra eman digu jarraitzeko".

Aurrera begirako erronken artean, emakumezkoen kirolari ikusgarritasuna ematea dute.

Txirrindularitza dokumentalean

Euskal txirrindularitzaren gaineko dokumental bat dute orain esku artean: "Testigantzak jaso eta informazio osatuarekin gaia sakon landu gura dugu, eta horretan gabiltza".

Udaberri saria jokatzeko hasiko dira gaur herriko pilotariak

Eskuz binakako lehenengo faseari dagozkion lau partidu izango dira Iturrigorri pilotalekuan, 19:00etan hasita

M.A. ARETXABALETAK

Aste bukaeran emango diote hasiera eskuz binakako Udaberri Saria pilota txapelketari eta Aretxabaletako kirol elkarteak hainbat jokalarik jardungo dute nor baino nor gehiago; horien artean, hiru partida Iturrigorri pilotalekuan izango dira gaur, egubakoitza, 19:00etan hasita.

Lehenengo jardunaldia etxean jokatu hasiko dute kadete mailako bi bikotek: Manex Aranak eta Iker Ortuetak Lazkaoko Lapke elkarteak izango dituzte aurrez aurre eta Xabat Otazuk

eta Markel Errastik, Azpeitiko Ilunpe elkarteak. Nagusiek ere, Aritz Zugastik eta Joxe Uribe txabarriak, etxean jokatu dute; legazpiarren aurka, hain zuzen ere.

Horiez gain, infantil mailakoek Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketari ekingo diote.

Bi partida kanpoan

Etiket kanpora ere izango dituzte partiduak beste hainbatek: kadeteak Tolosara joango dira eta infantilak, Oñatira eta Amezketara.

'Maleta kontuak' saioa Maider Galarza ipuin kontalariarekin

Eskarmentu handia duen Maider Galarza ipuin kontalari eta aktoreak *Maleta kontuak* saioa eskainiko die 4 eta 6 urte arteko neska-mutikoei; hilaren 18an izango da, eguaztena, 18:00etan, liburutegiko Txiki Txokoan. Mailetatik pertsonaia asko aterako ditu —besteak beste, elefanteak eta erraldoiak—, umeen gozamenerako, eta gordetzen dituen sekretuak ezagutzera eman horrela. Ordubeteren bueltako emanaldia izango da.

Hogeita hamar lagun ingururendako lekua egongo da; horregatik, izena aldeztu aurretik eman behar da udal liburutegian. Horretarako azken eguna astelehena da.

Joskintzan hasteko ikastaro bi Gu Haziak Gararen eskutik

Arropei konponketak zelan egin irakatsiko dute Gu Haziak Gara elkarteak kideek urtarilaren 17an hasi eta martxo bukaera bitartean; oraingoz, martitzenean izango dira eskolak (18:00-19:30), eta otsailean, astelehenean ere bai. Praka barrenak moztzen, kremailerak aldatzen eta prakak eta alkandorak estutzen erakutsiko dute.

Joskintzan murgiltzeko hastapen ikastaroa ere egingo dute, otsailean hasita, eta josteko makina erabiltzen irakatsiko dute orduan.

Argibideak eskatzeko eta ize-na emateko, elkartera jo behar da: guhaziakgara@gmail.com edo 681 65 59 39.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETAK • TEL.: 943 79 93 55



Gabonetan, Elgetan batu ziren zenbait haur pilotan jokatzeko. IDOIA ARANBARRI

Pilotaz gozatzea helburu duen topaketa bihar

Larunbatean, hilak 14, Joseba Iñurrategi pilotalekuan, 16:30ean, Emakumezkoen pilota topaketa jokatu da; Debagoienean pilotan ari diren hamasei emakumezkoen parte hartuko dute Arizmendi kirol elkarteak antolatu duen lagunartekoan

Mikel Zumalde Etxabe ESKORIATZA
Debagoienean pilotan ari diren neska gazteek hitzordu handia dute larunbat honetan, hilaren 14an, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. 2008 eta 2013 urte bitartean jaiotako neskatok elkarren aurka arituko dira Arizmendi kirol elkarteak antolatu duen topaketa horretan. 16:00etan hasiko dira jokatzeko eta 18:00etan emango diote amaiera. Guztira, hamasei pilotari arituko dira nor baino nor gehiago eta binaka jokatuko dute. Helburu nagusia kirol horretaz gozatzea denez, bikoteak aldatzen joango dira eta guztiek jokatuko dute guztiekin. Alebin eta infantil kategorietako haurrak dira eta neurketa bakoitza zortzi tantora izango da. Pilotariak zuri jantziko dira.

Antolatzaileak gogotsu daude
Gorka Gabilondo Arizmendi kirol elkarte arduradunetako bat da eta ezinbestekoa

iruditzen zaio topaketa antolatzea: "Guretzat garrantzitsua da horrelako topaketa bat antolatzea. Bailerako gainontzeko kirol elkarteekin izandako azken bileran, nesken pilota topaketa antolatu behar zela esan nuen, eta, azkenean, lortu dugu". Haren esanetan, pilotan arituko diren neskek ere irrikan daude larunbata iristeko, elkar ezagutzeko eta guztiok batera egun handia pasatzeko.

Lehen urratsak

Azkeneko urteetan neska dezente animatu dira pilotan jokatzeri Debagoienean. Izan ere, ibarreko kirol elkarte gehienetan neskaren batek edo

BIKOTEKA JOKATUKO DUTE HAURREK ETA NORGEHIAGOKAK ZORTZI TANTORA IZANGO DIRA

bestek jokatzen du pilotan eta kopuruak gora egin du azkenaldian. Arizmendi kirol elkarteak, adibidez, astean hirtan Joseba Iñurrategi pilotalekua zabaltzen du nahi duen orok pilotan joka dezan.

Data gehiago

Debagoieneko kirol elkarteek data gehiago zehaztu dituzte; hala, bigarrena martxoaren 11n izango da eta hirugarrena apirilaren 22an. Topaketa horien tokia aurrerago zehaztuko dute. Eta baliteke maiatzean azken topaketa egitea.

Antzuolarrak nagusi

Debagoieneko ia herri guztiek izango dute ordezkariaren bat larunbateko hitzorduan: Arrasatek, Aretxabaletak, Antzuolak, Bergarak, Eskoriatzak eta Oñatik. Eta Soraluzetik hiru pilotari izango dira Eskoriatzan. Antzuolatik etorriko da talde handiena: hain zuzen ere, bost pilotari.



Webgunearen itxura berria. IMANOL BELOKI

Eskoriatzako Udalak webgunea berritu du eta itxura aldatu dio

Dotorea da orain, eta herritarrek informazio guztia eskura izateko aldaketa baliagarriak egin ditu Udalak

Mikel Zumalde Etxabe ESKORIATZA

Eskoriatzako webguneak *-Eskoriatza.eus-* itxura berria du. Udalak aldaketak egiten aritu da, webgunea ikusgarriago egiteko eta herritarrek informazio guztia eskura izan dezaten. Goiko menuan atal garrantzitsuenak nabarmentzen dira; besteak beste, Udalaren gainerako informazioa, zerbitzuak eta tramiteak egiteko atala. Gunearen erdialdean Herritarrentzako Arreta Zerbitzu Integrala dago eta bertan modu antolatuan herritarrei askotariko aukerak eskaintzen zaie.

Agenda, eskuragarriago

Agenda erraz eta modu argiarragoan azaltzen da. Sekzio horretan Udalak Zaldibar antzokian izaten diren zinema emanaldiak jartzeaz gain, ludotekan eta gaztelekuan antolatzen diren ekintzak ere argitaratzen ditu. Webgunearen amaieran, Eskoriatzako Udalak herritarrei udalarekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera ematen die, *Eskoriatza APP* aplikazioaren bitartez. Komunikazio kanal berri horrek 500 deskarga baino gehiago ditu eta herritarren gustukoa da.

GORA ETA BEHERA




Txakur-kaka ugari herrian eta herritarrak kexu

Herritar batek argazkiak bidali ditu GOIENARA, herriko hainbat txokotan txakur-kakak daudela jakinarazteko. Ibilbide motz batean ugari ikusi ditu eta txakur-jabeei arduraz jokatzeko eskatu die. Argazkia Huhezi alboan aterata dago, "baina herri osoan daude horrelakoak".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Auzoko eta Berbalagun taldeak, martxa onean

Jendea parte hartzen ari da euskaraz berba egin edo euskarara gerturatzeko dinamiketan, eta, urte berriarekin bat, sasoiko bigarren izen ematea zabaldu dute. Santamasetako azokaren bueltan batu ziren bi egitasmoetako hainbat kide

Mikel Zumalde Etxabe ESKORIATZA
Euskara Elkarteen Federazioak eta Eskoriatzako Udalak finantziatutako Auzoko eta Berbalagun egitasmoak martxa onean doaz. Euskarara gerturatzeko edo euskaraz berba egiteko baliotuzko programa horiek irailan hasi ziren, eta orain, urtarilean beste izen emate bat zabaldu dute. Berbalagunen iazko ikasturtean zeuden hiru taldeak mantentzen dira eta Auzokon 21 pertsonak eman dute izena.

Koordinatzailea, pozik
2022az geroztik Berbalagun eta Auzoko egitasmoen koordinatzailea da Nerea Zugasti. Aurtengo ikasturteak orain arte eman duenarekin pozik dago eta emaitza modu positiboan baloratzen du: "Berbalagunen iazko kopurua mantendu egin dugu eta Auzokon 21 pertsona daude. Beraz, datu horiek ikusita emaitza ona dela uste dut". Programa horien arduraduna izatea oso "aberasgarria" dela dio, hark ere "asko" ikasten duela iritzita. Zugastik otsailean urte bat beteko du koordinatzaile. Aurretik, Iratxe Arresek hiru urte eman zituen Berbalagun eta Auzoko egitasmoetako koordinatzaile.



Auzoko egitasmoaren kideak Ibarraundi museoaren kanpalekuan. NEREA ZUGASTI

Erdigunean euskara
Euskararen erabilera sustatzeko sortutako egitasmoak izan arren, Auzoko eta Berbalagun bi programa ezberdin dira. Auzoko hizkuntza harrera da eta ikasleek hizkuntzarekin lehen harremana izaten dute. Eskoletan teoria ematen dute, eta, ondoren, jolasen bitartez ikasitakoa praktikan jartzen dute. Berbalagunen, aldiz, euskara praktikatu nahi duten pertsonak eman dute izena. Programa horretan parte hartzen dutenak kafea hartzeko

edo pintxo-potea egiteko elkartzen dira eta une oro euskaraz berba egiten dute.

Ekintza ugari
Teoria-eskolez harago, hainbat irteera egin dituzte azkenaldian, euskarara gerturatzeko bi egitasmoak sortu zirenetik egin izan duten moduan. Azkeneko, santamasetan talde txiki bat batu zen, eta, aurretik, mintza-tonbola izan zuten Eskoriatzan. Ibarraundi museoa ere bisitatu zuten eta Gabonetako afariak ere ez zuen hutsik egin.

Aizkora eta harria nagusi

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketa eta Harri-jasotze Txapelketa jokatu ziren joan den domekan Joseba Iñurategi pilotalekuan. Saralegik eta Soroak bi puntu eskuratu zituzten aizkora eta harri-jasotzean berdinketa egon zen Olaizolaren eta Eizmendiren artean. Maddi Gesalaga gazteak marka pertsonala ezarri zuen.



IMANOL SORIANO



Inazio Gabilondo, Labidea dendako arduraduna, denda. IMANOL BELOKI

Labidea denda-taberna ustiatzen jarraitzeko asmoz

Bederatzi urte daramatzate lanean Inazio Gabilondok eta Ixidor Salaberrik, eta jarraitzeko gogoz daude

Mikel Zumalde Etxabe GATZAGA
Inazio Gabilondok eta Ixidor Salaberrik Labidea denda ustiatzen jarraitzeko asmoz daude eta nahi hori jakinarazi diote Leintz Gatzagako Udalarari. Abenduaren 30ean amaitu zen denda ustiatzeko eskaera berriak aurkezteko epea eta ez zen inor aurkeztu. Hori dela eta, bederatzi urtez irekita mantendu duten bi gatzagarrek bertan segitu nahi dute. Egunero zabaltzen dute establezimendua, eta, denda izateaz gain, Gatzagara bisitan joaten diren bisitarien aterpea ere bada. Pandemiak kinka larrian utzi ditu herriko negozioak, baina Gabilondok eta Salaberrik ez dute amore ematen.

Herriko aterpea
Labidea denda herrira bisitan joaten direnak jasotzen dituzte. Inazio Gabilondo dendako arduradunetako bat da eta anfitrioia lana egiten dutela dio: "Plazan gaude eta jendea etortzen da museoa hemen den galdezka. Guk beraiekin kezka eta zalantza argitzen ditugu eta herrian zer dagoen esaten diegu". Askok denda egiten dute lehen geldialdia eta "bertako" produktuak eskaintzen dituztela gaineratu du.

Koronabirusaren pandemiak min handia egin dio dendari. Izurritea baino lehen, Soran Etxea hotela zabalik zegoen eta pandemiaren ondorioz itxi egin zen. Jakion enpresa Eskoriatzara lekualdatu zen, eta fak-

tore horiek guztiek Gatzagan zabalik mantentzen den negozio horretan eragin zuzena izan dute. Labidea dendaz gain, Arrate jatetxea soilik dago irekita. Bizitzaren garestitzea aurre egiteko "zailtasunak" dituztela aitortu du Gabilondok. Hala ere, denda lan egiten jarraitu gura du.

Asmoa, aurrera egitea
Aurrerantzean herriaren babesleku izaten jarraituko du dendak eta Gabilondok argi du zein den Labidearen funtzioa: "Behintzat, Gatzagak izan dezan leku bat produktu minimoak erosteko, edateko edo eserita egoteko. Azkenean, pandemia garaian, nora joan ez edukitzea oso tristea izan zen". Ahal den neurrian, gauza berriak egiten joatea gus-tatuko litzaioke.

Eskertuta
Gatzagako herriarentzako esker on berbak besterik ez du. Bederatzi urte hauetan herria zerbitzatzen aritu da bazkidearekin batera eta arazorik izan ez duela azaldu du; sekula ez. Amaitzeko, negozioak herrian bizitzea ahalbidetu diola aitortu du.

BEDERATZI URTE DARAMATZATE LEINTZ GATZAGARI BIZIA EMATEN; PANDEMIAK MIN HANDIA EGIN DIE



Ezkerreko argazkian, Masterreka kaleko lanetan, errepidea itxita eta espaloia zabalik. Eskumakoan, ibilgailuak Barrenkale eta Irizar kaleak zeharkatzen; puntu horretan eskatu dute zebra-bidea oinezkoek. H.L. / N. MUÑOZ

Martxan da lanen hirugarren fasea

Zubieta kalea eraberrituta, Masterreka kalean eta Bideberriko bidegurutzeari hasi dira esku-hartzeak egiten asteen. Ondorioz, Elosurako eta Boluranzko joan-etorria Multzo Monumentaletik ari dira egiten ibilgailuak, oinezkoentzat ziren hainbat gune igarota

Hasier Larrea BERGARA

Hamaika hilabete iraun zuten Zubieta kaleko espaloia eta errepidea urbanizatzeko lanen bi faseek eta beste sei hilabete iraungo du, gehienez, Masterreka hirugarren faseak. Halaxe jakinarazi zuen urte hasieran Bergarako Udalak, obren eragina jasango duten bizilagunei xehetasun guztiak komunikatu ostean. "Bilera irekietan azaldu genien oinezkoendako aldaketak egunerokoak izango direla, baina beti bermatuko zaiela sarbidea lokal, denda eta etxebizitzetara. Garajeetarako sarbideak ere ahalik eta neurri handienean bermatuko dira, ziur aski, obraren puntu batzuetan ezin izango den arren", adierazi du Gorka Artola alkateak.

Ibilgailuentzat bestelakoa da egoera, Masterreka kaleko errepidetik ezin baitaiteke zirkula-

tu. Ardatz horretatik egin ohi da Bolurako, Elosurako eta Burdinaterako joan-etorria, eta auto eta kamioi ugari pasatzen ziren bertatik. Gidariekin bide alternatiboa egin beharko dute, beraz, Multzo Monumentaleko kaleak zeharkatuta. "Aldaketa nabarmenenak sarrera eta irteeretan egin dira: sarrera Erztaintzaren egoitzaren aurrean, Arrizuri aldapatik gora, hasten da orain, Espaloitik, San Pedro-tik, Artekaletik eta Arruriagatik joanez; irteera, berriz, Barrenkaletik egiten da, Irizar kalean behera Kruz Gallastegira irten da", zehaztu du alkateak.

Ibilgailu astunen kasuan, mugatu egin dute alde zaharretik ibili ahaliko direnen pisua, 18 tonatik gorako autobus eta kamioiek San Martin plazatik gorako norabidea hartu behar baitute.

Zirkulazioaren berrantolaketa berria seinaleekin dago behar bezala markatuta, gidariak erraztasunez pasa daitezten.

Aldaketen eraginez, lehen oinezkoentzat bakarrik ahalbidetuta zegoen eremuren bat ibilgailuentzako ireki behar izan dute. Burdiñate plazaren eta Irizar jauregiaren arteko Barrenkaleko zatia da horren adibide. Intxorta eta Dixula tabernek terraza jartzeko aukera zeukaten errepidean, baina lanak bukatu arte ezin izango dute jarri. Tabernariak "naturaltasunez" hartu dute erabakia. Udan

**OINEZKOEK NEURRIAK
ESKATU DITUZTE ALDE
ZAHARREAN
SEGURUAGO IBILI
AHAL IZATEKO**

terrazza berriz jarri ahal izango dute. Obrak neguan izatera, eragina txikiagoa da horientzat.

Oinezkoen eskaerak

Obra guztiek eragina dute trafikoa eta baita oinezkoetan ere. Udala jakitun da hainbat herritarrek faltan sumatu ahal izan dezaketela erdiguneko kale-puntu batzuetan moldaketak egin beharra. Ibilgailuak azkeneko urteetan igaro ez diren tokietatik trafikoa berrituz ere modu ohikoan egoteak ekar ditzake gora-beherak. Nagusiki, oinezkoek dagokienez, Irizar eta Barrenkalea kaleek bat egiten duten puntuan eta Komenio eta Bidekurutzeta kaleek bat egiten duten puntuan –San Martin plazaren alboan– gura dute moldaketak egitea.

Herritarrek Masterrekako lanekin lotutako keza, ohar eta gomendioak udaletxeko bulego teknikora deituta bidera ditzakete: 943 77 91 38. "Gaur gaurkoz ez dugu kexu edo iradokizunik jaso bulego teknikoan, baina udaltzainek, hirigintzako teknikariek edota obra egin behar duen eraikuntza enpresako beharginek jaso ditzakete, eta horiei erantzuten saiatzen da eta saiatuko da Udala obra honekin ere" esan dute Udaletik.

Zubietako bizilagunak, pozik

Lasaitu ederra hartu dutenak Zubieta kaleko bizilagunak dira. Bertako konponketek ia urtebete iraun ostean, errepide alboko

espaloietan espazioa irabazi dute errepidea estututa eta aparkaleku gehienak kenduta, izkina batetik bestera igarotzeko koskak lauagoak dira eta zebra-bidea espaloien altueran dago.

Oinez ibiltzeak lehengoarekin zerikusirik ez duela adierazi dute zenbaitzuek. Umeentzako karroarekin ibiltzerakoan norbaitekin gurutzatzean jada espaloitik errepidera jaisteko beharrik ez dagoela aipatu du batek, eta gaineratu "adin nagusikoek eta gorpildun aulkian ibiltzen direnek" eskertu dutela bereziki irisgarritasunean izandako aldaketa. Beste bizilagun batek autoen garajeetarako sarbideetan jarri du arreta: "Lehen, espaloia eta errepidearen artean gora eta behera ibili behar zuten gidariak, eta orain, dena zuzen dago, oinezkoek enbarazu gutxiago egiten die". Hirugarren baten iritziz, "oso ondo" geratu da kalea, lehen ibiltzeko "oso gaizki" zegoela aintzat hartuta.

Sei hilabeteko epea

Masterreka kaleak Zubietakoaren antzeko itxura hartuko du. "Gehienez sei hilabete" itxaronko dute herritarrek emaitza ikusteko. Pentekoste jaiak maiatzaren 26an hasten dira eta ordurako lanak amaituta eta kalea zabalik nahiko luke Udalak. 2.048.012,62 euroko inbertsioa egin du Udala. Construcciones Zubieder SL enpresa ari da exekutatzen, Typsa SA enpresaren zuzendaritzapean.



Zabalotegiko txiki-txokoak hartuko duen itxura. IMARA

Jolasgune berria egingo dute Zabalotegin

Sasoi batean auzoko eskola eta jolasgunea izan ziren, eta Txiki Txoko berri bilakatuko da Zabalotegin. Ingurua berrurbanizatu. 4 hilabete beharko dira lanak egiteko. 91.562,23 euroko aurrekontua dauka 700 metroko koadroko gunea berritzeak

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA Zabalotegiko Txiki Txokoa berririo urbanizatzeko lanak esleitzeko deialdia egin du Bergarako Udalak. Proposamenak aurkezteko epea urtarrilaren 17ra arte dago zabalik. Guneak 700 metro koadro ditu. Jolas jarraiturako gunea izango da, egur naturalarekin egindako elementuak izango dituena. Bergarako Udaletik adierazi dutenez, "haurrek material naturalak ukitu, sentitu eta elkarri eragiteko aukera izango dute, jolasaren bidez horietaz gozatzeko".

Ekipamendu berriak kiosko hexagonoaren bi aldeetan kokatutako dorre-modulu bat izango du. Bertan, igoera-sare bat, txirrista, tunela, arbela, eskalada-pareta, bankua eta soka ahula egongo dira. Era berean, enbor eta sokazko baso bat izango du; hiru aurpegiko rokdromo bertikal bat; txikientzako bentatxo bat eta jolas sinbolikoetarako mahai bat; gurpil-aulkientzako arrapala irisgarri bat

eta alboetako itxiturak, jolaserako irekiguneeekin; eta plataforma inklinatuez eta sokaz osatutako igoera-multzo bat. Kioskoaren kanpoaldean, gainera, habia bat jarriko dute, eta espazio osoan segurtasun-zorua.

Bankuak, paperontziak eta alboko horman babes-baranda bat jarriko dituzte, bai eta iturri bat ere. Argiztapen-sistema berri egingo dute, bost luminaria eta sodio-lurrunezko lanparen orde LED teknologikoak jarri, inguruko energia-eraginkortasuna eta baldintza luminoteknikoak hobetzeko. Era berean, sei argi gehiago jarriko dituzte parkearen atzeko oinezkoentzako pasealekuan.

BERGARAKO HERRI HEZITZAILEA TALDEAN LANDUTAKO IDEIAK PRAKTIKARA EROATEA NAHI DUTE

Imara Ingeniaritza SLk idatzi du proiektua. Eta hori da gauzatuko dena. Lanak lau hilabetearen egitea aurreikusten da, eta aurrekontua 91.562,23 euro da -BEZa barne-.

Haurren beharrei erantzun Oinherri herri hezitzaileen sareko kide da Bergara. Horren filosofiari jarraituta egin da gunearen diseinuaren prozesua. 2020. urtean sortu zen Bergarako Herri Hezitzailea Taldea. Bertan sortutako ideiak praktikan jartzeko asmotik abiatu zen haurren parte hartzearekin jolaserako espazio bat egokitzeko prozesua, Zabalotegin gauzatu dena. Gorka Artola alkatea pozik dago egindako lanarekin: "Haurrak izango dira jolas parkearen erabiltzaileak eta subjektu aktibo gisa hartu ditugu prozesuan, haiek dituzten beharrak eta nahiak entzuten. Azken urteotan proiektu asko egiten ari gara partaidetzan, eragileekin eta herritarrekin".

Emakume migratzaileendako solasaldia Irizar jauregian

Jabekuntza Eskolak saio bat iragarri du astelehenerako: 'Nik ere baditut ikasketak' hitzaldi-solasaldia

E.A.L BERGARA

Bergarako Udaleko Berdintasun Sailak bultzatutako Jabekuntza Eskolak beste saio bat iragarri du astelehenerako: *Nik ere baditut ikasketak* hitzaldi-solasaldia. Gaztelaniaz izango da, emakume migratzaileei zuzenduta. 16:00etan, Irizar jauregian. Bidez Bide elkarteak dinamizatu du.

Hemen bizi diren emakume askok jatorrizko herrietan ikasketak egin zituzten, baina ez daude prestakuntza akademikoa jarraitu. Jarduera horretan esperientziak partekatuko dituzte eta Bigarren Hezkuntza, batxilergo, ikasketa tekniko edo goi mailakoen homologazio, balioztatze eta onarpen prozesuaren inguruko informazioa eta aholkularitza emango dute.

Bidez Bide Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkartek ikuspegi "transkulturala eta dekoloniala" dauka eta genero ikuspegitik proiektuak garatzen ditu. "Herriartasun inklusibo eta parekide baten eraikuntzan" Euskal Herrian bizi diren emakume migratuentzako "eskubide eta betebeharrak berdin" alde lanean dihardu.

'Umorea eta jeneroa'

Bestalde, Berdintasun Sailak *Umorea eta jeneroa* izenburuko tailerra antolatu du urtarrilaren 28rako, 10:00etan, Agorrosinen. Bea Egizabal Ollokiegiren eta Paki Caballero Martinen eskutik. Parte hartzeko, 943-77 91 00 telefonora deitu edo *berdintasuna@bergara.eus* helbidera idatzi behar da.



IMANOL SORIANO

Atzeritarrei ondoetorria

2022an Bergarara iritsi ziren atzeritarrei ongietorria egin zieten udal ordezkariak udaletxean. Dantza eta zuzeneko musikarekin giro gutako ekitaldia izan zen eta jatekoa eta edatekoa izan zuten. Bergarako udaletxeko ateak "zabalik" dituztela adierazi zuen Gorka Artola alkatea.

OHARRAK

Brztinzale elkartearen erakusketa

Gaur, egubakoitza, 18:00etan irekiko dute Bergarako Buztinzale Elkarteen erakusketa Aroztegi aretoan. Hilaren 22ra arte egongo da zabalik, ohiko ordutegiarekin. Ostean, 27an, Beart elkartearena irekiko dute.

1956an jaiotakoen bazkaria

Lagunarteko bazkaria egingo dute aurten 67 urte beteko dituzten bergararrek Zumelaga jatetxean hilaren 28an. Aurretik, 12:30ean Usoan elkartuta, tabernarik taberna ibiliko dira eta 14:30ean argazkia aterako dute jatetxe aurrealdean. Izena emateko epea: domeka, hilak 15.

"Musikala oso gertukoa da eta denetik dauka"

TXEMI ETXEBARRIA URZAIN 'BRETXA' MUSIKALEKO ORKESTRA ZUZENDARIA Belgikan "pozik" bizi da orain dela hogeitun urtetik, baina aukera duenean herriko musika proiektuetan parte hartzen du; gaur estreinatuko duten 'Bretxa'-n, esaterako

Aitziber Aranburuzabala Juldain
BERGARA

Tronpa-jole profesionala da, baita orkestra zuzendaria ere. Bergarako BAM! elkartearen *Bretxa* musikaleko orkestra zuzenduko du Donostiako hiru emanaldietan.

***Bretxa* musikala estreinatzeko atarian, ze sentsazio dituzu?**

Oso onak. Orkestrak oso ondo funtzionatzen du, koruak oso ondo dakizki abestiak, bakarlaririk itzelak dira, dantza eta guzti egiten dute; hortaz, Victoria Eugenia antzokian estreinatzeko gogotsu!

Orkestra zuzendariaren ikuspegitik, zelakoa da obra da?

Denetarik du; eszena dramatiko asko ditu, baina eszena erromantikoak ere bai, euskal musika ere badago, ingeles musika pixka bat eta musika espainiarrak ere bai... Hunkigarria! **Erraz ulertzeko musikala da adituak ez direnentzako?**

Bai; oso gertukoa da, liburua irakurri dutenentzako eta ez dutenentzako ere bai.

Noiz eta zelan jaso zenuen *Bretxa* musikalean parte hartzeko proposamena?

Orain dela sei urte, gutxi gora-behera, kontatu zidan Oihan Vega zuzendariak buruan bueltaka zebilela musikarekin. Garai hartan, Orkestra Zuzendaritza ikasketak egiten ari nintzen.

Belgikan bizi zarenez, zelan izan da lan-prozesua?

Iazko Gabonetan hemen izan nintzen eta buelta oso bat eman genion musikalariei orkestrarekin. Oihan ibili da ondoren orkestraren kargu, entseguak eta bestelako lanak egiten; bideoak bidaltzen zizkidan, gero nik horiekin lan egiteko. Eten barik izan gara musikala lantzeko Oihan eta biok harremanetan. **Bergarara etorritakoan, etxeko lanak ondo eginda aurkitu dituzu?**

Bai, horixe! Atzean zenbat lan dagoen eta zelako serio egin



Txemi Etxebarria orkestra zuzendaria Bergarako Musika Eskolan, eguaztenean. A. A.

"ESTREINALDIRAKO SENTSazio OSO ONAK DITUT, PIEZA GUZTIEK ONDO FUNTZIONATZEN DUTELA USTE DUT"

duten lan argi geratu zait. Oihani esaten nion moduan, *a mesa puesta* etorri naiz ni. Domekan entsegu orokorra egin genuen eta dena ondo zihoan.

Victoria Eugeniarrak sarrera guztiak agortuta daude hiru emanaldiatarako; zer adierazten dizu horrek?

Itzela da! Ez dut antzoki horretan inoiz zuzendu, baina orain dela urte asko, 11 urte nituela, taularen gainean izan nintzen, Bergarako Musika Eskolaren *Miserableak* musikalean parte hartzen beste haur batzuekin batera kantuan, eta orain, zuzentzen izango naiz. Oso hunkigarria izango da, eta, are hunkigarriagoa, Bergaratik jende asko joango delako ikustera.

Martxoan Bergaran eskainiko duzue; han ere izango zara?

Gurako nuke, baina ikusi egin behar dut nola ibiliko naizen hango lanekin. Gabonetako opo-

rrak luzatu egin ditut hango nire lanetan ordezkoak utzita, baina martxoan ez dakit posible izango den; hala ere, ahaleginduko naiz, zalentza barik.

Oihan Vega txikitatik ezagutzen duzu eta aurretik ere elkarrekin hainbat proiektu egin dituzue. Zelakoak?

Esango nuke, 15 urte nituela, Bergarako Musika Eskolan ari nintzela, hemengo beste ikaskide batzuekin Wonder Brass metal boskotea sortu genuela eta bateria-jole baten bila ari ginela; Oihan sartu zen taldean. Oso gustura jardun genuen denok talde hartan. Oihanek eta biok antzerako zaletasunak genituela konturatu ginen eta elkartu eta musika-jolasean ibiltzen ginen gustura, ni haren etxera joanda edo hura nireira; musika konposatzen genuen, ordenagailuarekin eta pianoarekin lagunduta. Bola hori handitzen joan zen poliki-poliki eta *Olentzero&Co!* musikala etorri zen geroago.

Antzekotasunik badu *Olentzero&Co!* ikuskizunak *Bretxa*-rekin?

Musikari begirata, gutxi; pop-rock musikala zen aurrekoa eta soinu-banda moduan sailkatuko

nuke nik *Bretxa*. Ikaragarria da denbora tarte honetan Oihanek zenbat ikasi duen musika konposatzeari dagokionez. Autodidakta da, eta harrituta geratu naiz zein ondo idatzi duen lana.

Herrigintzatik sortutako proiektua da; Belgikan badago halakorik?

Musikalak egiten dituzten antzerki taldeak badaude, baina profesionalak dira denak, eta hemen, berriz, boluntarioak dira parte hartzaile gehienak; hala ere, sekulako kalitateko lanak egiten dira hemen.

Zure hango lankideek eta gertukoek zer diote *Bretxa*-ri buruz?

Asko gustatu zaie, harrituta daude ekimenarekin eta horrek lagundu dit Bergarako egonaldia luzatzen.

Noiz arte izango zara herrian?

Asteburuko emanaldiak eskaini ostean, astelehen goizean abiatuko gara emaztea eta biok.

Noiztik bizi zara Belgikan?

Maastrichtera ikastera joan nintzen eta harrezkero hogeitun urte daroat han. Pozik bizi naiz han eta lan kontuei dagokienez ere oso gustura nago. Aukera asko ditut bandak eta orkestrak zuzentzeko; azkenaldian, orkestra profesional munduan gehiago sartzen ari naiz, eta, gaur egun, hori dut ogibide; hortaz, ezin naiz kexatu.

Belgikan bizi zara, baina Herbehereetan egiten duzu lan, ezta?

Hori da; gertu dago muga. Banden arloan hasi nintzen lanean; hiru banda zuzendu izan ditut, baina orain dela gutxi bat utzi dut orkestra zuzendaritza lanak ikasteko denbora asko eskatzen didalako. Horrez gainera, CoMA Maastricht musika garaikide taldean ere banabil. Abesbatzak zuzentzen ere ibili izan naiz eta garai batean tronpa eskolak ematen nituen.

Ze proiektu dituzu esku artean?

Hainbat; adibidez, Bulgariatik deitu didate eta datak zehazten ari gara. Ekainean Philharmonie Zuidnederland Herbehereetako Hegoaldeko Orkestrarekin izango naiz...

Euskal Herrira lanera etortzeko asmo handirik ez duzu, oraingoz?

Gustatuko litzaidake Bilboko edo Euskadiko orkestran lan egitea, baina, oraingoz, itxaron egin behar. Euskal musikariekin ere lan egiten saiatzen naiz; adibidez, egunotan, Garikoitz Mendizabal txistulariarekin izan naiz, elkarrekin proiektu bat lantzeko gogoz.

Dantzaldi-erromeria Patxi Eta Konpainiaren eskutik

Tapia Eta Leturia eta Batbiru taldeekin jardun izan du Patxi Perez dantzariak 1997tik 2004ra bitartean; gaur egun, bost musikari eskarmentudunek osatzen duten Konpainia taldearekin dihardu. Alaitz Telletxea (Alaitz eta Maider, Lantz), trikitilaria eta abeslaria; Zeze Miega (Zapo, Tturruttak, ...) flauta eta ukelele-jolea; Jean-Michel Bereau (Batbiru, Kukumiku, ...) perkusio-jolea; Beñat Zozaya (Alaitz eta Maider, Sustraia, Kukumiku, ...) baxu-jolea; eta Jean-Lou Corrihons (Alaitz eta Maider, Minxoriak, Niko Etxart) gitarrak-jolea ditu Perezek lagun.

Publikoa dantza egitera bultzatzen duten saioak egiten ditu Patxi Eta Konpainiak, erromeria kutsua dutenak; hau da, fandangoak, mutxikoak eta bestelako gehiago, dantza egiteko gonbidapena eginez. Asmo horrekin joango dira bihar, zapatua, Seminarioxora. Arratsaldeko seietan hasiko dute saioa eta sarre-ra doakoa da.



Laskurain txistularia. I. S.

Bergarako Txistulari Bandaren urteko lehen kontzertua

Txistu musika instrumentuaren doinuak gustuko dituenak etzi, domeka, izango du herriko txistulari bandaren emanaldiarekin gozatzeko aukera. Formatu horretako urteko lehenengo emanaldia egingo dute, eta, ohi moduan, udaletxeko osoko bilkuren aretoa izango da domekan ere agertoki. Kontzertua 13:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da.

"Zaila izango da euskal selekziora bueltatzea"

EIDER ELORZA ESKUBALOI JOKALARIA

Bergarako gazteak bigarren urtez jarraian zilarrezko domina ekarri du Espainiako Txapelketatik; dio senior mailan zaila izango dela selekziora itzultzea

Xabier Urzelai Atxa BERGARA

Eider Elorza (Bergara, 2005) Espainiako Zilarrezko Mailan dabil Elgoibarko taldearekin jokatzen. Bigarren urtez, baina, euskal selekzioa ordezkatu ahal izan du Espainiako Txapelketan. Iaz zilarra eskuratu zuten eta aurreten pauso bat aurrera eman nahi zuten, baina finalean Nafarroa hobe izan zen (27-20). Hala ere, selekzioa ordezkariak pozik bueltatu dira egindako lanarekin. Gainera, ez da Bergarako ordezkari bakarra izan: infantil mailan Markel Aperribai ere torneoan izan da.

Bigarren urtez zilarra; pozik?

Bai, oso pozik bueltatu gara eta selekzioa taldeen artean, gainera, oso giro ona izan dugu, baina egia da iazko zilarren ondoren urrea nahi genuela, eta oraingoan ere finalean kontrarioa gu baino hobe izan da. Nafarroako selekzioa faboritoen multzoan zegoen, lehenengo fasean ere galdu egin genuen euren kontra [bi partidu horiek bakarrik galdu dituzte] eta txapelketako azken partiduan ere erakutsi zuten gu baino talde osoagoa zeukatela. Baina sekulako esperientzia izan da, partiduetan jendetza zegoen harmailetan, sekulako kirol instalazioak, kamera mordoa partit-

duak grabatzen... Pozik itzuli gara bizitako esperientziarekin. **Gazte mailan selekzioa finkoetako bat izan zara...**

Bai; kadete mailako jokalaria ginenean pandemia izan genuen tartean eta ez zen halako txapelketarik izan, eta iaz eta aurreten gazte mailako taldeko deialdian egon naiz; oso motibagarria da hori.

Datorren urtean senior mailako jokalaria izango zara.

Bai; 18 urte izango ditut eta horrek esan nahi du oso zail izango dudala selekzioa itzultzea. Azken batean, Euskal Herriko jokalaria onenak egoten dira senior mailan, maila gorenean jokatzen dabilzan neska helduagoak, eta oso zaila izango da; oraingoz, ezinezkoa. Baina



Eider Elorza, domekan finala jokatu eta gero, zilarrezko dominarekin. E.E.

Zilarrezko domina, bi urtez jarraian

Euskal selekzioak sei partidu jokatu ditu Espainiako Txapelketan eta euskaldunak finalerako sailkatu ziren, partidu bakarra galduta. Finalean, berriz, Nafarroa nagusitu zen (20-27): "Jende asko egon da harmailetan, kamera mordoa... Esperientzia ederra izan da".



Eider Elorza, iazko txapelketan. GOIENA

egin ditudan bi urte hauetan asko gozatu dut. Senior mailan euskal selekzioak ez du autonomien arteko Espainiako Txapelketa jokatzen, bestelako txapelketak dituzte.

Orain, indarrak ligan jarri beharko dituzue berriz, eta baduzue lana.

Bai; liga hasieratik aldapa gora jarri zaigu dena eta azken postuan gaude sailkapenean [Eider Elorza Espainiako Zilarrezko Mailan jokatzen dabil Gaurve Asesores Elgoibar taldean]. Egia da horrek ez gaituela ezustean harrapatu, belaunaldi aldaketa izan dugu taldean, halakoak gertatzen dira eta hasieratik bagenekien oso talde gaztea izan behar genuela; gazte mailako jokalaria gaude talde horretan eta partiduetan igarri egiten da, 25 urteko kontrarioak izaten ditugu eta aurrean.

Mailari eusteko esperantzarik bai?

Bai; saiatu, behintzat, saiatuko gara, hori seguru. Nahiz eta sailkapenean azkenak egon badugu esperantza, eta, gezurra badirudi ere, taldekideak egoe-

rari buelta emateko oso motibatuta gaude. Espero dugu bigarren itzulian hobeto ibiltzea, eta jokoari dagokionez bagabiltza aurrerapausoak ematen.

Pena izango litzateke maila galtzea.

Bai; izan ere, Euskadiko Txapelketan ere maila polita bada ere, koska handia dago bate-tik bestera. Ea eusten diogun.

Zer da eskubaloia zuretzat?

Denbora luzea eskaintzen diodan zerbait da; gaur egun, nire bizitzako pieza garrantzitsua. Izugarri gozaten dut jokatzen, entrenatzen, taldekideekin egoten eta abar.

Bergarako taldea, jarraitzen duzu?

Bai, koadrilakoak ditut gazte mailan, eta ahizpa ere kadete mailan dabil. Ahal dudanean Labegaraietara joaten naiz.

"HASIERATIK IKUSI ZEN NAFARROAKO SELEKZIOA TALDE OSOA ZELA, BAINA LAN ONA EGIN DUGU"

Urtarrilaren 31n hasiko dute Soralue lau eta erdikoa

Senior mailan Ander Etxaniz bergararra eta Ander Murua arrasatearra daude pilotari aukeratuen artean

X.U BERGARA

Bergarako Pilota Sailak gertu dauka Soralue lau eta erdiko txapelketaren hamahirugarren edizioa. Promesen kategorian zortzi pilotari aukeratu dituzte eta senior mailan beste zortzi

lehiatuko dira. Hala, kategoria gazteenean jokatuko duten pilotariak dira: Mikel Aranbarri, Igotz Bilbao, Unai Amiano, Ekhi Irribarria, Oihan Etxeberria, Beñat Apezetxea, Eñaut Lizeaga eta Beñat Zubizarreta. Eta senior

mailako pilotariak dira: Gaizka Karregal, Ander Etxaniz, Eneko Labaka, Josu Igoa, Iker Espinal, Ander Murua, Oihan Kanabal eta Iñaki Elola. Bada, Ander Etxaniz eta Ander Murua dira Debagoieneko ordezkariak.

Lehenengo jardunaldia –final-laurdenak izango dira– urtarrilaren 31n jokatuko dute, eta partidu guztiak martitzenean izango dira –19:30ean hasita–, martxoaren 14ra arte. Hain zuzen, orduan jokatuko dituzte bi kategorietako finalak.



Iazko txapelketako finalistak. GOIENA



Antzuolako Udal Pilotalekua, 2023ko urtarrilean. Kanpoan, frontoi txikia. A.R.K.

125. urtemugan, Olaldeek ospakizun urtea du

Aldaketak bizi izan arren, aurten beteko ditu Antzuolako udal pilotalekuak 125 urte; hori aitzakiatzat hartuta, lehen mailako gizonezko profesionalen eta Emakumeen San Isidro txapelketa antolatuko ditu Olalde elkarteak. Obrak ere egingo dituzte

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

1898ko abuztuaren 28an inauguratu zuten Antzuolako Udal Pilotalekua. Lau pilotari ekarri zituzten orduko hartan esku-pilotan egiteko, azkoitiarrak: Tomualdo Larrañaga, Jose Maria Urzelai, Francisco Elorza eta Francisco Arambarri. Herritarrek ordaindu zituzten, eta apai-zari meza emateko ere eskatu zioten. Musikariak ekartzea ere erabaki zuten, eta, hala, Benigno Altube eta Seber Altube dulzaineroak aritu ziren giroa musika doinuez alaitzen.

Ordu geroztik, aldatu egin dira ospakizun erak, baina ez, ordea, urtemugak ospatzeko ohitura. 125 urte beteko ditu aurten fron-

toiak, eta zer ospatua ere badu Olalde pilota elkarteak.

Bertako lehendakaria da Andoni Balerdi, eta aurtengo asmoen berri eman du. Nabarmendu duenez, lehen mailako gizonezko profesionalen partidu bat antolatu nahi dute irailerako, baina garrantzia eman nahi diete emakumezko pilotariei ere, euren plazarak sortuz.

Hala, pandemiak bertan behera utzitako ekimen bat berreskuratu dute, adibidez. "Emakumeen San Isidro txapelketaren bigarren edizioa egingo dugu, lehena izurritearen aurretik egin baikenuen; Olalde berak antolatuko du".

Maiatzaren 13an izango da hori, baina, Balerdik aurreratu duenez, lehenago, otsailaren



Frontoia, 1955-1960 urteen artean. 1961ean estali zuten. UDAL ARTXIBO HISTORIKOA

ESTALI EGINGO DUTE FRONTOI TXIKIA, ETA ITXIA PINTATU; ARE, ARGIAK ETA KOMUNAK EGOKITUKO DITUZTE

5ean, Ados Pilota emakume pilotarien elkarteak antolatutako andrazko pilotari profesionalen partidu bat ere izango da.

Ohikoak diren ekintzak

Gainontzean, ordea, elkarteak ez du ekintza berezi gehiagorik antolatuko, baina lehendakariak gaineratu du ohikoak direnei eusteko asmoa dutela.

Batetik, atzealdeko hormako txapelketa herrikoia egingo dute maiatzaren 6an, aurreko urtean izandako arrakastaren ondoren, eta herriko jaien bueltako pilota jaialdiak ere ez du hutsik egingo. Uztailaren 8an izango da, larunbata, festa hasi baino bost egun lehenago, eta Balerdik azaldu du afizionatuen arteko partidak izango direla. "Horiek dira pentsatuta ditugun ekintzak urteurrenari zentzu pixka bat emateko".

Obrak egingo dituzte

Ekintza bereziez gain, baina, obrak ere egingo dituzte pilotalekuan. 2023ko udal aurrekontuetan onartuko dira ofizialki, hilaren 17an, martitzena, eta adostuta dituzte udalarekin egin beharrekoak.

Hala, Balerdik azaldu duenez, frontoia pintatzea da asmoetako bat, baita barneko argiteria aldatzea ere: "Komeni da, egungo argiteria nahiko eskas gelditzen baita batzuetan". Horrez gainera, frontoiko gunen batzuetarako sarbidea egokitu egingo dute, eta komunetarako arrapala bat egin, komunak txukuntzearekin batera. "Era horretan, berriro polita emango dio Udalak frontoiari".

Kanpoko frontoi txikia estali egin nahi dute, eta, proiektua luzatu egin den arren, "geraogo bada ere, egiteko asmoa dago".

Eguneroko jarduna

Bitartean, eguneroko jardunarekin jarraituko dute. Elkarteak egunerokoan martxan du pilota eskola; 37 haur dabilta infaniletaraino eta bost pilotari federatuta daude.

1898AN INAUGURATU ZUTEN FRONTOIA; 1961EAN ITXI ZUTEN, ETA EGUNGOARI FORMA EMAN ZIOTEN



Mural berria. A.R.K.

Horma-irudi berria egin dute frontoian

Ione Larrañaga eta Oier Peñagarikano antzuolarrek beste mural bat egin dute, udal pilotalekuko sarreran. Bi esku ageri dira eta erdigunean eskupilotako pilota bat; *luze* eta *motz* erreferentziak ere badaude.

Alabaina, ez da lehen aldia leku horretan horma-irudi bat egiten dutena, aurrez beste bat baitzegoen. 2021eko abenduaren egin zuten bi sortzaileek, baina iazko maiatz inguruan pintaketak egin zituzten gainean eta, ondorioz, irudia kaltetu egin zuten.

Beraz, Udalak espero du murala "denek zaintzea, inork ez hondatzea eta bakean uztea".

Proiektuaren barne

Pilotalekuko horma-irudia, ordea, ez da herrian egin duten bakarra, Larrañagak eta Peñagarikanok muralgintza proiektu bat abiatu baitzuten 2021ean. Bederatzi lanek osatzen zuten hasieran, eta orduko ideia zen horma-irudi guztiak batuko zituen ibilbide bat sortzea, mural bakoitzari QRa eranstearekin batera.

Bada, eginak dituzte proiektu horren parte ziren muralak, eta horma berrien bila ere hasiak ziren berriak egiteko, bloke edo etxeetan.

"Umeek erakutsi didatena islatu nahi izan dut"

ALAITZ JAUREGI HEZITZAILEA

Haurren hitzak izan dezakeen garrantziari erreparatu dio Jauregik 'Aitatxo, amatxo... Zergatik?' ipuinean; hala, hezitzaile ibilbidean ikasitakoa guztiei zabaltzeko asmoa du

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarrria ANTZUOLA

Helduek batzuetan euren ideiak haurrei inposatzeko joera dutela uste du Alaitz Jauregi hezitzaileak, eta, beraz, erabakiak hartzean umeen ikuspegia ere kontuan izan behar dela. Hori islatu nahi izan du *Aitatxo, amatxo... Zergatik?* ondu duen liburuan. Adierazi duenez, "oso gustura" dago, eta harrera "ona" izan du lanak. Orain, beste bat du esku artean.

Liburua argitaratu berri duzu; zer landu duzu?

Ibilbide luzea dut eginga umeekin lanean, eurekin ikasten, gauzak lantzen, eta erakutsi dizkidaten gauzak islatu nahi nituen ipuin batean, gurasoek zein helduek ikusi dezaten zein den haurrek duten ikuspuntua zenbait arlotan. Ama naiz, eta alabei batzuetan esaten diet gauza bat era batera edo bestera dela, horrela egiteko. Baina euren lekuan jarri behar da. Agian, gauzak ezberdin ikusi genitzake.

Beraz, haurren hitzari garrantzia eman nahi izan diozu?

Helduok, beharbada, badugu haurrei gauzak inposatzeko joera, guk horrela nahi ditugulako, baina umeek, agian, ez dute hori nahi, badakitelako zer duten gustuko edo zer egin nahi duten. Badute erabakitze gaitasuna, baina duten hori kendu egiten diegu, batzuetan. Bada, ez. Entzun ea zer nahi duen, eta gero hartu erabakia: egin tratu bat, baina aditu ea hark zer sentitzen duen, zer duen esateko.

Esate baterako, nire umeek esan zidaten bazela ordua azkenean eurek esaten dutenari lekua egiteko. Nik ordura arte ez nuen halakorik antzematen.

Bada, norentzako da liburua?

Batzuek esaten didate txikientzat dela; beste batzuek, aldiz, helduagoentzat ere izan daitekeela. Egia da barnean duen mezua denentzako dela. Esango nuke



Jauregi, argitaratu duen liburua eskuetan duela, Antzuolan. IDOIA ARANBARRI ARZUAGA

"HAURREN LEKUAN JARRI BEHAR DUGU; HALA, BEHARBADA, GAUZAK EZBERDIN IKUSI GENITZAKE"

umeei dagokienez ez dagoela mugarik; hitzak, gainera, hizki handiz idatzita daude, lehen mailatik aurrerakoek irakurri dezaten, batez ere, baina uste dut guraso batekin edo heldu batekin irakurri behar dela, mezua guztiei iristeko. Ez da haurrentzako bakarrik.

Euskaraz eta gazteleraz idatzi duzu liburua; zergatik?

Ez nuen euskaraz bakarrik egin nahi. Guraso batek ez baldin badaki euskaraz? Edo umeak erraztasuna baldin badu erdaraz, zergatik izan behar du euskaraz? Izan ere, nik nahi dudana da mezua ahalik eta jende gehienarengana iristea. Uste dut hori dela garrantzitsua. Hizkuntza ja norberak erabaki dezala, ea zein bertsio mugitzen dituen bakoitzaren barruak.

Haurrekin lanean aritu ahala garrantzi al duzu ideia?

Tira, lehendabizi, etxetik atera dut, nire umeekin landu dudarik, eta horregatik eskerrak ematen dizkiet lehenengo orrialdean. Baina bai, tailerretan, haur eskoletan hezitzaile moduan ikasi dudana... Umeen mundutik jaso dudana informazio guztiarekin osatu dut.

Eskuratzeko interesa duenak nola lortu dezake?

Nirekin kontaktatzeko aukera jarri dut. 669 14 33 65 da telefono zenbakia, eta Whatsappez eskatzeko aukera ere badago. Jarriko naiz ni harremanetan entregatzeko edo bidaltzeko; moldatuko gara. Ez diot inori konpromisorik jarri nahi nire liburua saltzeko.

Gainera, beste ideia bat ere bada-bilkizu buruan.

Bai. Batez ere, konturatu nahiz ume askok dutela dolauren gaia lantzeko, baita helduagoek ere. Baina, askotan, tapatu egiten diren gaiak dira. Eskolan egiten dute lanketa, baina sakontasun handiko gaiak dira. Gainera, helduaroan nabari da zer-nola garrantzia duten txikitan ondo egiten ez diren gauzek. Beraz, gai horri eutsi diot, eta hasi naiz forma ematen.

Bihar hasiko da Antzuolako Mus Txapelketa, Mox tabernan

Hiru kanporaketa jokatu ostean, otsailaren 5ean izango da finala; Euskal Herrikora sailkatzeko aukera dago

A.R.K. ANTZUOLA

Bihar hasiko da Antzuolako Mus Txapelketa. Hiru kanporaketa jokatu dira, guztira, eta Mox tabernan izango da lehendabizikoa, 16:30ean. Parte hartu ahal izateko, bikoteek jokatu nahi duten lekuan eman behar dute izena, 20 euroren truke. Bikote bakoitzak kanporaketa bakarrean jokatzeko aukera izango du, baina kanporaketa jokatzeko lau bikote eman behar dute izena, gutxienez, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Are gehiago, nabarmendu dute antzuolarrez gain herriko senideek edo Antzuolan lan egiten duten kanpotarrek ere hartu dezaketela parte txapelketa horretan. Eta bikote bakoitzeko antzuolar batek, behintzat, egon behar du.

Bigarren kanporaketa urtariraren 20an egingo da, egubakoitza, 22:30ean, Gailur tabernan, eta hirugarrena, berriz, Arin jatetxean, urtariraren 28an, larunbata. 16:30ean hasita. Azkenik, Ongi Etorri jatetxean jokatu da finala. Otsailaren 5ean izango da, 16:30ean, eta antolatzaileek azaldu dute lau erregetara jokatu dela, aurrez



izango txapelketaren irudi bat. GOIENA

egingo diren kanporaketetan bezalaxe.

Euskal Herrikoa helmuga

Finalean txapelak jantziko dizkiete txapeldunei, beste hainbat sari ere banatuko dituzte, eta parte hartzaile guztien artean, gainera, opari bat zozkatuko dute. Baina, ziur aski, gehienek oparirik desiratuena Euskal Herriko Mus Txapelketako Gipuzkoako kanporaketara iristea izango da. Hain justu, egun horretan bertan jakingo da zein bikote sailkatuko den.

Hondakinen gaineko informazioa emango dute astean zehar

Debagoieneko Mankomunitateak bultzatuta, hondakinen gaineko informazioa ematen dabilta egunotan bi hezitzaile Antzuolan, eta hilaren 21era arte arituko dira, gerta daitezkeen intzidentziak zuzentzeko asmoz.

Izan ere, Mankomunitateko kideek azaldu dute hondakinen bereizketa tasak "oso onak" direla, Oñatikoarekin batera, baina sistema hobetzeko hainbat neurri hartuta dituztela, "hala nola etxe guztietara eskuorri informatiboak banatzea eta eskitokietan beheko posizioak hutsik uztea". Aitortu baitute "gutxiengo bat" diren arren oraindik ere badirela "jokabide desegokiak".

OHARRAK

Txarri dantza

Inauterietarako entseguak egingo dituzte astelehenetan, 19:00etan, Torresoroan.

'Berpiztu' lana

Kepa Junkera trikitilariaren dokumentalaren emanaldia, Torresoroan, etzi, 18:00etan. Sarrerak, Bibe plataforman.

Plazeraren saskia

Ordezko zenbakiak du eskuratzeko aukera, Aitz Garbin, urtariraren 22ra arte: 831.

Suradesa

Enpresa publikoak martitzenetan emango du zerbitzua, 08:00etatik 09:00etara.

Berriro esnatuko da hartza Elgetan

Otsailaren 11n izango da koko-batzea. Goibekok bultzatuta, hasita daude antolaketa bilerak. Aurreko urtean berrabiarazitako bidetik, jantzi tailerrak, erakusketa, dantza eskolak eta egun osoko baserriz baserriko eske-erronda daude iragarrita

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Iaz berreskuratu zen koko-batzea herrian eta 16 urtetik gorako 60 bat herritar batu ziren ekimen-nera. Kopuru horri baserritarrek egindako harrera gehitu behar zaio. Antolatzaileek eta parte hartzaileek oso balorazio positiboa egin zuten eta ausartu ziren esatera hartza berriz ere esnatuko zela Elgetan. Bada, horrela izango da: otsailaren 11rako iragarri dute koko-batzea eta antolaketa lanetan hasita daude.

Iaz egin zen konpartsako pertsonaien jantziak eta materiala prestatzeko ahalegin handiena, eta aurten horiek berriz prestatu eta, ahal dela, konpartsa handitzea eta aberastea izango da helburua.

Konpartsa handitu

Hartza da pertsonaiarik garrantzitsuenak. Inguruan izaten ditu *mamarruak*, *burburixuak*, *sasi-kartia*, *masustak* eta *gorrixak*. Zuri-gorri jantzita, azken horiek gazteenak dira -20 urtera artekoak-. Aurten estreinatuko dira 2006ko kintoak.

Egun osoko koko-eskean herriko hamar bat baserritara heltzea da asmoa, eta, iaz ez bezala, aurten errepidearen beheko aldekoen txanda izango



Gorrixak eta hartza, Albitxu baserrira iaz egindako bisitan. L.Z.L.

da. Ikatzarre, Antsuategi eta Sesto baserrietan eman dute baiezkua; Olaegi auzunean ere bai. Gehiago ere batuko dira hurrengo egunetan. Iaz moduan, gosaria eta bazkaria Ozkarbi elkartearen izango dira.

HURRENGO BATZAR IREKIA HILAREN 18RAKO IRAGARRI DUTE, 19:00ETAN, OZKARBI ELKARTEAN

Prestaketa-lanak

Jostun taldea martxan da dagoeneko. Lan handia egin zuten iaz eta erronka aurten da azeri jantziak ere egitea. Horrekin batera, erakusketa prestatuko dute zeramika gelan. Aurten, herriko materialarekin osatuko dute. Asmoa da hurrengo bari- kuan zabaltzea.

Koko-eske egunean abestekoak diren koplak eta dantzatzekoak diren piezak gogora ekartzeko saioak izango dira hurrengo lau barikutan, 19:00etan.

Adeitasunezko elkar ezagutza



Baserriz baserri, iaz, Larrabilzearren. L.Z.L.

Baserriak Aurten errepidearen beste aldeko baserrietara eramango dute Aratustea kokoek. Ikatzarren hasiko dute ibilbidea. Egunotan ari dira baserritarrek in ordutegiak adosten.



Konpartsako kideak Larrabil baserri atarian, iaz. L.Z.L.

Koplak eta dantzak Ordu erdi inguru egingo du konpartsak baserri bakoitzean. Baserritarrek in egon, koplak abestu, dantzan egin eta mokadutxo bat hartzeko tartea izaten da.

Eske-errondaren funtzioa

Alboratutako ohitura bat berreskuratzeko gainera, kokoek baserritarregana egiten duten bisitak komunitatea lotzen du. Harreragile/bisitari dinamikaren bueltan gazteek ikasten dute herriaren lurraldetasuna,

ze bide dauden toki batetik bestera joateko, etxe bakoitza non dagoen eta nor bizi den bertan.

Euskararen arnagune ere izan nahi du ekimenak. Goibeko Euskara Topagunearen helburu nagusietako bat da.

Otarre ederra etxera!

Asun Arruabarrenak eraman du Beheko kaleko jai batzordeak Gabonetarako antolatutako zozketako saria. Otarre eder bat irabazi du, eta jaso du dagoeneko. Errege egunean egin zuten zenbaki saritua erabakitze zozketa; 525a izan da. Egunean bertan aurkeztu zuen txartela Arruabarrenak. Jai batzordeko ordezkariak denon parte hartzea eskertu dute.



BEHEKO KALEKO JAI BATZORDEA

Javier Yanguas gerontologoaren hitzaldia hilaren 18an

Eguaztenean, hilak 18, zahartzaro berri baterako urratsen gaineko hitzaldia egingo du Javier Yanguas gerontologoak Elgetan. Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta, herrian izango da beste kargu askoren artean Eibarko Egogain egoitzako langilea eta Matia Fundazioan zuzendaritzako kide izandako ikertzailea. Hitzaldia 18:00etan

izango da, udaletxeko areto nagusian. Parte hartze zabala eskatu dute Xalbadorpe elkartetik. Hizkuntza hitzaldira bertaratzen diren entzuleen arabera izango dela jakinarazi dute.

Bestalde, hurrengo podologia kontsulta hilaren 23an izango dela ohartarazi dute, astelehen. Podologoak kultura etxeko bigarren solairuan artatuko ditu pazienteak, 15:00etan hasita. Interesatuak deitu egin behar dute txanda eskatzeko: 669 99 81 65 (Maite Elkoro).

'Pumptrack'-a egiteko gunea prestatzen hasiak

Zirkuitua egin aurretik, lursaila prestatu eta lautu egin behar da, eta lehengo gaztetxe parean hasita dago lur mugimendua. Ez dago jakiterik 'pumptrack'-a noiz egongo den erabilgarri; eremuaren neurri zehatzak ezagututakoan hasiko dira diseinu lanak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA
Pumptrack pistak bihurgune peraltatuekin, muinoekin eta jauziekin osatutako zirkuitu itxiak dira, non erabiltzaileak igoeren eta jaitsieren inertziak baliatzen diren bizikletaren pedalei eman gabe mugitzeko eta, patinen eta patineteen kasuan, oinekin bultza egin gabe aurre-eragiteko.

Elgetako Udalak *pumptrack*-gune bat egin nahi du lehengo gaztetxe parean dagoen lursailan, eta egunotan abiarazi dituzte espazioa egokitzeko lehen lanak. "Lautada bat egin behar da. Aurreikusten dugu 500 bat metro karratuko espazioa geldituko zaigula", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak.

Elgetako Excavaciones Egoarbitza ari da lehen faseko lanak egiten. Lazkanok azaldu du bi lan ari direla egiten aldi berean: "Aixolako bidea jaitsi egin dugu pixka bat, eta lehengo gaztetxe inguruan gaizki zeuden hormigoizko eremu batzuk konpontzen ari gara. Horrekin batera, *pumptrack*-ak hartuko duen lursaila prestatzen ari gara".

Lur mugimendu handia izan da inguru horretan eta *pumptrack* gunea egin ahal izateko hormigoizko horma bat altxatzeko lanak ere hasita daude. "Lehen

ESPAZIOAREN NEURRI ZEHATZAK BEHAR DIRA ZIRKUITUAREN DISEINU LANEKIN HASTEKO

faseko lanen aurrekontua 25.000 eurokoa da. Ondoren etorriko dira *pumptrack*-gunea diseinatzeko eta eraikitze lanak". 40.000 euroko diru-lerroa aurreikusi du Udalak 2023ko aurrekontuan.



Pumptrack gunearendako hormigoizko horma egiteko lanak gaztetxe parean. L.Z.L.

Gunea diseinatzeko lanak
Oraingoz, ez dago jakiterik *pumptrack*-a noiz egongo den erabilgarri. "Diseinu zirriborro bat dago eginda. Ez da behin betikoa. Lursaila lautu eta neurketak egin ostean jarriko gara horretan".

Lazkanok azaldu du berdegunez inguratutako zementuzko erretegi bat edukiko duela *pumptrack*-ak, eta hasita daudela aditu batekin aztertzen nola optimizatu daitekeen dagoen espazioa ahalik eta *pumptrack*-gune erabilgarriena egiteko.



ANTOLATZAILEAK

Urteroko igoera Intxortara

Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, Elgetako, Bergarako, Arrasateko eta Elorrioko 50 bat lagun elkartu ziren domekan Intxortan. *Ez dugu izaterik aske haiek gabe* lelopean egindako ekitaldian, hitzartzea, iragane eta gaur egungo egoeraren analisi politikoa eta talde argazkia egin zituzten. Hotzari aurre egiteko, salda banatu zuten.



IDOIA ARANBARRI

Laguntasuna irabazle

Herriko neska-mutikoendako urteroko hitzordu bilakatu da Errege eguneko pilota jokoa. Aurten ere mordoxka batek hartu du parte eta eskuz, palaz zein erraketaz aritu ziren Etor Garatek eta Ibai Etxanizek gidatutako pilota jokoa. Goiz-pasa ederra egin zuten, nork bere onena emanez. Gurasoren bat edo beste ere animatu zen.

Bizikletak garbitzeko gune berritua

Kantxan sare berria gehitzearekin batera, bizikleta-gunea berritu du Udalak. "Urak jasotzeko sistema berria jarri da, kutxa batean dago orain mangera, bizikletak konpontzeko hainbat erreminta jarri dira eta espaloian traban ez egoteko bizikletei eusteko espazio bat dago. Panela aldatzea falta da. Aurrekontua 5.500 euro ingurukoa izan da".



Bizikleta-gune berritua; udal brigadak egin ditu lan gehienak. L.Z.L.

Urteko batzarra deitu du Kantsatzekek eguaztenerako

Batzarra 20:00etan hasiko da, kultura etxeko bigarren solairuan. Ordubete lehenago eta leku berean bazkide egiteko eta federatu txartela ateratzeko aukera izango dute interesatuak. Urtarrileko martitzen guztietan izango dira Kantsatzeke Mendi Taldeko ordezkariak bulegoan tramitazio horiek egiten laguntzeko, 19:00etatik 20:00etara.

Plaza bat dago libre oinarritzko Internet ikastarorako

Hogei orduko ikastaroa izango da. Eguaztenean hasi eta hilaren 31ra arte iraungo du. Oinarritzko mailakoa izango da eta interesatuak ikasiko dute ordenagailua eta posta elektronikoa erabiltzen eta sarean nabigatzen. KZgunean dauden ordenagailuak erabiliko dituzte. Astelehenera arte dago zabalik izen-ematea, liburutegian.

Jarraipena izango du Esperientzia Gelak

Urritik abendura bitartean egindako hitzorduek harrera ona izan dute eta dagoeneko aurreratu dituzte hurrengo hizlarien izenak: Joseba Sarrionandia, Garazi Hach Embarek eta Felix Zubia. Hitzaldien aurretik gosari-tertuliak egiten jarraituko dute

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Urrian hasi zuen ibilbidea Oñatiko Esperientzia Gelak, Goienagusirekin batera, eta lehen hiruhilekoak izan duen erantzun ona ikusita jarraipena izango duela jakinarazi dute bai Goienagusiko bazkideek baita Udalak ere. "Balorazioa oso ona da. Antolatu dituzten hitzaldien maila, adibidez, oso handia izan da, batetik. Bestetik, hitzorduen aurretik egoten den gosari-tertuliak bere garrantzia eta pisua duela pentsatzen jarraitzen dugu, joaten direnen arteko harremanak sortzeko, eta horri ere eutsiko diogu", esan du alkateak, Izaro Elorzak.


Santa Anan dira hitzaldiak

Egitasmoak Oñatin arrakasta izan duela gaineratu du Goienagusiko presidentek, Rosa Urretak: "Egun, 218 bat bazkide gara eta horietatik hamazazpi inguru dira oñatiarrak. Baina hasieran lauzpabost besterik ez



PEDRO LOPEZ
GOIENAGUSIKO BAZKIDEA

"Oñatin egindako argazkigintza tailerrean hartu nuen parte, eta, egun, lehen baino argazki hobeak ateratzen ditut. Asko ikasi nuen. Giro ona izan genuen, eta, nahiz eta bakoitzaren eskuko telefonoa ezberdina izan, irakasleak ondo azaldu zigun denoi, pazientzia handiarekin".



FELI ZUMALDE
GOIENAGUSIKO BAZKIDEA

"Orain arte egindakoa jarraitu dut eta proiektu oso ona iruditzen zait Esperientzia Gela. Gaur eman dut izena Goienagusin eta badut asmoa aurrerantzeko hitzorduetara joateko; ahal izanez gero, baita Arrasatera eta Bergarara ere. Harreman berriak egiteko modu ona da".



Jesus Maria Ugarte, Rosa Urreta eta Izaro Elorza, eguazteneko aurkezpenean. A.D.

ziren; beraz, interesa badagoela ikusten dugu". Lehen hiruhilekoan egindako hitzorduetan, Angel Chamorro neurologo oñatiarrak iktusari buruz egindako hitzaldia izan da jendetsuena. "Bete egin zen Santa Ana, eta online ere beste 53 lagunek jarraitu zuten", Goienagusiko bazkide Jesus Mari Ugartek adierazi duenez.

Bigarren hiruhilekoan, Joseba Sarrionandia, Garazi Hach Embarek eta Felix Zubia etorriko dira, besteak beste. "Baina tailerrak eta irteerak ere egingo ditugu, eta nik hor jarri gurako nuke indarra, harremanak sortzeko espazio egokiak dira eta", nabarmendu du Urretak.

Telefonoan egitaraua

Bazkideen kuota da Goienagusiren sostengu nagusia. 80

euro da ikasturte osoko kuota, baina urtariletik aurrerakoa bakarrik ere ordaindu daiteke; 56 euro da hori. Oñatikoak doan izango dira herriarrendako, baina Arrasaten eta Bergaran egiten diren hitzaldietara bazkideak bakarrik joan ahal izango dira; irteeretara, esaterako, bazkide ez den lagun batekin ere joan ahal izango dira. Sarean, www.goienagusi.eus helbidean du Goienagusik jarritako informazio guztia, zer, non eta noiz. Oñatiko Udalak, baina, banaketa-zerrenda bat egin du, gura duenak eskuko telefonoan zuzenean jaso dezan Goienagusiren eskaintza hori. Horretarako, *whatsapp* mezua bidali behar da, *alta* hitza idatzita, telefono zenbaki honetara: 688 74 49 32.

Arreta sozio-sanitarioko eskolak emango dituzte

Arreta soziosanitario arloko prestakuntza ikastaroa antolatuko du Oñatiko Udalak, Elkarzabal Integrazioarako Elkartarekin, Bidebarri laneratze enpresarekin eta Bastida akademiarekin elkarlanean. 450 orduko ikastaro teoriko-praktikoa izango da eta hori gaundituta profesionaltasun ziurtagiri ofiziala jasoko dute ikasleek.

Urtarrilaren 23an hasi eta uztailean are izango da. Eskolak Zubillagako Olaburu zentroan emango dira eta praktikak eskualdeko egoitza eta gizarte erakundeetan lotzen saiatuko dira. 17an bilera egingo dute, Olaburun, eta han eman daiteke izena. Informazioa: 943-00 31 98.

532.000 euro jaso ditu Udalak Europatik, Natur Eskolagatik

Oñatiko Udalak 532.000 euroko laguntza jaso du Europar Batasuneko Next Generation funtsetik. Eraikin publikoen birgaitze iraunkorrari loturiko programaren dirulaguntza deialdian aurkeztu zuen Udalak Natur Eskolaren proiektua, eta, 2022ko abenduan horri dagokion hasierako ebazpena jaso ondoren, urtarilean heldu da berrespena, Udalak aditzera eman duenez. "Ahalegin berezia egin dugu Europar Batasuneko Next Generation funtsetik eratorritako dirulaguntzei begira. Ekarpene esanguratsua jaso dugu, birgaitzearen nolokotasunaren aitor-tza modura ere uler daitekeena", dio Izaro Elorza alkateak.

OHARRAK

Odol emate eguna

Gaur, egubakoitza, da urteko lehen odol emate eguna. 16:30etik 20:30era, Enpresagintza Fakultatean. Goizean aurrez deituta hartu behar da ordua: 943-00 78 84.

Emakumeen Etxeaz

Hilaren 21ean bilera irekia egongo da Emakumeen Etxeak izan ditzakeen itxura, edukiera eta funtzionamenduari buruzko iritzia partekatzeko. Eltzian izango da, 11:00etan.

Lanak esleitzeko epea

Goribarko biribilguneko lanak egiteko proposamenak Aldundian aurkezteko azken eguna gaur da.

GORA ETA BEHERA



Plazako horma batean egindako pintaketa

"Pintaketaren egileari ez dio balio nagusien iraganak, ezta orainak ere. Argi dago guri ere ez zaigula gustatzen haren gizalegearen kontrako jokaera eta inoren hormak margotzen gaizki hezia", dio plazako paretan egindako pintaketari ateratako argazkiarekin bidalitako mezuak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Herriko ehun soziala, webgunean jasota

Herriko talde eta eragileak bildu eta bistaratzen dituen mapa bizia da, harremanak eta ekintzak jaso gura dituen ekintza komunitarioaren barruan kokatzen dena. Lanketa horrek jarraipena izango du, eragileen arlokako bilera irekietan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Elkarrekintza sustatu eta ekintza komunitarioa indartzera begirako plataforma digitala aurkeztu du astean Oñatiko Udalak. Herriko esparru, eragile eta ekimenak ikusarazteko, hausnartzeko eta elkarrekin sartzeko "tresna kolektibo eta kolaboratiboa" da www.oñatiekintzakomunitarioa.eus webgunea eta lehen errondan ehun soziala osatzen duten antolatutako eragileak igo dituzte mapa horretara.

Mapa bizia da

Oraingoan, 102 eragileren datuak bildu dituzte mapan. "Mapa bizia da eta berriak etorriko eta sartuko dira. Edonork du aukera, edozein unetan, mapan sartzeko", dio Anik Zubizarretak, Oñatiko Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioko batzordeburua.

Oñatiko ehun soziala osatzen duten herriko taldeen, elkarrekin kolektiboen eta eragileen topaleku izan eta haien arteko elkarrekintza sustatzea helburu duen egitasmoa ipini zuen martxan Oñatiko Udalak 2020an. Lanke-ta horren ostean sortu da web plataforma, elkarte, kolektibo eta eragile horiek elkarren berri izateko tresna moduan. "Zabal-



Onintza Andres eta Anik Zubizarreta, webgunearen aurkezpenean. MIREIA BIKUÑA

du eta bistaratu, jakiteko elkarrekin badaudela, zertan ari diren, nortzuk diren, non dauden... Ikuspuntu orokorra eskaintzen du mapak, herrian zer dagoen eta zer mugitzen den ikusteko. Egungo eta egon ahal den sarea ikusteko aukera bat da".

'Aulkiak-2' saioak, arloka

Guztien eskura dagoen web plataformaz harago, *Aulkiak* delako topaketaren bigarren saioak egingo ditu Udalak. Iazko azaroan egindako lehen topaketaren emaitzaren ondotik, arloka bil-

duko dira eragileak, eta elkarrekin dituzten harremanak eta elkarlanerako aukerak jorratu dituzte. "Lehenengo saioa orokorra izan zen, hurbilpen bat, eta orain iruditu zaigu aberasgarria izango dela sektoreka egitea, eurek konpartitzen dutena azaleratzeko. Datu horiek baliagarriak dira, lanketarako kontuan hartzekoak". Hilaren 17an eta 18an eragile sozialak batuko dira; 24an, kultura eta hezkuntzakoak; eta 25ean, kirol eta ingurumen arlokoak. Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.

Jabetze Eskolako kurtsoetarako izen ematea zabalik dago

Ikastaroez gain, hitzaldiak, antzezlanak eta Zinegoak ekimeneko film laburra ere eskainiko dituzte

O.E.G. OÑATI

Emakumeentzako Jabetze Eskolako udaberriko egitaraua kaleratu du Udaleko Berdintasun Sailak. Bederatzi ikastaro, bi hitzaldi, beste hiru antzezlan eta film laburren emanaldia jasotzen ditu, adibidez. Ikastaroez gain, baina, izena eman behar da aurretik, udal webgunean sartuta, eta horretarako epea hilaren 23a arte dago zabalik. Gainerako ekitaldiak herriar guztiendako dira.

Generoari, umoreari eta emozioei buruzko ikastaro bat egon-

go da, adibidez; baita yoga ikastaroa ere. Bi horiekin batera, udazkeneko eskaintzan erantzun ona izan duen eta udaberrikoan jarraipena izango duen gizonak feminismora begira jartzeko ikastaroa izango da luzeena, hogeitaz orduren bueltakoa. Hilekoari, menopausiari edo indarkeria obstetrikoki buruzkoak laburrak izango dira, hiruzpalau ordukoak. Horiez gain, irakurle taldearen saioa ere egongo da, baita artearen historia beste modu batera begiratzeko saioa ere, esaterako.

Lan-saioak egingo ditu EH Bilduk, "ekintza-plana marrazteko"

Koalizioaren lokalean izango dira lan-saioak, astelehenean hasita, eta gaika egingo dituzte

O.E.G. OÑATI

"Herri proiektua indartzeko eta doitzeko" prozesuarekin jarraitzen du EH Bilduk eta lan-saio irekiak egingo ditu urtarrean eta otsailen, "ekintza-plana marrazteko". Saio horien helburua izango da "diagnostikoa oinarri hartuta ekintza-planerako erronkak identifikatzen hastea". Koalizioaren bilgunean izango dira saioak, Kale Barrian, eta herriar guztiendako izango dira.

Saio bakoitzean gai bat jorratuko dute. Adibidez, urtarriaren 16an, hurrengo astelehenean,

izango da lehen jardunaldia eta kultura izango dute hizpide. Otsailaren 1era bitartean, berdintasuna, kirola, sozioekonomia, euskara, lurralde antolaketa, hezkuntza eta gazteria landuko dituzte.

Joan den maiatzean abiatu zuen prozesua EH Bilduk. Azarora bitartean, aurreko urteetako balantzea eta diagnostikoa egin zuen, eta orduan hori aurkeztu herri batzarrean, ekarpen gehiago jasotzeko tailerrarekin batera. Orain, gaiak jorratzeko lan-saio irekiak egingo ditu.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei
erantzuteko prest!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

Lehen itzulia hobetzeko helburuarekin lehiatzera

Denboraldiaren erdira iritsira, zazpigarrena da sailkapenean saskibaloiko senior taldea. Zapatuan (18:00) Zubikoan urteko bigarren garaipena jarraian eskuratu nahi dute Aloñakoek, Inter de Mitente sailkapenean hirugarren dagoen taldearen aurka

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Hogeita bost puntuko aldearekin hartu zuen mendean Saski Axular Aloña Mendiko saskibaloiko talde nagusiak joan den zapatuan jokatu zen neurketan; urteari hasiera ona emateko modu borobila. Era berean, lehen itzulia amaitu dute Aloñakoek: zazpigarren postuan daude, jokatu diren hamabi jardunalditan sei garaipen eta sei porrot izan ostean.

Denboraldi hasieran GOIENA-rekin egon zenean, sailkapenaren goialdean izateko intentzioarekin zeudela adierazi zuen Aitor Ugartek. Egoera, ordea, bestelakoa da, nahiz eta hasiera zaila izan zuten. Gorabeherak gaitortuta taldea momentu onean ikusten du prestatzaile oñatiarrak: "Urte hasiera zaila izan genuen, aurkari zailak, lanegunetan jokatu beharreko partidua eta lesioak batu ziren. Behin arazo horiek guztiak alde batera utzita talde momentu onean dagoela uste dut, eta espero dut, lesioak errespetatuz gero, taldeak berezkoa duen maila erakustea kantxan". Horretarako aukera zapatuan bertan izango dute, arratsaldeko seietan hasita, Inter de Mitente hirugarren sailkatuaren aurka.

Orain artekoaren balorazioa

Sailkapenaren erdialdean kokatuta amaitu dute Ugarteren jokalariek, lehen hamabi partidua jokatu ostean goialdea zein behealde hiru puntura dutela. Aloña Mendiko entrenatzaileak, berriz, ez dio sailkapenari begiratu nahi: "Zazpigarren goaz, bai, baina, egia esan, ez diot sailkapenari apeas begiratu, txapelketa oso lehiakorra eta luzea baita". Bestalde, aitortu du punturen bat edo beste gehiago poltsikoan izatea gustatuko litzaiokeela. "Egia da garaipen gehiago izatea gustatuko litzaidakeela,



Saskibaloiko taldekoak, azken neurketa irabazi ostean. ALOÑA MENDI SASKIBALOIA

"DENBORALDIA AMAITU BITARTEAN TALDEAK HOBETZEKO TARTEA DUELA IRUDITZEN ZAIT"

neurketa batzuek alde txikiarengatik egin digutelako ihes", azpimarratu du Aitor Ugartek.

Badira hobetu beharrekoak

Sei garaipen eta sei porrot; hori da orain arte erdietsitakoa. Taldean argi dute lehen itzulian lortutakoaren ostean bigarrenaren hobetzeko nahia dutela, eta horretara kantxaratuko dira zapatu honetatik hasita. Zenbaki horiek hobetu eta liga amaieran goian egoteko aukerak izateko, ordea, badira hobetu beharrekoak, eta horiek zeintzuk diren argi ditu Aitor Ugartek: "Hobetzeko artean, adibidez, partidetan izaten dugun kontzentrazio maila. Horren erruz aurkari erraztasun handiak ematen dizkiegu askotan, eta puntuak oparitu; beraz, arreta handiago jarri behar dugula uste dut akats horiek gutxitzeko".

Bigarren itzuliko helburuak

Zapatuan hasiko da Gipuzkoako Seniorren lehen mailako bigarren itzulia eta Aloña Mendiko sasoi betean iritsiko da. Azken hiru neurketak irabazi dituzte, arazo fisikoak ere ahaztu dituzte eta goranzko joeran sartuta dago senior mailako taldea. Aurrean, ordea, ez dute aurkari erraza izango, sailkapeneko hirugarrena den Inter de Mitente taldea izango da eta bisitari Zubikoan. Lehen itzulian galdu egin zuten Donostian jokaturako norgehiagokan, baina orain gauzak aldatu egin dira eta baikor da Aitor Ugartek: "Bigarren itzulia hastera doa eta laugarren postua partida bakarrera daukagu. Gainera, iruditzen zait denboraldia amaitu bitartean taldeak hobetzeko tarte duela oraindik".

Hamabi partidua ditu Aloña Mendik aurrerapausoa emateko eta urte hasieran zuten helburua lortzeko. Horri buruz galdetuta, igoerari buruz, hain zuzen, zapatuari bakarrik begiratzen dio. "Partiduz partidua joango gara eta txapelketak berak esango digu lauko finalerako prest gauden edo ez", dio Ugartek.

Oñati da protagonista Ibon Martinen azken liburuan

'El ladrón de rostros' nobela beltzak Oñati du abiapuntu; gaur (19:00) aurkeztuko du, Santa Ana antzokian

I.B.K.OÑATI

Ibon Martin idazle donostiarrak astean argitaratu du *El ladrón de rostros* nobela beltza, haren azken lana. Aurreko liburuak kostaldean kokatu zituen Martinek, baina oraingoan, Oñatin gertatutako hilketa bat izango da nobelaren abiapuntua. Gaur iluntzean, Santa Ana antzokian (19:00), noblearen aurkezpena egingo du idazleak berak.

Aurkezpena interesatzen zaion irakurle orori dago zabalik, eta herriko liburu-denda guztiek gonbidapena jaso dute bertan egoteko; hala, behin saioa amaitutakoan, bertaratzen diren guztiek liburuaren erosteko aukera izango dute. Idazleak, gainera, liburuak sinatuko ditu aurkezpena bukatutakoan; aukera ezin hobe, horrenbestez, Ibon Martin bertatik bertara ezagutzeko.



Ibon Martin, liburuarekin. IBON MARTIN

Elkarriketa 'Puntua'-n

Oñatin kokaturako istorioa izanik, Goienak donostiarrak elkarriketatzeko aprobetxatu dute eta solasaldi hori irakurtzeko aukera egongo da gaur banatu den *Puntua* aldizkariaren zenbaki berrian.

Martxan dira 2023ko Inauterietako dantzen entseguak

Otsailaren 18an ospatuko dira aurten Oñatin Inauteriak, eta, hain zuzen, Oñatiko Inauteri Taldekoak hasiak dira jada presaketetan. Urtero bezala, herriko kaleak kolorez eta dantzez beteko dira egun horretan; 16 urtetik gorako herritar guztiak daude gonbidatuta izena ematera eta festa horretan parte hartzera.

Rudiger taldea izango da domeka eguerdia gaztelekuan

Matinee kontzertuen denboraldiak aurrera jarraitzen du eta domekan Rudiger taldearen txanda izango da (12:30), gaztelekuko oholtza gainean.

Willis Drummond taldeko bateria-jole Felix Buff-en proiektua da Rudiger. Baketak albo batera utzi eta gitarra soinean hartuta, brit-pop, folk, psikodelia eta indie doinuak nahasten dituen

Aldez aurretik dantzak eta abestiak ikasi beharra dago, eta martitzenean ekin zioten entseguak, Eltzian –entsegu guztiak izango dira bertan–. Hain zuzen ere, otsailaren 18a iritsi bitartean, martitzenetan (20:00) eta zapatuetan (12:00) izango dira entseguak.

Aurtengoan, gainera, dantza bat eta kantu bat estreinatuko dituzte egun horretan. Hori dela eta, entseguetara joateko garrantzia azpimarratu nahi izan dute antolatzaileek.

Before It's Vanished lana argitaratu zuen 2020an eta hori aurkeztura etorriko da.

Aurretik ere izana da Oñatin, Antixena gaztetxean egin zuen eta proiektu horren lehen zuzeneko. Orduan, bikote formatuan etorri zen; oraingoan, talde osoarekin izango da, Joseba Irazoki, Vincent Bestaven, Antonie Philippe eta Mikel Santxez alboan dituela. Sarrera sei euro da –gehi gastuak–; salgai daude Txokolateixan eta Udalaren webgunean.



FINALA



AIERT ARRAGOA THE CLAYTON +

Artista gonbidatua: **DJ Gela**

Bergarako Seminarixoa | **Urtarrilaren 13an, egubakoitza** | 21:30

Chill out gunea, 20:00etatik aurrera, San Martin plazan (Errege Seminarioaren arkupeetan), DOAN
Sarrera arrunta **4€** • *Goiena* app-ean alta ematen dutenek **2€** • Goienakideek, *Goiena* txartela erakutsita **0€**

BABESLEAK

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbideetza, Gasteia
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deporte



LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



"Dortsala janzteak? Ondo egotea da lehentasuna"

BEÑAT ARNAIZ TRIATLETA

TRIATLOIA Aretxabaletakoa iazko urtarrilean kutsatu zen COVID-19arekin, eta ordutik burua altxa ezinik ibili da. COVID iraunkorra du, baina hasi da hobekuntzak sumatzen



Beñat Arnaiz, atzean Oñatiko duatloia irabazi zueneko irudi bat duela (2017). X.U.

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Beñat Arnaiz (Aretxabaleta, 1980) amateur mailako kirolarien artean bailarako erreferentetako bat izan da azken hamarkada luzean. Duatloi eta triatloi lasterketak irabazi ditu, eta taldeka Espainiako txapeldun izan da. Azken urtean, baina, ezin izan du kirolik egin, ezta bizimodu normalik ere. Medikuek askorekin izan da, eta ehunka proba egin dizkiote: COVID iraunkorra du. Azken bi hilabeteetan, baina, Zumaiako mediku talde baten babesarekin aurrerapausoak ematen dabil. Horregatik animatu da elkarrikeria egitera, hobeto dagoelako.

Duela pare bat hilabete ez genukeen elkarrikeria hau egingo...

Ez, ez nengoelako ondo, eta aldarke negatiboan egonda ez nuelako ekarpen handirik egin behar. Azken hilabete hauetan, baina, egon dira mugarri batzuk, geroago eta hobeto nagoela ikusten dut, banabil errekupe-ratzen, nahiz eta oraindik ez dudan bizitza normalik egiten. Egunean zehar, behintzat, beste gorputzaldi bat daukat; horretaz jabetzen naiz, eta ez da gutxi.

Hain justu, duela urtebete kutsatu zinen koronabirusarekin.

Bai, 2022ko urtarrilean. Donostiara joan ginen etxekoekin asteburu-pasa, eta handik bueltan [domeka iluntzea zen], Garazi [Mendizabal] emazteari komentatu nion ez nengoela ondo. Hor hasi zen dena. Hasieran, etxeratuta egon nintzen, hori tokatzen zen, baina gero, konturatu nintzen ez nintzela ondo errekupe-ratu. Pneumonia izan nuen eta gainditu egin nuela uste nuenean lanean hasi nintzen. Baina egun amaierara batera gabe iristen nintzen eta gauetan ezin nuen atsedenik hartu: oxigeno maila oso baxu, gorputza leher eginda...

Maiatzean, koronabirusak utzitako bost istorio kontatu zituzten Puntua aldizkarian; zurea zen horietako bat.

Denbora luzea pasa da eta hilabete askotan gaizki egon naiz, gorabehera handiekin. Medikuek mediku ibili naiz, erantzun bila, eta denek esaten zidaten pazientzia izan behar nuela. Baina pertsona aktiboa izan zare-

"GORPUTZALDI HOBEAREKIN IRISTEN NAIZ EGUNAREN AMAIERARA, HOBETZEN NABIL"

nean... Pazientzia ere agortu egiten da.

Oso kirol maila ona izatetik, egunari aurre egin ezin izatera.

Pentsa, urtarrilean maratonia prestatzen nentzen; esango nuke 41 urterekin inoizko sasoi onenean nengoela [2021eko azaroan, esaterako, Behobia-Donostian 1.06ko marka egin zuen eta hilabete batzuk lehenago, Oñatiko duatloian bigarren izan zen] eta handik aste gutxira ohetik sofara joateko larri nentzen. Pasatu ez duenak ez daki zer-nolako sentsazioa den, baina etxean eskailerak ditugu, eta horiek igotzea maratoni bat egitea bezala zen, ez sinistekoa. Halakoetan, gorputza ez dago ondo, baina buruak ere buelta asko ematen ditu. Eta laguntza eskatu behar da, normaltasunarekin.

Diozu gauari beldurra hartu diozula...

Bai, eta momentu hori izugarri gustatzen zitzaidan, gainera... Egunaren amaiera, lasai egoteko momentua... Bada, orain ez dut gaua iristeko inongo presarik izaten. Lehortuta zaudete, lasai egon eta atseden hartu nahi duzu, baina ezin. Gaueko orduak amaiezina egiten zaizkit. Poliki-poliki, geroago eta hobeto nago, baina etxekook

dakigu zer pasa dugun. Buel-tatuko naiz berriz ere gauetz disfrutatzen.

Dortsala janzteak faltan igarri duzu?

Bai, baina gutxienekoa izan da; uste dut hori ondo eraman dudala. Azken batean, beti esan izan dut kirola niretako oso garrantzitsua dela, lasterketetan bizitzen dudana, lehia hori... Nire bizitzaren parte garrantzitsua izan da eta familian ere halaxe bizi izan dugu, baina nik neuk ondo egon gura dut, normaltasunera bueltatu, gauza txikiak egin ahal izan.

Baduzu egoera beretik pasatzen dabilen lagun bat; iritzi artikulua batean ondo jaso du gaixotasun horrekin sentitzen dena.

Bai, Mutrikuko lagun bat da, eta Naiz-en idatzi zuen iritzi artikulua [3.780 metro, Unai Belaustegi historialariak idatzia]. Oso ondo erakusten du zer pasa duen, eta artikulua irakurri nuenean ispilua aurrean jartzea bezala izan zen. Askok lagundu diogu elkarri.

"MARATONIA ONDO PRESTATZEN IBILTZETIK SOFARA JUSTUAN IRISTERA PASA NINTZEN"

Egon zara egoera beretik pasatzen dabilzanekin? Izan ere, ez zara egoera horretan dagoen bakarra...

Bai, eta horrek hasieran asko laguntzen du, baina horretaz ere nekatu egiten zara. Bukle horretatik irteten nahi duzu, baina kalera irteten zarenean ere jendeak gauza berberaren gainean galdetzen dizu. Azkenean, konturatu barik, isolatu egiten zara. Lasai egotea da nahi duzun gauza bakarra, eta "Beñat, zer moduz?" galderari etengabe erantzuten ibili behar ez izatea; beste barik, lagunekin gauza arruntez berba egitea.

Zer aldatu da orain hobeto egoteko?

Ez dakit erantzuten, tratamendua den, denbora aurrera doala eta tokatzen zela hobeto sentitzen hasia... Baina Zumaiako mediku talde batekin nabil lanean, eta oso-oso eskertuta nago. Harreman pertsonala egin dugu, egunero egoten gara kontaktuan; pentsa, WhatsApp talde bat ere egin dugu. Halako tratua ere asko balio du.

2023an jantziko dugu dortsalik?

Lehenago edo geroago, jantzi-ko dut; ez dakit 2023an izango den. Baina lehentasuna ondo egotea da, ez dut gehiagorik eskatzen.

Gipuzkoako txapeldunak

TXIRRINDULARITZA

Domeka goizean egin zuten Gipuzkoako ziklo-kros txapelketa, Ormaiztegin. Aimar Erostarbek eta Markel Uriartek euren mailetakoko goiko postuetan sailkatzea lortu zuten, eta Gipuzkoako lehen postua lortu zuten biek ere.

Erostarbek 23 urtez azpiko mailan lortu zuen Gipuzkoako txapela eta Uriarte master 30 kategorian nabarmendu zen.



GIPUZKOAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA.

Seminarixoa sutzeko asmoz

Oñatiko Aiert Alberdi bakarlariak eta Bergarako Arragoa eta Aramaioko The Clayton taldeek osatzen dute gaur Seminarixoa 21:30ean hasita izango den bosgarren Danbakaren finalisten zerrenda, eta Murtziako DJ Gela izango da artista gonbidatua

Aitziber Aranburuzabala Juldain
BERGARA

Urriaren 14an abiatu zuen Goiena Komunikazio Taldeak, Bergarako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lan-kidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuaren eta Sein taldearen babesletza eta laguntzarekin, bosgarren Danbaka Musika Lehiaketa. Debagoieneko ia herri guztietako ordezkariak taularen gainera igotzeko aukeraturakoen zerrendan. Musikari ezagunak eta hasiberriak elkarrekin urtarrilaren 13an helmugara heltzeko irteera puntuan.

Hogei formazio, bost kontzertu
Musika-dastaketa moduko bat izan da kontzertu bakoitza. Zapora ezberdineko lau plater bakoitzean. Gozoak, gaziak, garratzak, pikanteak edo zorrotzak

aukeran, baina elkarrekin "egubakoitzetarako primerako proposamenak" osatuta. Hala adierazi dute emanaldietara joan diren ikus-entzuleek; publiko zabala batu da Seminarixoa, adinari eta musika zaletasunari begiratuta.

Musikariek "asko eskertu" dute Danbakak eskainitako erakusleioa eta mimoz prestatutako zuzenekoak egiteko lan egin dute, orokorrean, guztiek, agertokian ondo erakutsita.

Hogetik hiru finalean

"Aniztasuna izan da jokaturako bost kanporaketen ezaugarria eta finalak ere hala izan behar zuen", dio Julen Narbaizak, Kristina Markinak, Aitor Aldanondok, Iñigo Ugartek eta Nerea Loron *La Furia*-k osatu duten epai-mahaiak, eta zera gainera-

tu: "Aukeratutako hiru proiektuek –Aiert bakarlaria, Bergarako Arragoa taldea eta The Clayton Aramaioko boskotea– bestelako emanaldi bat eskainiko dute gaur; hiru estilo, hiru osaera eta musika ulertzeko hiru modu ordezkatzan dituzte, Danbaka Musika Lehiaketaren bosgarren edizioa berezitu duen aniztasunaren adierazle".

Azaroaren 11n izan zen Aiert bakarlariari buruz zera adierazi dute epaimahaikideek: "Ikusleak gozarazi zituen ahots be-

netan pertsonalarekin eta abesti hunkigarriekin. Gitarra lagun, erakutsi du badakiela agertokia ziurtasunez eta irmotasunez zapaltzen. Ibilbide oparoa aurreikus dakioke". Azkeneko kanporaketan, abenduaren 16an, izan ziren Bergarakoak. "Bi familia, bi belaunaldi eta *musika* letra larriz idatzita. Kalitatea, prisma guztietatik begiratuta, eta heltzeko gaitasuna. Hori guztia Arragoa definitzeko, folk abestien errepertorioa bikain aukeratu eta ezin hobeto gauzatu ostean. Gorputz handiko eta arima sakoneko emanaldia egin zuten". Aramaioarrak, berriaz, lehenekotarikoak izan ziren euren proposamena aurkezten. "Edizio honetako zuzeneko one-na egin dute. Jarrera, teknika eta kantu landuak. Bailaran ohikoak diren distortsio indartsuetatik aldenduta, rock-and-rollaren erraitetara jo dute aramaiorrek".

"Sorpresa" finalistendako

Kanporaketetan baino saio luzeagoak eskainiko dituzte lehia-

kideek, 45 minutukoak. Ezustekoa izan da finalerako txartela eskuratzea hiru aukeratuen-dako. "Abesti gehiago jotzeko aukera izango dut eta ez dut zerrenda iragarriko, baina kontzertuan zehar ikus-entzulea toki askotara eramaten saiatuko naizela agintzen dut", dio Aiert Alberdik. Beste ildo bati heltzeko asmoa dutela adierazi dute Arragoa bergararrek: "Kontzertua beste maila batera igotzeko saiakera egingo dugu berrikuntzak eskainita eta, ahal dela, abestiak errepikatu barik". Estiloan norabide berri bat hartzeko asmoa adierazi dute The Claytonekoek: "Horregatik ez ditugu abesti zahar batzuk jo gura eta amaitu berri dugun abesti bat joko dugu Danbakan estreinatzeko".

Sarrerak leihatilan eskuragarri

Aurrez jokaturako kanporaketan moduan, finalean ere hainbat salneurri daude sarrerei dagokienez: lau euro, sarrera arrunta; *Goiena app*-a dutenentzako, bi euro; eta Goienakideentzako, dohainik.

**AIERT ALBERDI ETA
ARRAGOA ETA THE
CLAYTON TALDEAK
SARI NAGUSIA
ESKURATZEKO LEHIAN**



Hiru sari banatuko dituzte

Diskoaren irudia izango duen koadro bana jasoko dute irabazleek. Hiru sari banatuko dira gaur, gaurdian, Seminarixoa.

Sari nagusia

Epaimahaiak aukeratuko du, eta gaurko hiru proposamenetatik –Oñatiko Aiert bakarlaria, Arragoa zortzikote bergarra eta Aramaioko The Clayton boskotea– batek diskoa grabatzeko aukera izango du. Formazio irabazleak aukeratuko du, gero, non eta zeinekin grabatuko duen aurtan grabatu eta argitaratuko den kantuen bilduma.

Publikoaren saria

2.000 lagundik gora izan dira *Danbaka.eus* atarian botoa eman duten herritarrak. Irabazleari bideo-klipa grabatzeko aukera emango dio sariak.

Danbaka-Ekinez saria

Ekainaren 9an eta 10ean Bergaran egingo duten bigarren Ekinez musika jaialdian "zuzeneko oso berezia" egiteko aukera izango du hirugarren sari hori eskuratuko duen formazioak. Goienak eta Ekinez elkarteak aukeratuko dute proiektu irabazlea.

DJ Gela, musikari gonbidatua

Danbakako kanporaketa guztietan musikari gonbidatu bat izan da chill out gunean, musika akustikoari eta elektronikoari tokia egiteko. Murtziako Julia Lozano DJ Gela gonbidatu dute oraingoan. Bi saio labur egingo ditu kanpoan, 21:00etan eta 23:15ean hasita, eta saio luzeagoa egingo du Seminarixoa barruan, 00:20an hasita, epaimahaikideek irabazlea aukeratu bitartean.

Puntako jaialdietan aritua

Jaioterriko Ocio klubean abiatu zuen DJ Gelak ibilbidea, 2003an; Madrilera joan zen, hamar urte geroago, non *Madame Excuse*-rekin batera Iguana Kolektiboa sortu zuen.



Julia Lozano DJ Gela da gaurko musikari gonbidatua. DJ GELA

Harrezkero, askotariko aretoetan eta Sonar jaialdian jarri du musika, baita nazioartean ere. Izan ere, acid housea, techno beroena, brasildar erritmoekin uztartzen

ditu, bereziki, haren saioetan, baina bestelako estiloekin ere jolastuz eta publikoa dantzan jarritz, eta Danbakara bertara ere asmo horrekin doala iragarri du.



Aiert bakarlari oñatiarra.



Bergarako bi familiak osatzen duten Arragoa zortzikotea.



Aramaioko The Clayton taldea. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

"Bide ederra eginda"

Kultura eta aisialdia elkarlanean eta euskara ardatz izanda bokazioarekin abiatu zuen Goienak 2004an eskualdeko musika lehiaketa. "Bereziki musika-zalea den bailara honetan musika eszenaren edo panoramaren erakusleho izateko bokazioz jaio zen eta hainbat urtetako etenaldiaren ostean, bosgarrenak ere eskualdean musika harrobi itzela dagoela erakutsi du", dio Danbakako koordinatzaile Jokin Bereziartuak.

"Estilo askotarikotasuna" nabarmendu du Bereziartuak. "Kanporaketa bakoitzean ikusi da estilo aniztasun hori eta finalisten zerrenda horren isla da. 31 talde aurkeztu ziren eta hogeik hartu dute parte lehiaketan –hemeretzi epaimahaiak aukeratuta eta publikoak, boz-keta bidez, hogeigarrena–. Kopuruaz harago, orokorrean, formazio guztien zuzeneko kalitatea nabarmenduko nuke nik ere. Azkeneko Danbaka egin genuenetik gaur egunera sumatzen genuen formazio berri interesgarriak sortu direla eskualdean eta gure aurreikuspenak

bete egin dira. Nabarmendu nahiko nuke lehiaketaz harago, erakusleho aparta dela".

Seminarixorako gonbidapena

Kanporaketen moduan, finaleko emanaldi osoa ere grabatu egingo dute, Goiena telebistan eta *Goiena.eus* atarian eskaintzeko gero. Eguenetan eskaintzen dute telebistan, 21:00etan eta 23:00etan, eta asteburuetan ere beste hainbat alditan. Hala ere, Bereziartuak Seminarixoraino joateko gonbidapena egin du: "Gaua mundiala izango da; musikazalea zaren horrentzat, plan itzela. Batetik, emanaldi bakar batean askotariko estiloak entzuteko aukera egongo delako. Bestetik, aurreko emanaldietan moduan, areto kanpoan chill out gunea egongo delako, oraingo honetan DJ Gela artista gonbidatuak gozatua".

SARRERA ARRUNTA, LAU EURO; 'GOIENA APP'-A DUTENEK, BI EURO; GOIENAKIDEEK, DOHAINIK



Seminarixo kanpoan izan den Sanprubusak harrea ona izan du. I. S.

Sanprubusa chill out gunean

20:00etan irekiko dute San Martin plazan, Seminarixoaren kanpoaldean, chil out gunea. Jon Mujikaren eta Irene Chohanen Sanprubusak eskainiko du gaur ere ostalaritza zerbitzua eta Seminarixoaren barruan tabernatxoa jarriko dute.

Oso gutxitan mugitu izan dute taberna-autobusa Elorregitik, eta "pozik" daude Danbakaren proposamena onartzeagatik. "Esperientzia ona, ezberdina, izan da. Formatu erraza egin zaigu, nahiz eta horrenbeste jende gurean sekula izan ez dugun. Polita izan da gure ohiko bezeroekin San Martin plazan elkartzea. Hasieran, berde samar ibili ginen eraman beharreko edariak eta bestelakoak kalkulatzeko, baina geroago neurria hartu diogula esango nuke. Gaur ere saiatuko gara hurbiltzen diren guztien egarria eta gosea asetzen", azaldu du Jon Mujikak.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Baseria ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 61 39 18

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Aretxabaleta. Etxebizitza partekatu edo logela hartuko genuke errentan, bi pertsonarendako. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 89 11 93 (Sara)

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Nagusiak zaintzeko gertu nago, egunean zehar. Telefonoa: 641 29 76 24

Arrasate edo Bergara. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 632 91 89 93

Arrasate eta inguruak. Arratsalde, gauetan edota asteburuetan lan egiteko prest nago. Autoa daukat eta baita soziosanitario titulua ere. Telefonoa: 680 87 38 66

Arrasate eta inguruak. Multil arduratsua lanean hasteko gertu: nagusiak zaintzen, garbiketa lanean, zerbitzari, biltegian laguntzen. 603 04 38 52

Arrasate. 31 urteko gizonak paseoko emateko, etxean bertan bizi izaten edo orduka, zaintza lanak egiteko gertu. Eraikuntzan, ostalaritzan, garbiketa lanean eta abarrean ere bai. Autorik ez dut. 641 44 16 30

Arrasate. 32 urteko mutila prest dago taberna, jatetxe edo bestelako ostalaritza establezimendu baten jarduteko. Ostalaritza gain, adineko pertsonak zaintzen ere egingo luke lan. Telefonoa: 688 29 97 05

Arrasate. Edozein mota-tako lan bila nabilen emakumea naiz. Etxean bertan bizi izaten zein orduka. Zaintza lanak, garbiketa lanak, haurrak, ostalaritza. Esperientziarekin. 641 44 16 30

Arrasate. Emakume arduratsua orduka garbiketarako egiteko gertu. Sei urteko esperientzia daukat. Legezko agiriak eta erreferentzia onak aurkez ditzaket. 612 51 42 99

Arrasate. Goizetan zehar, orduka, nagusiak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko gertu nago. Legezko agiriak daukat. 655 46 54 32

Bergara. Esperientziadun emakumea prest garbiketa lanak edota pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 666 07 42 98 zenbakira.

Bergara. Goizetan nagusiak zaintzen eta garbiket

tan lan egingo nuke. Telefonoa: 633 49 27 40

Debagoiena. Arratsalderan nagusiak zaindu edota garbiketarako egingo nituzke. Soziosanitario titulazioarekin. 632 91 23 61

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. 602 80 15 38

Debagoiena. Atarteak garbitzen, nagusiak zaintzen edo ospitaleko zaintzan lan egingo nuke. Orduka eta baita aste bukaeretan ere. Telefonoa: 866 85 42 76

Debagoiena. Emakumea garbiketa lanetarako prest, orduka edo etxean bertan bitzen. Telefonoa: 603 77 58 82

Debagoiena. Esperientzia handia duen emakumea nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Telefonoa: 613 92 15 21

Debagoiena. Etxean eta egoitzatan nagusiak zaintzen esperientzia duen neska orduka lan egiteko gertu. Legezko agiriak eta soziosanitario titulazioa daukat. 688 68 25 83

Debagoiena. Etxez etxeko laguntza emateko gertu nago, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 682 40 53 38

Debagoiena. Gauetan edo orduka nagusiak zaintzeko gertu nago, baita ospitalean ere. Astean zehar zein asteburuetarako. Legezko agiri eta titulazioekin. Telefonoa: 602 49 39 31

Debagoiena. Gizona gertu orduka nagusiak zaintzeko eta atariak garbitzeko. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriekin. 643 73 62 36

Debagoiena. Lan egin nahi dut pertsona nagusiak zaintzen edota etxeko eta portalak garbitzen. 688 78 88 40

Debagoiena. Mutila lan egiteko gertu. Legezko agiriak egunean. 606 64 10 52

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. 672 55 67 35

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketan edota etxeko langile moduan aritzeko gertu nago, egunean zehar. Soziosanitario titulazioa eta esperientzia daukat. 641 51 13 06

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaindu eta garbitasun lanak egingo nituzke. 664 30 52 22

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaindu, kalera lagundu eta abarretarako gertu nago. Baita garbiketarako egiteko ere. Orduka, egun osoz zein asteburuetan. 631 50 02 96

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketan edota etxeko

langile moduan aritzeko gertu nago, egunean zehar. Soziosanitario titulazioa eta esperientzia daukat. 641 51 13 06

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garraioan laguntza emateko gertu nago. Baita umeak eskolara eramateko ere. Telefonoa: 695 06 36 75

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Legezko agiri eta zaintzan jarduteko ziurtagiriarekin. 666 16 95 62

Debagoiena. Neska arduratsua, legezko agiri zein soziosanitario eta etxeko langile izateko titulazioekin, arratsalderan nagusiak edota umeak zaintzeko eta denetarik garbiketarako egiteko gertu. Berehala hasteko moduan. 653 36 85 80

Debagoiena. Orduka edo gauetan nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita garbiketa lanetarako ere. Jaurritzaileen ziurtagiria eta legezko agiriak daukat. Deitu telefono zenbaki honetara: 659 57 93 89

Debagoiena. Orduka eta asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen edota garbiketan. Deitu telefono zenbaki honetara: 612 56 12 39

Debagoiena. Orduka pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. Autoa daukat. 631 98 15 50

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 25 26 67

Debagoiena. Sukaldean, nagusiak zaintzen edota etxeko lanak egitean aritzeko gertu nago. Deitu telefono zenbaki honetara: 610 99 70 46

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke, baita gauetan, asteburuetan edota ospitalean ere. Legezko agiriekin eta soziosanitario ikasketekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 647 3148 17

8. DENETARIK

801. SALDU

Bizikletak eramatekoak salgai. Thule etxekoak. Bi bizikleta eramateko prestatua, baina hirugarrena eramateko aukerarekin. Furgonetan, autokarabanan edo monobolumenetan erabiltzeko baliagarria. Trafikorako seinalea opari. 647 02 39 59

808. BESTELAKOAK

Erlategia jartzeko lursail bila. Arrasaten edo inguruan erlategia jartzeko leku bila nabil. Hegoalde-bera, eguzkibegi, eta autoz bertara iristeko modukoa. Erosi edo trukean hartuko nuke. 676 52 75 28 (David)

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Axel Anduaga Cortes
19an, 9 urte.
Zorionak, maiti! Ondo pasau zure urtebetetze egunean. Muxu erraldoi bat, bereziki Liarena.



BERGARA
Sara Ezenarro
14an, 10 urte.
Zorionak, maitxia! 10 urte jada! Muxu potolo bat etxekoan partetik. Asko maite zaittugu.



ANTZUOLA
Ekain eta Gaizka Niño Fernandez
10ean, 7 urte.
Zorionak, bikote! Jada zapi urte! Muxu potolo asko etxekoan partetik.



BERGARA
Xabat Ernabide Sebal
8an, 6 urte.
Zorionak, Xabat! Ondo ospatu! Familiaren partetik.



ANTZUOLA
Bidatz Elizburu Salegi
7an, 14 urte.
Zorionak! Segi zauden bezala. Asko maite zaitugu. Muxu asko etxekoan partetik!



ARRASATE
Hegoa Bergaretxe Arkauz
18an, 4 urte.
Zorionak! Asko maite zaitzugu. Bereziki Jareren partetik, muxu erraldoi bat.



BERGARA
June Gabilondo Kapelastegi
13an, 10 urte.
Zorionak, June! Topera ospatu zure eguna! Muxu potolo bat familia guztia- ren partetik.



ESKORIATZA
Isak Markel Maturana Sheen
10ean, 12 urte.
Zorionak zure familiaren partetik!



ARRASATE
Adara Alonso Gonzalez
8an, 4 urte.
Zorionak, Adara! Muxu erraldoi hegalaria aitaxo eta Luciare- n partetik.



ARRASATE
Ane Rueda Calleja
10 urte.
Zorionak, maitia! Mila muxu etxeko guztion partetik!



ESKORIATZA
Amalur Karpio Azpitarte
Urtarrilaren 16an, 8 urte.
Gure neskatila politenak ederto ospatu dezala egun eder- ra. Patxo potolo bat!



ARETXABALETA
Maria Angeles eta Shaila
13an, zorionak, amona eta ama! Nahiz eta aurt- en elkarrekin ez egon, bueltan, merezi bezala ospatuko dugu!



ARRASATE
Iker Del Palacio Orellana
10ean, 10 urte.
Zorionak, Iker! Oso ondo pasa eta gozatu! Muxu haundi bat etxekoan partetik.



ARRASATE
Ane Rueda Calleja
Urtarrilaren 8an, 10 urte.
Zorionak, maitia! Mila muxu etxeko guztion partetik!



ARETXABALETA
Iker Laspiur
5ean, 40 urte.
Zorionak, Iker! Besarkada haundi bat, bereziki Joaneren eta Xabi- ren partetik.



ONATI
Elene Gorosabel Urrutia
Urtarrilaren 15ean, 5 urte.
Zorionak, Elene! Patxo haundi bat familia- n danaren partetik! Asko gura du!



BERGARA
Ibon Lete Cobo
12an, 7 urte.
Zorionak, mutil handi! Segi horrelako guapo eta sinpatiko. Muxu potolo bat danon partetik!



ONATI
Jon Agirrezabal Maiztegi
10ean, 2 urte.
Zorionak, txapeldun! Muxu haundi bat danon partetik! Asko maite zaitugu!



ONATI
Naia Letamendi Narraspe
8an, 10 urte.
Zorionak, maitia! Jada 10 urteko! Patxo haundi bat etxeko danon partetik!



ARRASATE
Garazi Nin Ugald
Urtarrilaren 5an, 11 urte.
Zorionak, Garazi! Gozatu etapa berri hau be. Bihotzez maite zaitzugu.



ANTZUOLA
Miguel Fernandez Nuñez
14an, 72 urte.
Zorionak, abu! Asko maite zaitugu! Muxu asko etxekoan partetik.



ONATI
Noa Lizarralde Martinez de Zuazo
11n, zorionak, Noa! 4 urte! Egun zoragarria pasau deizula etxeko danon partetik!



ANTZUOLA
Eider Lazpiur Moreno
10ean, 8 urte.
Urte askotarako, gure Eiderxo! Maite zaitugu, laztana. Saioa, Maider, Halain eta Miren.



ONATI
Ibai Arregui Ladino
7an, 2 urte.
Zorionak, polit hori! Ze ondo, bi urteko ospatuko dituzu. Muxu asko familiaren partetik!



ARETXABALETA
Lia Anduaga Cortes
5ean, 4 urte.
Muxu erraldoi bat bereziki, amatxoren, aita- txoren eta Axelen partetik. Mua!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarki-ak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldatetarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarki- en ondorioz sor daitezkeen operazio- en erantzukizunik.

ESKER ONA

Felisa Aizpeurrutia Etxebarria

Koldo Zuluetaren alarguna

2022ko abenduaren 31n hil zen, 82 urte zituela.



Eskerik asko egun hauetan gure ondoan egon zaretenoi; jaso dugun maitasun eta babesa eskertu nahi dizuegu. Bihotz-bihotzez besarkada estu bana senideon izenean.

Oñatin, 2023ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA



Pedro Olalde Goitia

2022ko abenduaren 28an hil zen, 80 urte zituela.



Lerro hauen bidez Pedroren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

—

Urtarrilaren 14an, zapatua, agustindarren elizan, 19:30ean, ondrek izango dira. Bertaratuko zaretenoi aldeztu aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2023ko urtarrilaren 13an.

URTEURRENA



Santiago Ormaetxea Atorrasagasti

Mertxe Azkarragaren alarguna

2022ko urtarrilaren 13an hil zen, 92 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 15ean, 12:00etan, Elgetako Jasokundeko Amaren parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Elgetan, 2023ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Carmen Elizaran Elustondo

Facundo Garay Txintxurretaren alarguna



Ama, Amama izena eta izana.

Ama, Amama izen txiki arruntean, izan haundi berezi-berezia.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gure ondoan egon zaretenoi.

Arrasaten (Bedoña), 2023ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA



Sotero Olave Uribarren

2023ko urtarrilaren 4an hil zen, 77 urte zituela.



Aitaita, gure ondotik joan zara baina beti izango zaitugu gure bihotzetan.

—

Julen, Naiara, June eta Unax.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2023ko urtarrilaren 13an.

URTEURRENA

Maria Iturbe Txintxurreta

Jose Zabaletaren alarguna

2022ko urtarrilaren 21ean hil zen, 98 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2023ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA



Jose Ramon Belastegi Zubia

'Piku'

2022ko abenduaren 24an hil zen, 75 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko urtarrilaren 13an.

ESKER ONA

Vicente Lete Jausoro

2023ko urtarrilaren 10ean hil zen, 82 urte zituela.



Lerro hauen bidez Vicenteren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, era desberdinetan maitasuna eta elkartasuna adierazi diguzuen guztioi.

—

Agur meza urtarrilaren 22an izango da, 12:00etan, San Juan Bataiatzailearen parroki-elizan. Bertaratuko zaretenoi aldeztu aurretik eskerrik asko.

Arrasaten, 2023ko urtarrilaren 13an.

URTEURRENA

German Derteano Txintxurreta

2022ko urtarrilaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.



Urtea igaro arren, gure gogoan biziko da beti.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 14an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goianguaren parrokan.

Bertaratuko zaretenoi, eskerrak familiaren izenean. Oñatin, 2023ko urtarrilaren 13an.

OROIGARRIA

Jose Ramon Belastegi Zubia

'Piku'

2022ko abenduaren 24an hil zen, 75 urte zituela.



Beti gure bihotzean eramango zaitugu.

Koinatu, koinata eta ilobak. Arrasaten, 2023ko urtarrilaren 13an.

OROIGARRIA



Vicente Lete Jausoro

2023ko urtarrilaren 10ean hil zen, 82 urte zituela.



Beti izango zaitugu gogoan.

Elorza Gorosabel familia. Arrasaten, 2023ko urtarrilaren 13an.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Guri deitu zuzenean edo, nahiago baduzue, jakinarazi zuen aserua-konpainiari gurekin nahi ditzuela agurtu nahi duzuen.

Marioen, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko bala dute horietakoak. Guk badinagu gordetu zuzentzeko, gure beharra duzuenetako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



BAIESLEA

!

Eskela gehiago 38. orrialdean.

ESKELAK

HILETA

Rosario
Uranga Arregi

Andres Okinaren alarguna



2023ko urtarrilaren 11n hil zen, 105 urte zituela.

Haren seme-alabak: Fernando eta Anabel Mondragon.
Bilobak: Ander eta Catarina, eta Uxue.
Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak eta gainerako senideak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, izango da,
19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.
Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

Familiak San Felipe beilatokian (Ignacio Zuloaga 2) hartuko zaituzte,
11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30era bitartean.



Eskela gehiago 37. orrialdean.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

ALOÑA-MONDRA
DERBIAREN
LABURPENA

Azkoagainen jokatu den partiduen jokaldi onenak eta protagonisten adierazpenak jasoko dituzte *Harmailatik* saioan.

'Harmailatik' Astelehena,
21:30 eta 23:30

IRAITZ LAZKANOREKIN ETA
AINTZANE OIARBIDEREKIN
Elgetaraino joango da Goiatz Arana, alkatearekin eta oposizioko buruarekin berba egitera.

'Harira' Martitzena, 21:00 eta 23:00



DANBAKAKO FINALAREN KONTZERTUA

Seminarixoan jokatu den finalean taldeen emanaldia osorik ikusteko aukera egongo da.

'Danbaka' Eguena, 21:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 13

OÑATI Odol ematea

Urteko lehena egingo dute. Egunean bertan deitu behar da izena emateko: 943-00 78 84.
Enpresagintzan, 16:30ean.

ESKORIATZA Erronka jolasak

16:45ean Haur Hezkuntzakoak eta 18:00etan Lehen Hezkuntzakoak.
Ludotekan.

OÑATI 'El ladrón de rostros'
liburuaren aurkezpena

Ibon Martin idazlea egongo da ekitaldian eta liburuak sinatuko ditu.
Santa Anan, 19:00etan.

BERGARA Danbakako finala

The Clayton, Aiert eta Arragoa, nor baino nor gehiago.
Seminarixoan, 21:00etan.

BERGARA Euskal Herriko XIV.
Mus Txapelketa

Bergarako kanporaketa jokatu da. Bikoteko, hogeia euro.
Seminarixoan, 18:00etan.

ZAPATUA 14

OÑATI Elkoro baserrira bisita
eta dastatzea

Baratze-ekoizle gazteen egunerokoa ezagutzeko aukera. Izena emateko: 635 20 21 46.
Elkoro baserrian, 10:00etan.

ESKORIATZA Emakumezkoen
pilota topaketa

Bailarako nesken topaketa, Arizmendi kirol elkarteak antolatuta.
Pilotalekuan, 16:00etan.

ARRASATE 'Batetik bestera'
antzezlan

3 urtetik gorakoendako. Sarrerak, bost euro. Txorien migrazioaren gaineko lana egin du Benetan Be taldeak.
Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 17:00etan.

ESKORIATZA Mahai-jolasen
txapelketa

12-17 urte artekoendako, eta taldeka jolasteko.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE 'Twister' erraldoia
Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA Dantzaldi-erromeria
Patxi Eta Konpainiarekin

Tapia Eta Leturia taldeko kide ohi Patxi Perezek bat egin du Konpainia taldearekin.
Seminarixoan, 18:00etan.

DOMEKA 15

OÑATI Mendi irteera

Beasain-Usurbe (703 metro)-Murumendi (868 metro)-Kizkitza-Itsaso ibilaldia egingo dute. Guztira, hamabost kilometro.
Postetxean, 08:00etan.

OÑATI Rudiger taldearen
kontzertua

Willis Drummond taldeko bateria-jole Felix Buffen proiektua da. Sarrerak, sei eurotan, udal webgunean eta Txokolateixan.
Gaztelekuan, 12:30ean.

BERGARA Txistulari bandaren
emanaldia

Urte berriko lehen emanaldia egingo dute. Irekia.
Osoko bilkuren aretoan, 13:00etan.

ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko umeendako eta euren gurasoendako askotariko jolasak. Gaurtik martxoaren 26ra arte, domekero. Aurrez eman behar da izena, edozein ludotekatan.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

ESKORIATZA Zinema-emanaldia

17:00etan umeendako eta 19:00etan helduendako.
Zaldibarren.

ARRASATE 'Just dance' saioa
Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Kepa Junkera.
Berpiztu' dokumentala

Trikitilariaren ibilbide artistikoari eta iktusa izan ondorengo errehabilitazio-prozesuari buruzko dokumentala. Sarrerak, bost euro.
Torresoroan, 18:00etan.

ASTELEHENA 16

OÑATI Pentsiodunen
elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen
elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen
elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen
elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA 'Nik ere baditut
ikasketak' hitzaldia

Bidez Bide elkarteok egingo dute berba, gazteleraz, Jabekuntza Eskolaren baitan.
UNEDen, 16:00etan.

ESKORIATZA 'Slime' tailerra

16:45ean HHkoak eta 18:00etan LHkoak.
Ludotekan.

MARTITZENA 17

BERGARA Buztinzale
elkartearen erakusketa

Ikusgai hilaren 22ra arte.
Aroztegin, 18:00etan.

ARRASATE Udazkeneko ArtGazki
lehiaketaren erakusketa

Argazki onenak ikusgai hilaren 21era arte.
Kulturaten, 18:00etan.

ELGETA Kantsatzeke: bazkidetza
eta federazio txartela

Gaur da mendi taldearekin tramiteak egiteko eguna.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE 'Ikusezinak.
Erbesteratuen haurrak'

liburuaren aurkezpena
Miren Azkarate Badiola egilea egongo da ekitaldian.
Kulturaten, 19:30ean.

ARRASATE 'Utama' pelikula
Alejandro Loayzaren lana
martitzenetako emanaldian.
Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 18

OÑATI 'Ontziak' hitzaldia
Munduari bira eman zion ontzia
liburua esplikatuko du Joseba
Sarrionandiak, Esperientziaren
Gelak eta Goienagusik gonbidatuta.
Santa Ana antzokian, 10:00etan.

ARRASATE Sasoibide: mendira
Elkartzen direnen artean erabakiko
dute zein mendi buelta egin.
Biteri plazan, 15:00etan.

**ARRASATE 'Euskara batuaren
bizibidea' hitzaldia**
Pello Salaburuk egingo du berba.
Kulturaten, 18:00etan.

**ARETXABALETA 'Maleta
kontuak' ipuin kontaketa**
Maidar Galarzaren saioa, 4 eta 6
urte arteko neska-mutikoendako.
Izena aldeztu aurretik eman behar da,
liburutegian; azken eguna,
urtarrilaren 16a.
*Liburutegiko Txiki Txokan,
18:00etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiako
produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

**ARRASATE Europar literaturako
ikastaroa**
Herta Mullerren *El hombre es un
gran faísán en el mundo* liburua
aitzakia hartuta. Gaztelaraz.
*Kulturateko Jokin Zaitegi gelan,
18:15ean.*

ARRASATE 'Close' pelikula
Zineklubean, jatorrizko bertsioan
eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru
euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

EGUENA 19

ARRASATE Sasoibide
Elorriorainoko joan-etorria egingo
dute.
Biteri plazan, 10:00etan.



BENETAN BE

ARRASATE 'Batetik bestera' antzezlan
3 urtetik gorakoendako lana. Txorien migrazioaren gaineko lana egin du
Benetan Be taldeak. Sarrerak, bost euro. Patricia Urrutia, Jon Zumelaga eta
Juanjo Otero dira aktoreak.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

**ARRASATE 'Lau haizetara' ipuin
kontaketa**
Vanessa Gonzalezen emanaldia, 4
urtetik gorako neska-mutikoendako.
Bibliotekan eman behar da izena
aurrez. Urtarrilaren 19a da azken
eguna.
Bibliotekan, 18:00etan.

**ESKORIATZA Literatura
solasaldia**
Juan Tallon kazetariaren *Obra
Maestra* liburuaren gaineko tertulia,
Monica Leivak gidatuta.
Kultura etxean, 18:00etan.

**OÑATI 'Zergatik mobilizatu
U28an?' hitzaldia**
GKSko kideek egingo dute berba.
Mobilizazioaren zergatiaz eta horren
garrantziaren gainean hitz egingo
dute. Ostean, pintxoak egongo dira.
Gaztetxean, 19:00etan.

OÑATI 'Close' filma
Lukas Dhont zuzendariaren pelikula,
zineklubean. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoa, 20:00etan.

**ARRASATE Kooltur Ostegunak:
Toc taldea**
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 20

**OÑATI Rap emanaldia eta
kontzertua**
20:00etako emanaldietan herriko
hainbat gazte igoko dira oholtzara
euren kantuak eskaintzera; eta

22:00etan, Doce-C eta Txandal
Vandals taldeen kontzertua.
Sarrerak: hiru euro langabeendako
eta ikasleendako; eta bost euro
besteendako.
Gaztetxean, 20:00etan.

ZAPATUA 21

**BERGARA Autodefentsa
feminista tailerra**
Ordutegia: 10:00-14:00 eta
15:00-17:00. Aurrez eman behar da
izena, Udaleko Berdintasun Sailean:
943- 77 91 45.
Agorrosinen.

**BERGARA 'Sex o no sex'
ikuskizuna**
Virginia Imazen ikuskizuna. Bizitzari,
heriotzari eta sexuari buruzko
hausnarketa egingo du oholtza
gainean Pauxa pailazoak. Sarrerak,
zortzi euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

ESKORIATZA Akulu taldea
Speed punk diskoa aurkeztuko du
Aretxabaletako hirukoteak. Pablo,
Xabi eta *Polí* dira taldeko kideak.
Debalde.
Inkernu tabernan, 22:30ean.

DOMEKA 22

**BERGARA Musika Bandaren
emanaldia**
Enrike Txurrukak zuzendutako
kontzertua.
Pilotalekuan, 12:30ean.

ZINEMA

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

Al descubierto
Domeka eta
astelehena: 19:30.

Mision H2O
Domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

La mujer rey
Domeka eta
astelehena: 19:30

Kung food
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Avatar
Egubakoitza eta
zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30,
22:00.
Astelehena: 19:30.

ARETXABALETA

ARKUPE

La mujer rey
Egubakoitza:
22:00.
Zapatua eta
domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Lilo, mi amigo el
cocodrilo**
Zapatua eta
domeka: 17:00.

GASTEIZA

FLORIDA

A todo tren 2
Egubakoitza, eta
astelehenetik
egunera: 17:00.
Zapatua eta
domeka: 11:45,
17:00.

As bestas
Egunbakoitza eta
zapatua: 17:15,
19:15.
Domeka,
astelehenetik
eguztena:
17:15, 20:00.
Martitzena: 17:15.

Avatar
Egubakoitza, eta
astelehenetik
eguztena:
18:50, 20:00.
Zapatua eta
domeka: 11:30,
18:50, 20:00.
Eguna: 18:50.

Close
Egubakoitza eta
zapatua: 19:45,
22:00.
Domeka: 19:15,
21:30.

Astelehenetik
egunera: 19:45.

**El despertar de
Maria**
Egubakoitzetik
egunera: 17:00.

**El falsificador de
pasaportes**
Egubakoitzetik
domeka: 19:30,
22:00.
Astelehenetik
egunera: 20:00.

**El gato con
botas**
Egubakoitza, eta
astelehenetik
egunera: 17:30.
Zapatua: 12:00,
17:30.
Domeka: 12:00,
17:00.

**El peor vecino
del mundo**
Egubakoitzetik
egunera: 17:00.

El río de la ira
Egubakoitza eta
zapatua: 20:00,
22:15.
Domeka: 19:30,
21:45.

Astelehenetik
egunera: 20:00.

Emily
Egubakoitzetik
domeka: 19:00,
21:45.

Astelehenetik
egunera: 19:00.

Holy spider
Egubakoitzetik
domeka: 19:30,
22:00.
Astelehena,
eguztena eta
eguna: 17:30,
19:30.
Martitzena: 17:30,
20:00.

La piedad
Egubakoitzetik
domeka: 17:00.
Astelehenetik
egunera: 17:30.

M3gan
Egubakoitza:
22:00.
Zapatua: 11:30,
22:00.
Domeka: 11:30.

**Operacion
Fortune**
Egubakoitza, eta
astelehenetik
egunera: 17:30.
Zapatua: 11:45,
17:30.
Domeka: 11:45,
17:00.

Mundo extraño
Zapatua eta
domeka: 11:45.

Living
Egubakoitzetik
domeka: 17:00.

KRITIKA

La novelista y su película ★★★★★
Zuz.: Hong Sang-soo. **Herr.:** Hego Korea (2022). **Aktoreak:** Lee
Hye-young, Kim Min-hee. **Iraupena:** 92 minutu.

Ezusteko harreman berriak

ANTONIO ZABALA

Sarritan, Hon Sang-sooeren
filmetan antzeko eskema
errepikatzen da: pertsonaien
topaketa desberdinek eta
horien artean sortzen diren
solasaldiek osatzen dute
istorioaren mamia. Izan
daitezke ezagunen arteko
topaketak edo topaketa
horietan elkar ezagutzen ez
duten pertsonaia berriekin
sortzen diren harremanak.
Askotan, ezusteko harreman
berriak ezagunekin izandakoak
baino bizigarriagoak,
hurbilagoak eta aberatsagoak
izan daitezke. *La novelista y su
película*-n, istorioaren
protagonista nagusia
eleberriak idazten urte asko
daramatzan emakumea da.
Krisialdi bat sufritzen ari da.
Aspaldiko partez haren berriak
izan ez duen lagun bat

bisitatzera joango da, zinema
zuzendari batekin topo egingo
du, eta zinema uzteko ideia
duen aktore famatu bat
ezagutu.

Hong Sang-sooek ez du ia
kamera mugitzen. Plano
finkoak erabiltzen ditu
pertsonaien arteko
sentimenduak eta sentsazioak
islatzeko. Oso ondo atzematen
ditugu euren arteko
harremanak –batzuetan
tenkatuagoak eta beste
batzuetan erlaxatuagoak– eta
harreman berriak nola garatzen
diren. Idazleak filmean
adieratzen du Hong Sang-
soonon filmatzeko metodoa:
abiapuntu moduan istorio
samur bat erabili eta horren
bitartez pertsonaietan sortzen
diren sentimenduak eta magia
kamerarekin harrapatu.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Do-Hyun Han

Urtarril honetan irekiko ditu ateak, Seuletik gertu, Do-Hyunek beste lagun korear batzuek eraturtako elkarte gastronomikoak. Baina *Academy of Korean Studies*-eko soziologo bikaina ez zen horretarako etorri Euskal Herrira. Zergatik eman du Do-Hyunek 2022 osoa gure artean?

Do-Hyunen esanetan, Hego Korean bazegoen bizitza komunitarioa: herritarren arteko kolaborazioa jarduerak antolatzeke, kale giroa eta abar. Hala ere, galdu egin zen 70eko hamarkadatik aurrera sekulako indarra hartu zuen industrializazioaz.

Aztertzen egon da, MUKO ikertzaile bisitari gisa, Arrasateko enpresen – kooperatibak, bereziki – eta tokiko komunitatearen arteko harreman emankorra. Elkarriketatu ditu arlo diferenteetako hainbat eta hainbat herritar. Gainera, errealitateaz hobeto jabetzeko, euskara ikasten aritu da: astelehenetik ostiralera goiz osoan euskaltegian eta abuztua barnetegian.

Orain, jasotakoa lantzen ari da Seulen. Azterketak balioko du Hego Korean zentzu komunitarioa berreskuratzeko bidea erakusteko. Guri balio diezaguke, dugun gizarte formula mantentzeko eta hobetzeko. Izan ere, zaintzen ez dena galdu egiten da.

GOIENA OKM GIDA

"Ederra da bezeroen arazoak konpontzea"

PATRICIA IGLESIAS ETA IGOR RODRIGO IBARRALDE ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK SL Aholkularitza izateaz gain, etxaldean administrazioaz ere arduratzen dira, eta, horri lotuta, higiezin agentzia jarri dute martxan etxeen alokairu-salmentak kudeatzeko

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA 30 urte bete ditu Ibaralde Administrazio Zerbitzuak. Gaur egun, zazpi profesionalak osatzen dute lantaldea. Horietako bi dira Patricia Iglesias ermuarra eta Igor Rodrigo bergarra; biak, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduatuak. **Ze zerbitzu eskatzen dituzue?**

Aholkularitza laborala, fiskala, juridikoa... Autonomoekin egiten dugu lan, gehienbat. Kontratuak, nominak eta horrelakoak egiten ditugu. Barneko zaintzan ere geroz eta jende gehiagok egiten du lan eta horrelako kontratazio batek dakarren kudeaketaz arduratzen gara. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Emekin eta Txekin ekintzailatza programetan ere laguntzen diegu bezeroei.

Etxe-agentzia ere baduzue.

Etxaldean administratzaileak ere bagara; eskaera handiko sektorea da. Etxebizitzaren alokairu nahiz salmentekin lotuta dagoela ikusi dugu eta higiezin agentzia martxan jarri berri dugu. Atari asko kudeatzen ditugu, eta bizilagunek badituzte pisuak hutsik. Haiekin zuzeneko erlazioa daukagu, baita harremana ere. Hortaz, aukera hori aprobetxatu dugu.



Patricia Iglesias eta Igor Rodrigo, eguaztenean egindako elkarrizketan. I.A.A.

Arlo askotan lan egiteko aukera

"Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza gradua aukeratzeko zalantzak dituen gazteei esan nahi diegu irteera asko dituen gradua dela. Ikaskideak ditugu banketxeetan, aseguru-etxeetan, enpresetan, aholkularitzan eta marketinean dabilzanak. Paper artean lan egitea gustatu behar zaizu. Teknologia ere sartu da, eta eguneratuta egon behar duzu zeuk, baita softwareek ere, geroz eta kudeaketa gehiago online egiten direlako".

Zein da etxebizitzaren alokairu eta salmentaren egoera?

Arazoa betikoa da. Errosteko maileguak lortzea ez da erraza; alokatze eskaria oso handia da, baina ez daude etxe asko. Egoera onean dauden etxebizitzaren jabeek ahalik eta diru gehien atera nahi dute; beraz, salmentak prezioa altua izaten da. Horiek alokairuan jartzen badira, hileko kuota altua izaten da.

Urte hasieran lan-karga handiagoa izaten duzue?

Bai. Aholkularitzan urtea urtarrean itxi behar izaten dugu, eta atari askotan ere urtea orain hasten da. Errenta aitortpenaren kontua ere entzuten dute bezeroek eta jende asko galdezka etortzen da.

Legedia etengabe aldatzen da.

Eguneratuta egon behar dugu. Internetek asko erraztu digu hori. Hainbat webgunetan harpidetuta gaude: editorialetan, Gipuzkoako Buletin Ofizialean, Gizarte Segurantzaren... Kurtsoetan ere hartzen dugu parte.

Lanetik deskonektatzeko?

I.R.: Gimnasia joaten naiz tentsio guztiak askatzera. / P.I.: Nik neuk bi alaba ditut eta haiekin pasatzen dut denbora.

Lanaren alderik onena? Txarrena?

Ederra da bezeroen arazoei irtenbidea ematea. Gainera, zerbait baliagarria egiten duzu. Txarrena ez, baina gogorrena larrialdi egoeran bizi izan genuena. Ezjakintasun handia zegoen, denak etxean zeuden eta erantzunak aurkitzea eta kudeaketak egitea oso zaila zen.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida



Realaren eta Mallorcaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

ERREGE KOPA

Real-Mallorca partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturiko beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Urtarrilaren 17an, martitzena, 19:00etan. Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 15

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1.
Aplikazioa deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



goiena
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia